


ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2023

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena



ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

www.ararteko.eus



URTEKO TXOSTENAK

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena

2023

Haur eta Nerabeentzako
Bulegoaren txostena



Vitoria-Gasteiz 2024

Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\)](#) lizentziapean dago



Lan honen **bibliografia-erregistroa** [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

Formatuak eta edizioak:

Paperean ere bai: Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena 2023 (ISSN 2255-484X)

Gaztelaniazko edizioa: [Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia 2023](#) (ISSN-e 2255-4947)

Honekin batera argitaratua: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2023](#) (ISSN-e 2255-4939)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2023. Laburpena](#) (ISSN-e 3020-4615)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

- [web](#) gunean
- posta elektronikoz eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)



ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa: Editorial MIC

ISSN-e 3020-5328

Aurkibidea



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	11
-------------------------	----

I. KAPITULUA

Testuinguru arauemailea, soziala eta antolamenduzkoa	13
---	----

1. Nazioarteko esparrua: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa eta horren garapenak	15
2. Europa: Haurren Eskubideei buruzko EBren Estrategia (2022-2027)	16
3. Estatu eta autonomia-erkidegoa.....	17
4. Haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko erakundea XXI. menderako	17

II. KAPITULUA

Eskubideak urratzea? Kexak, kontsultak eta inizatiba propioko jarduerak	19
--	----

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditentak: hurbilketa kuantitatiboa	21
2. Arriskuan dauden eskubideak	22
2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea.....	22
2.2. Hezkuntzarako eskubidea.....	26
2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea	29
2.4. Familia babeslea izateko eskubidea	35
2.5. Osasunerako eskubidea	39
2.6. Haurren eta nerabeen eskubideak justiziarikiko harremanetan.....	41
2.7. Jolasteko, atsedean hartzeko eta jardura artistikoak eta kirol-jarduerak egiteko eskubidea	43
2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea	43

III. KAPITULUA

Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan hartzeko eskubidea: Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua	49
---	----

IV. KAPITULUA

Haurren eskubideak sustatzea: gizartearekiko harremanak eta erakundeen arteko lankidetzak	55
--	----

1. Nazioarteko sareetan eta ekitaldietan parte hartzea.....	57
2. Espainiako beste defendatzaile batzuekin lan egitea haur eta nerabeen eskubideen arloan.....	58
3. Gizarte-eragileekiko lankidetzak	59
4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak.....	59
5. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa onartu izanaren oroipena	60

V. KAPITULUA

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren 2023ko jarduketan laburpena	61
--	----

Aurkezpena

Dokumentu honek Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2023an garatutako jardueraren elementu esanguratsuenak jasotzen ditu. Aurten ere, erantsitako txostena dela gogorarazi nahi dugu, Arartekoak Legebiltzarrari egindako 2023ko urteko txostenaren moduko osotasun baten zati izango den dokumentua eginez, hau da, modu independentean irakur daitekeen dokumentu bat. Horrela, erakundeak bereziki kaltebera den kolektibo horri dagokionez duen antolakuntza- eta funtzio-errealitatea islatzen ditu: Arartekoaren jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduketak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek haurren interes gorenari ematen dio lehentasuna, kaltetutako eremua edo bizi-esfera edozein izanda ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa bost kapitulutan egituratu da. I. kapitulan, bulegoko jardura garatzen den haurren eta nerabeen eskubideei buruzko gizarte- eta arau-testuingurua zehazten da.

II. kapitulan, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta antzemandako arazo nagusiak aipatzen dira, arriskuan dauden eskubideen arabera taldekatuta. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziotako ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren; foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikaskuntzak birpasatzen dira.


III. kapituluak haurrek eta nerabeek parte hartu dezaten eratu dugun organoan, hots, Haur eta Nerabeen Kontseiluan, garatutako jardueraren aipamen berezia egiten du.

IV. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jardura biltzen ditu.

V. kapituluak, azkenik, dokumentuan zehar azaldutakoa laburbiltzen du, elementu garrantzitsuenak nabarmenduz eta, kasu batzuetan, gertatutakoaren inguruko joerak eta gogoetak aditzera emanez.



TESTUINGURU ARAUEMAILEA, SOZIALA ETA ANTOLAMENDUZKOA



I.

kapitulua

I. KAPITULUA

TESTUINGURU ARAUEMAILEA, SOZIALA ETA ANTOLAMENDUZKOA

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak garatutako jarduna erakundearen ardatz estrategiko nagusien arabera bideratu ohi da, gizarte- eta arau-testuinguru batean. Testuinguru horri erantzuten saiatzen da, eta, aldi berean, bere jarduna egiteko modu zehatza mugatu eta baldintzatzen du. Alde horretatik, kapitulu honen helburua da 2023an testuinguru horietan gertatu diren berrikuntza nagusiak aurkeztea, haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeari dagokionez.

1. Nazioarteko esparrua: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa eta horren garapenak

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

Espainiak haurren eskubideei eragiten dieten eta eskubide horiek bermatzen dituzten nazioarteko hainbat tresna berretsi ditu, haiek ere herritarrak diren aldetik (eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, emakumeen eskubideak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak...). Hala ere, haurren eta nerabeen eskubideen erreferente nagusia *Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa* da (aurrerantzean, HEK), *Nazio Batuen Erakundearen* (NBE) Batzarrak aho batez onartua 1989ko azaroaren 20an, eta Espainiak berretsia 1990eko abenduan. HEK modu unibertsalean onartu den haurren eskubideen katalogoa da, eta, aldi berean, estatuek errespetatzeko, bermatzeko eta betearazteko dauzkaten betebeharrak ezartzen ditu.

HEK-k oinarritzko lau printzipio biltzen ditu, edukia aplikatzeko, praktikan jartzeko eta interpretatzeko. Oinarri horiek honako hauek dira:

- haurren interes gorenari; haurrei eragiten dieten neurri guztietan haien interes gorenari kontuan hartuko dela bermatzen du.
- entzuna izateko eskubidea (parte hartzeko printzipio gisa ere ezagutzen da). Horren arabera, haur guztiak beren iritzia askatasunez adierazteko aukera izan behar dute, eta beren ikuspuntuak errespetatzeko eskubidea dute.

- berdintasuna eta diskriminaziorik eza; haur guztiak, bereizketarik edo salbuespenik gabe, beren eskubideez gozatu ahal izatea bermatzen du.
- bizitza, biziraupena eta garapena; ez erailtzeko eskubidea ez ezik, duintasunez bizitzeko eskubidea ere bermatzen du, eskubide ekonomikoak eta sozialak ahalik eta gehien bermatuz.

6. artikulutik aurrera, lau eskubide-multzo handi aipatzen dira: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera edukitzeko eskubidea, haurren eta helduen artean baliabideak banatzea; **sustapena**, hau da, garapen integrala eta osasun- eta hezkuntza-maila ahalik eta altuenak izateko eskubidea; **babesa**, hau da, gurasoen eta profesionalen zainketak jasotzeko eskubidea eta ekintza eta praktika neurrigabeak jasan behar ez izatea; eta **parte hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nor bere burua aditzera emateko eta banaka zein kolektibo batean ahotsa edukitzeko eskubidea.

Gainera, beste bi premisa hartu behar dira kontuan: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzeari dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundearen eta gizartearen ardura partekatua.

Aukerakoak izan arren (fakultatiboak), Espainiak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren (HEK) hiru protokoloak ere sinatu eta berretsi ditu. Protokolo horiek babesari buruzko hainbat gaitan sakontzen dute, hots: [HEKren hautazko protokoloa, gataska armatuetan haurren parte hartzeari buruzkoa](#); [HEKren hautazko protokoloa, haurren salerosketa, haurren prostituzioa eta pornografian haurren erabilerari buruzkoa](#); eta [HEKren hautazko protokoloa, komunikazio-prozedura baten ingurukoa](#). Azken protokolo horrek mekanismo bat ezarri du haurrek edota euren ordezkariak salaketa jarri ahal izan diezaioeten beren eskubideak babesten **espezializatutako** nazioarteko batzorde bati, eskubide horiek urratu direla uste badute. Beraz, modu zabalago eta indartsuagoan onartu dute haurrak eta nerabeak eskubideen subjektu direla.

2022ko txostenean adierazi genuen bezala, urte horretan hasi zen HEK Espainian nola betetzen ari zen jakiteko jarraipen-prozesu sinplifikatua (VII. zikloa). Hala, gizarte zibilak (haurren eskubideak defendatzeko erakundeak, hala nola Arartekoa, barne hartuta) Espainiako Estatuari eska dakizkiokoen konturik garrantzitsuen zerrenda aurkeztu zuen. 2023ko martxoan, Haurren Eskubideen Batzordeak Espainiako Estatuari eska dakizkiokoen funtsezko **kontuen zerrenda** onartu zuen, eta 2024ko otsailaren 15a baino lehen erantzun

beharko zaie. Estatuak txosten hori eman eta hurrengo bi hilabeteetan, gizarte zibilak txosten “osagarriak” aurkeztu ahal izango ditu. Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak prozesu horretan berriz ere parte hartuko du.

Nolanahi ere, HEKrekin lotutako 2023ko gertaera garrantzitsuena maiatzeko bilkura-aldian [26. Ohar Orokorra](#) (2023) onestea izan zen, haurren eskubideei eta ingurumenari buruzkoa, klima-aldaketari arreta berezia eskainita. (Haurrentzako bertsioa, [hemen](#)).

Ohar Orokor hori, aurreko txostenean jaso genuen bezala, prozesu parte-hartzaile baten bidez egin zen, online eta aurrez aurreko kontsulta eta tailerren bidez, mundu osoko haurrei egindakoak barne. Batzordeak jakinarazi du prozesu osoan zehar Haurren Aholku Kontseilu bat izan zuela. Klima-aktibistak diren eta haurren eskubideak defendatzen dituzten 12 haurrek osatu zuten, eta 121 herrialdetako haurrek eta nerabeek 16.331 ekarpen egin zituzten. Bi kontsulta egin zitzaizkien haurrei. Bigarrena 2023ko otsailan amaitu zen, eta [txosten honetan](#) azaldutako emaitza izan zuen.

Ohar Orokorrean, Batzordeak azpimarratu du premiazkoa dela ingurumen-degradazioaren ondorio kaltegarriak hiltzea, arreta berezia eskainiz klima-aldaketari, haurren eskubideak behar bezala bermatzeko, eta argitu du estatuak horri begira zer betebeharrak dituzten. Batzordeak azaldu du HEKn ezarritako haurren eskubideak ingurumenaren babesari aplikatzekoak direla, eta berretsi du haurrek eta nerabeek ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarria izateko eskubidea dutela. Bestalde, zehaztu du estatuak haurren eskubideak berehalako kalteetatik babestearen erantzule direla, baita etorkizunean beren eskubideak urratu ahal izanaren erantzule ere, gaur egun estatuak egiten dutenaren edo egiten ez dutenaren ondorioz. Gainera, azpimarratu du estatuak ez direla bakarrik beren mugen barruan gertatzen diren ingurumen-kalteen erantzule; aldiz, kalte horiek duten inpaktu kaltegarriaren eta beren mugez gaindiko klima-aldaketaren erantzule dira, eta, beraz, arreta berezia jarri behar zaio egoera babesgabearen dauden haurrek jasaten duten neurritz kanpoko kalteari.

Ohar Orokorrek Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa berretsi duten 196 estatuei berehalako neurriak hartzeko eskatu die, ikatza, petrolio eta gas naturala pixkanaka uztea eta energia-iturri berriztagarrietara aldatzea barne, airearen kalitatea hobetzeko eta edateko urerako sarbidea bermatzeko, nekazaritza eta arrantza industrialak eraldatu elikagai osasuntsuak eta jasangarriak ekoizteko eta biodibertsitatea babesteko, [Parisko Akordioari](#) jarraiki.

Azkenik, Batzordeak berriz ere gogorarazi du haurren eta nerabeen iritziak entzun behar direla ingurumenari buruzko erabakiak hartzerakoan, eta azpimarratu du ingurumen-hezkuntza ezinbestekoa dela haurrak ingurumen-kalteen aurrean jarduteko eta kalte horietatik defendatzeko eta babesteko prestatzeko. Halaber, ingurumenarekin lotutako lege, politika, proiektu, erregulazio, aurrekontu eta erabaki guztiak ebaluatu behar direla azpimarratu du, haurren eta nerabeen eskubideen gaineko eraginari dagokionez.



2. Europa: Haurren Eskubideei buruzko EBren Estrategia (2022-2027)

2023an, Europako Batzordeak, zenbait gobernurekin eta instituzio eta erakundeekin sareekin batera, Haurren Eskubideei buruzko EBren Estrategiaren edukia, konpromisoak eta gomendioak zabaltzeko lan handia egiten jarraitu zuen ([Batzordearen jakinarazpena, 1. eranskina](#) eta [2. eranskina](#)). Estrategia horren xedea zera da: haurrak eta haien interes gorenak Europar Batasunaren politiken erdigunean kokatzea.

Gogora dezagun strategiaren lehen ardatzak haurrak ahalduztea xede duela, gizarte demokratikoetako herritar aktiboak izan daitezten. Bigarrenaren helburua da haurren pobrezia aurre egitea eta gizarte nahiz hezkuntza- eta osasun-sistema inklusiboak sustatzea, haurrei egokitutakoak. Gainera, [Europako Haurren Bermea](#) ezartzen du, pobreziarako edo gizarte-bazterketarako arriskuan dauden haur eta nerabeei laguntzeko estatu kideei orientabideak eta neurriak emateko. Hirugarren ardatzaren asmoa da haurren aurkako indarkeriari aurre egitea eta haien babesa bermatzea. Gainerako hirurek sistema judizialari, gizarte digitalari eta nazioarteko lankidetzari heltzen diete.

Bestalde, 2023ko uztailaren 13an argitaratu ziren [Maastrichteko printzipioak etorkizuneko belaunaldien Giza Eskubideei buruz](#) *soft law* delakoaren beste tresna bat dira. Horien bidez ezartzen da Giza Eskubideak ez daudela denbora-mugan menpe eta, hortaz, guztiak aplikatu ahal zaizkie etorkizuneko belaunaldiei.

Maastrichteko printzipioek egungo Nazioarteko Zuzenbidearen egoera argitu nahi dute etorkizuneko belaunaldien giza eskubideei dagokionez; hau da, “oraindik existitzen ez diren belaunaldiak, baina existituko direnak eta Lurra oinordetzan hartuko dutenak”. Erabakiak hartzeko gaitasuna duten agenteei orientazioa eskaintzen diete etorkizuneko belaunaldien eskubideak lege eta politiketan eraginkortasunez txertatzeko moduari buruz, azken 70 urteetako bilakaeratik eratorritako giza eskubideen corpus juridikoari jarraiki. Printzipio horien azken eskakizuna da erabakiak hartzeko prozesuek justizia eta iraunkortasuna kontuan hartzea eta

bermatzea, oraina, epe laburra eta urruneko etorkizuna barne hartzen dituzten denbora-eskala batzuetan zehar.

Nabarmentzekoa da belaunaldien arteko justiziak funtsezko garrantzia duela printzipio horiek eratzean, belaunaldien arteko betekizunak, eginbeharrak eta tutoretza azpimarratzen baititu; era berean, haurrek eta nerabeek duten posizioa aitortu behar da, hurrengo belaunaldietatik hurbilen dauden taldea baitira. Nola ez, ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarrirako eskubidea etorkizuneko belaunaldien giza eskubideak babesteko ardatz nagusitzat hartzen da, aurreko atalean aipatutako Haurren Eskubideen Batzordearen 26. Ohar Orokorrak jaso bezala.

3. Estatu eta autonomia-erkidegoa

Estatu-mailan, 2022ko txostenean aipatutako eta haur eta nerabeentzat edo haur eta nerabeen talde jakin batzuentzat garrantzitsutzat jotako hainbat lege onartu ziren. Hala nola, [4/2023 Legea](#), [otsailaren 28koa](#), transen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena. Familien Legeak, ordea, ezin izan zuen Parlamentuko izapidetzea amaitu, Gorteak desegin zirelako eta hauteskunde orokorretarako deialdia egin zelako. Aurrerago datozen kapituluetan garatuko diren sektore-eremuei erantzuten dietenez, lege horiei buruzko informazio gehiago jaso da dagozkien ataletan.

Euskadiko arau-testuinguruari dagokionez, garrantzitsuena ekainaren amaieran Gobernu Kontseiluak haurren eta nerabeen lege-proiektua onetsi zuela izan zen. Uda ondoren, hura onartzeko Legebiltzarreko izapideari ekin zitzaion, eta Arartekoari [agertzeko](#) gonbita egin zitzaion. 2023aren bukaeran, ordea, prozesua amaitu gabe zegoen. 2024ko lehen hilabeteetan amaitzea espero da.

Lege-proiektuak, alde batetik, Euskadiko haur eta nerabe guztien eskubideen defentsa azaldu eta gauzatu beharrari heltzen dio. Eskubide horiek haurren eta nerabeen giza eskubideak indartu, aldarrikatu eta defendatzen dituzten nazioarteko itunen ondorio dira. Bestalde, haurren eta nerabeen babesgabetasunaren errealitateari heltzen dio, eta xehetasunez aztertzen du konplexua eta oso sentibera den gai hori, oso egoera zaurgarrian dauden haurren eskubideak arriskuan baitaude.

4. Haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko erakundea XXI. menderako

2023an, Arartekoak, Eusko Legebiltzarrekin batera, [Legeen geroa – El futuro de las leyes](#) mintegia antolatu zuen, defendatzaileek eta eskubideen defentsarako erakundeek, hala nola Arartekoak, gaur egun dituzten eskaera sozial eta juridiko berriei buruz hainbat ikuspuntutatik —akademikoa, enpirikoa (defendatzaileen ikuspegia eta esperientzia) eta

parlamentarioa— hausnartzeko (ikus txosten orokorraren IV.3.1.a). Mintegi horretatik eratorritako hausnarketak eta [ondorioak](#) erakundean hasitako hausnarketa-prozesuaren oinarri izaten ari dira, Arartekoak XXI. mendeko gizarte honen behar eta eskakizunetara egokitzeko, eta,aldi berean, egun defendatzaileei aplikatzen diren nazioarteko estandar berritzaileenetara egokitzeko.

Hausnarketak erreferentziatzat hartzen ditu defendatzaileen oinarri diren Europako eta nazioarteko estandar berriak, bereziki 2019ko [Veneziako Printzipioak](#) eta *Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen (2019)6 Gomendioa, Ombudsman erakundearen garapenari buruzkoa*. Kontuan hartzen ditu, halaber, beste estandar batzuek bultzaturiko funtzio eta agindu berriak; besteak beste, haurren eta nerabeen eskubideei dagokienez, Haurren Eskubideen Batzordearen [2. Ohar Orokorra](#) (2002), giza eskubideen erakunde nazional independenteek haurren eskubideen sustapenean eta babesean duten zereginari buruzkoa.

Bai Haurren Eskubideen Batzordeak, bai mintegiko hizlariak (Emily Logan, Irlandako haurren lehen defendatzailea) adierazi dute agintaldi luzeko defendatzaile batek (Arartekoa, kasu) *ordezkari espezializatu bat edo haurren eskubideez arduratuko den atal edo dibisio espezifikoa* bat izan beharko lukeela. Egitura espezializatu hori beharrezkoa da erakundeak haurren eskubideak defendatzeko eskaintzen dituen formatuak eta prozedurak —baita kexa-prozedura ere— haurren eskaera eta premia berezietara egokitu behar dituelako, bideak eta prozedurak *adeitasuna* aintzat hartuta garatzeko (ingelesez *childfriendly* esaten zaio).

Ez dugu ahaztu behar, gainera, adingabeek, oro har, ezin dituztela beren eskubideak modu autonomoan defendatu auzitegietan, legitimazio aktiboaren arloan dituzten mugak kontuan harturik; beraz, horrek defendatzaileek eginkizun hori garatzeko duten beharra are gehiago indartzen du. Bestalde, argi dago eboluzio-eta etapa desberdinetan eta gaitasun desberdinak dituzten adingabeekin tratatzeko haur eta nerabeekin elkarreragiten duten (edo haien interesen alde lan egiten duten) profesionalen espezializazioa beharrezkoa dela, bai eta prozedurak, egiturak eta ekintzak egokitzea ere, adierazi den bezala.

Azkenik, haurrak beren eta etorkizuneko belaunaldien eskubideak defendatzeko bultzatzen ari diren mugimendu globalak haur horiek erabakiak hartzean eta, bereziki, beren eskubideak defendatzeko erakundeetan parte hartzea bultzatzen ditu.

Arrazoi horiek guztiek Arartekoak 2010ean Haur eta Nerabeentzako Bulegoa sortzeko hartutako erabakia indartzen dute, eta haurren eskubideen babesa kontuan hartzeak dakarren guztian sakontzen jarraitzea animatzen dute, haurren ahotsa beti aintzat hartuta. Haurren eta nerabeen eskubideen defentsan erakunde ikusgarriagoa, irisgarriagoa, parte-hartzaileagoa eta efizienteagoa lortzea da datozen urteetarako lanaren leitmotiba.



ESKUBIDEAK URRATZEA?

Kexak, kontsultak eta
iniziatiba propioko jarduerak



II.

kapitulua

II. KAPITULUA

ESKUBIDEAK URRATZEA? KEXAK, KONTSULTAK ETA INIZIATIBA PROPIOKO JARDUERAK

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardueraren zati handi bat, ez guztia ordea, kexa- eta kontsulta-espeditenteak izapidetzean datza, hau da, espeditente horiek ikertu, aztertu eta baloratzean. Kexen eta kontsulten espeditenteen azterketari hurbiltzeak nagusiki helburu diagnostikoa du Bulegoaren dokumentu espezifiko honetan. Bere oinarriko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezkarriak hautematea da, eta espeditente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentsore gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditenteak: hurbilketa kuantitatiboa

2023an, haurren eta nerabeen presentzia edo tartean egotea argi eta garbi aipatu duten herritarrek jarritako kexei dagokienez, guztira 802 espeditente izan ziren, hau da, Arartekoan aurkeztutako kasu guztien % 20,58. Nabarmenezkoa da kexen kopuruak nabarmen egin duela gora 2022tik (553; % 45 gehiago). Hori zuzenean lotuta dago dagokion kapituluaz azalduko den hezkuntza-erloto kexen igoerarekin. Nolanahi ere, zenbaketa orokorra egiteko, alde batek eskatuta bideratu diren kexei erakundearen ekimenez irekitakoak gehitu behar zaizkio. Edizio honetan 13 izan ziren.

Alde batek eskatuta bideratutako kexa-espeditenteetan, erakunde honek bi kasuok zenbatzen ditu:

- Nerabeek eta gazteek zuzenean jarritako kexak (aurten sei).
- Haurren edota nerabeen ordezkariak jarritako kexak (796). Oso ehuneko handian, pertsona hori haurraren aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak eta hezitzaileak ere izan daitezke. Erakunde juridikoak (elkarteak, ikastetxeak, plataformak, etab.) jarritako kexak ere zenbatu dira. 2023an 15 izan ziren.

Gaikako esparruen arabera espeditenteen sailkapena (horren azterketa xehatuak txosten honetako 2.2. ataleko muin nagusia osatzen du), ondorengo taulan islatutakoa da:

1. taula.

Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa, gai-esparruaren arabera

Gai-esparrua	Kexa kop.	%
Hezkuntza	443	% 55,2
Ongizate materiala: diru-sarrerak eta etxebizitza	188	% 23,5
Familiak	71	% 8,9
Babeserako gizarte-zerbitzuak	38	% 4,7
Osasuna eta alor soziosanitarioa	17	% 2,1
Jolasa, kirola eta kultura	17	% 2,1
Justizia eta espetxeratuak	11	% 1,4
Beste batzuk (6 alor, 4 baino gutxiago)	17	% 2,1
GUZTIRA	802	100

Iturria: guk egina

Ofizios irekitako espeditenteei dagokienez, espeditente gehienak (10) babesgabe dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuen arloarekin lotuta daude. Horietako lau gizarte-zerbitzuek artatutako hainbat adingaberen egoerari buruz zenbait komunikabidetan jasotako alertaren aurrean hasi ziren. Bosgarren espeditentea Bizkaiko inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrentzako lehen harrerako zentroari buruzkoa zen. Zentro horrek urte hasieran atek berriro ireki zituen, obrak edo egokitzapenak egin ondoren. Seigarrena dagoeneko emantzipatu zen eta lurraldean seniderik ez duen desgaitasun intelektuala duen gazte baten egoerari buruzkoa zen. Zazpigarrena emantzipazioari laguntzeko Trapezistak programako baliabideetako bati buruzkoa zen. Gainerako hirurak urtero izapidetzen dira, Babeserako Erakunde Publikoen tutoretzapeko haurrei eta nerabeei ematen zaien arretaren jarraipen egokia egiteko.

Hamaikagarren espeditenteak Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorrari begira 2022an hasitako jarraipena osatu zuen. Gomendioa Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusu eta -esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideei buruzkoa da; kasu honetan, haur eta nerabeen kontrako sexu-abusuari ematen zaion erantzuna hobetzeko sistema judizialak egindako jarduketak jaso dira.

Beste espeditente bat "Arratia" nerabe arau-hausleentzako gizarte- eta hezkuntza-baliabidera egindako bisitaren inguruko jarduketari buruzkoa da, eta azken espeditenteak guraso presoek beren seme-alabekin dituzten harremanen egoera aztertzen du.

2. Arriskuan dauden eskubideak

2023. urtean, adingabeen arloan Ararteko erakundeak egindako jardunaren ikuspegi kuantitatiboa osatzeko, antzemandako arazoak eta kezak, egindako jarduketak eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzak edo ondorioak azaltzen dira modu kualitatiboan, zenbatutako kexen ehunekoak iradokitako hurrenkeran eta guztiak azaldutako egoeretan arriskuan dauden eskubideen inguruan bilduta.

2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 27. artikulua¹.

1. *Estatu kideek onartzen dute haur guztiak dutela beren garapen fisikoa, mentala, izpirituala, morala eta soziala bultzatuko duen bizi-ta-maila izateko eskubidea.*
2. *Gurasoek edo haurra zaintzen dutenek haurrari bere garapenerako beharrezkoak diren baldintzak eman behar dizkiote, beti ere bere ahalbide eta diru-baliabideen arabera.*
3. *Estatu kideek, estatuko baldintzen eta dituzten baliabideen arabera, gurasoei edo haurraren erantzukizuna dutenei laguntza emango diete eskubide hau bermatu dadin, eta, beharrezkoa izanez gero, laguntza materiala eta laguntza-programak bideratuko dituzte, batez ere elikadura, jantzi eta etxebizitzaren arloan.*

Zaila da prekariotasun ekonomiko edo pobrezia egoeretan bizi diren haur eta nerabeen kopurua zehaztea, eta zaila da, halaber, oinarritzko beharrezkoak estaltzeko zailtasun egoeretan daudela azaltzen duten familien espedienteetako haur eta nerabeen kopurua zehaztea. Espediente askotan, bizikidetzaren unitatean adingabe bat edo gehiago daudela zehazki dakigu, baina ez daukagu datu hori espediente guztietan. Horregatik, aurten ere zenbatespenaren baliabidea erabiliz eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten guztien artean seme-alaba adingabeak dituzten bizikidetzaren unitateen ehunekoak (% 26,65) erakunde honek prestazio ekonomiko horri buruz izapidetutako espedienteetara (440) aplikatuta, ondorioztatu dugu 117 familia (horietan ez da harriztekoa adingabe bat baino gehiago egotea) zailtasun ekonomiko larriko egoeran bizi direla. Kopuru horri etxebizitzaren arloko 71 espediente gehitu behar zaizkio. Horietan, berariaz adierazten da tartean haurrak daudela, bai eta bizi diren etxebizitzetan gabezia handiak daudela ere (etxebizitza beren bizimoduaren baldintza materialen funtsezko zatia da).

¹ II.2 kapituluaren atal bakoitzaren goiburuan aipatutako artikulua Haurren Eskubideei buruzko Konbentziokoak dira (Nazio Batuak, 1989).

2.1.1. Testuinguru arauemailea eta soziala

2023ko martxoan, Haurren Pobreziaren aurkako Goi Komisarioak azterlan berritzaile bat aurkeztu zuen: “[Haurren pobreziaren kostua Espainian](#)”. Bertan, haurren pobreziak gizartean eta ekonomian duen eragina aztertzen da, pobrezia horrek herrialdeari eragiten dizkion kostuak kuantifikatuz.

Azterlanaren abiapuntua zera da: pobrezia-egoeran jaio edo haurtzaroan edo nerabeztarokoan zehar momenturen batean pobrezia-egoeran bizi izan diren haurren garapen egokia ez da bakarrik une horretan mugatzen, baizik eta ondorio negatibo horiek helduarokoan ere eragina dute, beren talentua alferrik galduz eta ondorioak hurrengo belaunaldiei ere transmitituz, aurreko urteetako txostenetan askotan errepikatu den bezala. Helduaroraino heltzen diren eta haurren bizi-ta-maila eragina duten ondorio horiek ez dira indibidualak soilik (oinarritzko trebetasunak eskuratzeko zailtasun handiagoa, ikasketa-maila txikiagoa, enplegu kualifikatuak lortzeko aukera gutxiago, soldata baxuagoak, osasun-egoera okerragoa, ongizate-maila okerragoa eta familia- eta gizarte-harremanen sare ahulagoa); aitzitik, gizarte osoari eragiten diete, eta, gainera, eragin ekonomiko handia dute.

Eragin horren arrazoi nagusiak honako hauek dira: produktibitatea murriztea (etorkizuneko langileen enplegu-potentziala eta diru-sarrerak murrizten baitira), bizi-kalitatea eta osasun-egoera murriztea, eta zerbitzu publikoen kostuan eta eraginkortasunean zama gehigarria izatea.


Azterlanak ematen duen datu zehatzaz gain (63.079 milioi euro urtean, 2019ko BPGaren % 5,1), honako hau da txostenaren ondorio nabarmenena: “haurren pobrezia handiari eustea bidegabea izateaz gain, ez da batere eraginkorra”. Izan ere, epe luzera, pobrezia prebenitzeko edo pobreziari aurre egiteko ekintzek izan dezaketena baino kostu sozial eta ekonomiko handiagoa dakar. Hartzen diren neurriak, beraz, itzulkin handiko *inbertsio* bihurtu daitezke, batez ere lehen haurtzarotik hartzen badira, ongizate indibidualaren maila handiagoak lortuz.

Diru-sarrerak bermatzeko politika publikoak, batez ere haurren ikuspegia barne hartzen badute, desabantailaren zikloa hausten lagunduko duten inbertsio-neurri horietako bat izan daitezke. Euskadin, Eusko Jaurlaritzako [Lan eta Enplegu Sailak](#) diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzen duten bizikidetzaren unitateei buruz emandako datuen arabera, 2023ko abenduaren 31n, 24.823 haur eta nerabe ziren prestazio horren onuradun, Euskadin erroldatutako 19 urtetik beherako ia 400.000² pertsonen % 6,24. Emandako informazioaren arabera, DSBEa jaso zuten bizikidetzaren unitateen % 26,65ek adingabeak zituzten beren kargura; horrek esan nahi du pobrezia gehiago eragiten diela seme-alabak dituzten familiei. Aipatzeko modukoa da, halaber, adingabeak beren kargura dituzten bizikidetzaren unitateen

² Euskadin, 0-19 urte arteko biztanleen pisua % 18,16 zen 2023ko urtarillaren 1ean, 399.011 pertsona. [Eustatek](#) jasoa. Biztanleen udal estatistika.

% 77,1en titularrak emakumeak direla; zifra hori % 57,3ra jaisten da prestazioa jasotzen duten bizikidetzta-unitateen datu orokorrean ari garenean, eta emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familien pisu handia islatzen du.

Zifra horiek, ordea, ez dute estatusun materialeko egoeran dauden haurren eta nerabeen kopuru globala islatzen. Alde batetik, emandako datuetan ez dira kontabilizatu bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen duten eta ardurapeko seme-alaba bakoitzagatik prestazioa jasotzen duten bizikidetzta-unitateak, hain zuzen ere familiako haur kopuruagatik DSBEaren zenbatekoa gainditzen dutenak eta, beraz, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera bai, baina DSBEa jasotzen ez dutenak. Egoera hori aurreko estatistikan jasota egongo litzateke. Lanbidek bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) kudeatzeko ekitaldi oso bat egin du, eta prozesu eta prozedura berriak abian jartzean ohikoak diren atzerapen asko xurgatu ditu; beraz, litekeena da informazio hori laster eskuragarri egotea. Bestalde, haur horiek zenbatuta ere, azterlanek adierazten dute diru-sarrerak bermatzeko sistemak kanpoan uzten duela benetan pobrezia-egoeran dauden familien zati bat (oraindik heren bat?).



Etxebizitzari dagokionez, gaur egun, ez dago zalantzan jartzerik etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea, berezko izaera juridikoa duen giza eskubidea osatzeaz gain, beste eskubide batzuk eraginkortasunez baliatzeko berme gisa ere ezarri dela, hala nola hezkuntza eta etengabeko prestakuntza izatea, enplegua lortzea, osasun-zerbitzuaz gozatzea, gizartean eta politikan parte hartzeko modua izatea eta botoa emateko eskubideaz baliatzea, prestazio eta zerbitzu publikoak eskuratzea, seme-alabak eskolaratzea eta haien bizi-garapenean laguntzea, kulturaz gozatzea eta gizarte-ingurune nahiz ingurumen egokia izatea, bizipenak senideekin eta lagunekin partekatzea, eta doktrinarik finkoenak nahiz justizia-auzitegiek eurek behin eta berriz adierazi dituzten beste eskubide garrantzitsu batzuk baliatzea.

Testuinguru horretan, Arartekoak kezka egiazta du, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako eta joan den abenduan argitaratutako azken [txostenaren](#) arabera, herritarrek etxebizitza eskuratzea dela Euskal Autonomia Erkidegoko hirugarren arazo garrantzitsua, soil-soilik lan-merkatuari eta osasunari lotutako arazoan atzetik.

2023an, babes publikoko etxebizitza bat erabiltzearen orde ezarritako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa 300 €-koa zen. Kopuru hori ez zen nahikoa merkatu libreko alokairu-gastuei aurre egiteko; izan ere, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2023ko abenduaren 21ean argitaratutako [2023ko bigarren hiruhilekoko Alokairu Merkatuaren Estatistikaren](#) emaitzen txostenaren arabera, 2023ko ekainaren 30ean, EAEko batez besteko alokairu-prezioa 727,4 €-koa zen hilean. Alokairua hiriburuetan garestitu da gehien: Donostia (962,9 €), sailkapeneko lehenengoa, eta, neurri txikiagoan, Bilbo (801,6 €). Gasteiz EAEko beste bi hiriburu azpitik dago (685,4 €); nolana ere, hiriburuko zenbatekoa Arabako batez bestekoa baino handiago da.

Legeen eta politika publikoen testuinguruari dagokionez, lehenik eta behin, [Europako Parlamentuaren 2023ko azaroaren 21eko Ebazpena](#) aipatu behar da, desberdintasunak murrizteari eta krisi-garaian haurren eta haien familien aldeko gizarte-inklusioa sustatzeari buruzkoa. Ebazpen horretan gogoeta interesgarriak egiten dira, hala nola: “haurrak jaiotzen diren inguruneen eta haien bizi-espazioen kalitateak eragin erabakigarria du haien bizi-kalitatean, osasuntsu hazteko aukera-berdintasunean, beren garapen orokorrean eta haien potentziala gauzatzean (...)” edo “haurren pobrezia etxeko pobrezian jatorria duen fenomeno dimentsioaniztuna da (...)”. Gogoeta horiek egin ondoren, Batzordeari eta estatu kideei eskatzen zaie “haurren bizitzan eragin zuzena eta zeharkakoa duten politiketan inbertsio publiko jasangarri eta egokia bermatzeko eta inbertsioak nabarmen handitzeko, kalitate handiko zerbitzu publiko unibertsal, inklusibo eta eskuragarriak bermatzeko (...)”, eta animatzen ditu “Europako Haurren Bermea ahalik eta gehien erabiltzera, pobrezia eta gizarte-bazterketa pairatzen duten haur eta familien gizarteratzea erraztuko duen erantzun sozial gisa (...)”. Atal honetan zuzenean jorratu ditugun gaiak dagokionez, Europako Parlamentuak “Batzordeari eta estatu kideei eskatzen die handitu dezatela langabezia dauden edo laneko pobrezian harrapatuta dauden gurasoei zuzendutako gizarte-laguntza, batez ere gutxieneko errenta bermatu baten bidez (...)” eta “haurren eta haien familien premiak aseko dituen etxebizitza duin, arazoizko, energetikoki eraginkor eta kalitatezkoa izateko eskubidea nabarmen du, haien ongizatea, pribatutasuna eta bizi-kalitatea bermatzeko (...)”.

Haur eta Nerabeentzako Bulego honen 2022ko txostenean aipatzen zen Ministroen Kontseiluak urte horretan onartu zuela [Europako Haurren Bermea ezartzeko Espainiako Ekintza Plana](#). Autonomia-erkidegoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak Haur Bermearen Euskal Estrategia (2023-2030) egiteko lan teknikoak hasi zituen. Arartekoak prozesuan eta eragile sozial eta instituzionalei irekitako zatian parte hartu zuen. 2023an, ordea, ez zen aurrerapen esanguratsurik egin Estrategia onartzeko bidean.

Diru-sarrerak bermatzeari dagokionez, eta autonomia-erkidegoko araudiari begira, 2022aren amaieran [Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea](#) onartu ondorengo jomuga garrantzitsua Diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua onartzen duen [azaroaren 21eko 173/2023](#)

Dekretua onestea izan zen. Beraz, arazuko esparru berriak aldaketa garrantzitsua ekarriko du DSBEaren kudeaketan eta, horregatik, etengabeko eta kalitatezko informazioa eman beharko zaie DSBEaren eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren (BGDS) titularrei, araudian eta kudeaketan izandako aldaketek eragindako disfuntzioak saihesteko.

Etxebizitzari dagokionez, estatu-mailan 2023an **Etxebizitzarako eskubidearen maiatzaren 24ko 12/2023 Legea** onartu zen. Etxegabetasunaren kontzeptua legez finkatzea, edukitzaile handiak definitzea eta bizitegi-merkatuko tentsio eremuak izendatzea izan dira, besteak beste, jaso diren berrikuntzetako batzuk; botere publikoek behar bezala aztertu eta horietan esku hartu beharko dute laster.

Hala eta guztiz ere, gauza jakina da lege horren **aurkako errekurtsioa aurkeztu zela Konstituzio Auzitegian**, eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Gobernu Kontseiluak erabaki zuela, **2023ko uztailaren 26an egindako bilkuran**, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa jartzea zenbait aginduren aurka. Hala ere, sortutako desadostasunak konpontzeko, **Aldebiko Lankidetzaren Batzordea eratzea** erabaki zen.

Hala eta guztiz ere, Arartekoak egiaztatu zuen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak **azterlana** prestatzeari ekin ziola Estatuko araudian xedatutako neurrietako batzuk txertatzeko. Izan ere, 2/2023 barne-jarraibidea onartu zuen, Prozedura Zibilaren urtarillaren 7ko 1/2000 Legearen 439.6 eta 7, 655 bis eta 685 artikuluetan jasotako prozedurei dagokienez, ohiko etxebizitzaren kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonak edo familia-unitateak kaleratzea ekar dezakeen demanda judiziala jarri aurreko adiskidetze- edo bitartekaritza-izapideari buruzkoa, betiere errentatzaileak etxebizitzaren ukandun handia bada.

Era berean, abenduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak datu eguneratuak jasotzen zituen **txostena** eman zuen argitara, tentsio eremuak mugatzeko, eta **protokoloa** ezarri zuen, etxebizitzari buruzko estatuko legearen 18. artikuluan xedatutakoa betetzeko; protokolo horrek bizitegi-merkatuko tentsio eremuak izendatzea arautzen du.

2023an, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean jarri zenetik zortzi urte baino gehiago igaro ondoren eta erakunde honek behin eta berriz errepikatu ondoren, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren araubide juridikoa eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa arautu ziren, **etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretua** onartzearen bidez.

Dekretua onartzeak etxebizitzaren arloan aplikatzekoa den araudiaren zenbait artikulua aldatzea eta kentzea ekarri zuela egia bada ere, eskubide subjektiboari buruzko erregulazioaren funtsezko edukia ez da indarrean hasiko 2024ko apirilaren 2ra arte. Gai zehatz honetan, Arartekoak nabarmendu nahi du garrantzitsua dela interesdunei inguruabar berri horrek ekarriko dituen aldaketan berri behar bezala ematea eta izapidetean beharrezko aholkularitza eta laguntza ematea.

2.1.2. Arartekoaren jardunbidea herritarren eskarien aurrean

a. Diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin zerikusia duten kexak

Gizarteratzeari buruzko txosten orokorraren II.4 kapituluan, xehetasunez azaltzen dira Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoekin lotuta dauden eta herritarrek Arartekoaren iritzia erabiltzeko erabiltzen dituen gaiak. Aurreko atalean adierazi moduan, bizikidetzaren unitate horietako askotan haur eta nerabeak daude, eta delako administrazioaren jarduketaren ondorioak pairatzen dituzte, baita Arartekoaren ekintzak eragindako aldaketan ere. Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txosten honetan, baina, bizikidetzaren unitateetan haurrak egoteari lotuta dauden jarduketak edo haurrak egoteak eragindako jarduketak eta planteatutako arazoien berritasunagatik jarduketak bakarrik nabarmenduko ditugu; beraz, irakurri txosten orokorraren dagokion kapitulua, jarduketa ez hain espezifikoen berri edukitzeko.

2023an kexak jaso zituzten gai **berriek** zerikusia izan zuten **Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (BGDS) arteko harremanarekin**, zeinaren kudeaketa Lanbidek **hartu** baitzuen bere gain 2022an. Orain arte arazoa ekarri duen BGDS prestazioa ebazteko atzerapenez gain (dena dela, horri aurre egiteko baliabideak jartzen ari direla jakinarazi dute), gai horren inguruan jasotako kexek arazo desberdinak mahairatu zituzten.

Lehenengoak BGDSa baliogabetzeari buruzkoa zen, bai eta kalteberatasun ekonomikoaren baldintza ez betetzeagatik bidegabe kobratutako prestazioen ziozko zorra sortzeaz ere. Lanbidek BGDS prestazioa indargabetu zitzaizen bizikidetzaren unitateen diru-sarrerak bermatzeko errentari (DSBE) lotutako espedienteak berrikusi zituen, eta atzerapenak ordaintzea erabaki zuen, baldin eta eragindako aldi hartzaileak DSBEaren onuradun izateko baldintzak betetzen bazituen, **Arartekoaren 2023ko abenduaren 14ko Ebazpenean** azaldu zen bezala, hiru seme-alabako bizikidetzaren unitatearen kasuan.



2023an amaitu zen ([Arartekoaren 2023ko abenduaren 28ko Ebazpena](#)) 2022ko txostenean aipatu genuen arazoaren gaineko esku-hartzea, Lanbidek Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari (GSIN) espedienterik ez bidaltzeari buruzkoa, Lanbideren SMS bat jaso ondoren, beren datuak GSINri lagatzeko baimena eman zioten DSBEaren onuradunek bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskaera izapidetze aldera.

Beste kexa-multzo bat atzera egiteko adierazpenei buruzkoa zen, eskabidea ezesten baitzen dokumentu jakin bat ez aurkezteagatik: BGDSaren eskabidea aurkeztu aurreko urteko erroldatze-agiri kolektibo historikoa. Elkarreragingarritasunean aurrera egin ahala, aukera egongo da eskakizun horrek arazorik sorraraz ez dezan pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan direnean, baina oztopo larria izaten jarraitzen du eskatzailea aldi horretan EAEn bizi izan ez denean, Lanbidek ezin dituelako Estatistikako Institutu Nazionalaren datuak eskuratu.

Antzemandako azken arazoak zerikusia dauka etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jasotzeko eskubidea galtzeak sorrarazten dituen ondorioekin, BGDS aitortzen denean eta DSBEaren onuradun izateari uzten zaionean. Horren ondorioz, hartzaileak EPO prestazioaren zenbatekoa itzuli beharko du, eta horrek egoera okerragoa eragingo dio onuradunari, aurreko bi prestazioen (DSBE eta EPO) zenbatekoak BGDSaren zenbatekoa gainditzen duelako.

Aurreko urteetako txostenetan jada aipatu genituelako ezagunak diren gaiei dagokienez, nabarmentzekoak dira [Arartekoaren 2023ko maiatzaren 26ko Ebazpena](#) eta [Arartekoaren 2023ko maiatzaren 26ko Ebazpena](#). Bi ebazpenak lotuta daude, haur bat baino gehiago zeuden familia bera ardatz dutelako. Lehenengoan, familiari DSBEa azkentzea aztertzen zen, eta bigarrenean, berriz, hilabete batzuetako semearekin batera familiarekin bizi izan alaba bati DSBEa ukatzea. Kasu honetan (seme bat duen guraso bakarreko familia), Lanbidek DSBEa ukatzeko eman zuen arrazoa zera izan zen: jatorrizko bizikidetzaren unitatea azkendu zela, horretarako arrazoiak azaldu gabe, eskatu ahalako ahala baliatzeari erantzun arren, eta, beraz, azkentzerik egitea ez zen derrigorrezkoa.

Aipatutako espediente horri dagokionez, Arartekoak behin eta berriz adierazi zuen apirilaren 8ko [2/2015 Gomendio orokorra](#) bete behar zela, adingabearen interes gorena politika publikoetan eta, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman, aintzat hartzeari buruzkoa. Ararteko erakundeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari berriz gogorarazi zion haurren bizikidetzaren unitateari diru-sarrerak kenduko lizkiokeen administrazio-erabaki batek neska-mutil horien bizitzan izan ditzakeen ondorioak kontuan hartzeko eta behar bezala neurtzeko betebeharra duela, baina Lanbidek ez du balorazio hori txertatu informazio-eskabideetan bidalitako txostenetan edo igorritako gomendioetan.

Era berean, Arartekoak aurrez aipatu du kezka sortzen diola aurrez aurreko eta telefono bidezko arretaren ordez bide telematikoa erabiltzen hasi izanak; izan ere, horrek, pertsona batzuen kasuan, administrazio publikoekiko

komunikazioa zaildu dezake, baita eragotzi ere. Arartekoak errepikatu nahi du gailu elektronikoak (adibidez, telefono mugikorra) edukitzeak ez duela esan nahi herritarrek administrazio-izapide eraginkorrak egiteko gaitasunik duenik, eta, beraz, horri begira egin nahi diren aldaketak herritarrei informazio eta laguntza egokia emanaz egin behar dira.

Herritarren kexei buruzko atal honi amaiera emateko, aipatu behar da 2023an kexa-espediente asko ebatzi zirela izapidetzen ari ziren bitartean. Horien artean, azkentze-ebazpenak atzera botatzea nabarmen da, uste baitzen ez zela betetzen eduki ekonomikoko eskubide bat baliatzeko betebeharra, benetako arrazoiak doako laguntza juridikoa ukatzea izan zen kasuetan, edo ukatzeko ebazpena judiziala irmoa ez zelako, edo adostutako gurasoaren eta seme-alaben arteko neurriak jasotzen zituen epaia aurkeztu ezin izan zelako, prozedura bide judizialean zegoelako, amaitzeko.

b. Etxebizitzari buruzko demandak

Aurreko ekitaldiekin alderatuta, ez da berritasun handirik ikusi 2023an herritarrek Arartekoari helarazi zizkieten eta haurrei eta nerabeei eragiten zieten gaiei dagokienez. Hala, babes publikoko etxebizitza bat edo zuzkidura-bizitoki bat eskuratzea izan ziren kexa gehien sorrarazi zituzten auziak. Gainera, etxebizitza edo zuzkidura-bizitoki baten esleipendunek kexak bidaltzen jarraitu zuten; kexa horietan, beste etxebizitza edo bizitoki batera lekualdatzeko eskatzen zuten, gehiegizko okupazioa zutela eta, erabiltzaileek eskubidea behar bezala bermaturik ez zutela egiaztatzean.

Esandakoari lotuta, Arartekoak egiaztatu zuen etxebizitza duin eta egoki bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko kexen kopuruak nabarmen gora egin zuela, bai eta etxebizitzaren arloko laguntza ekonomikoari (adibidez, etxebizitzarako prestazio osagarriari eta gazteei alokairua ordaintzen laguntzeko Gaztelagun programan sartutako laguntzei) buruzko kexak ere.

Alokairu-araubidean babes publikoko *etxebizitza bat eskuratzeari* dagokionez, txosten honek familia babeslea izateko eskubidearen atalean (2.2.4 atala) jasotzen du “habia-etxearen” sisteman zaintza partekatua duten guraso bananduen berriazko arazoa. Horrekin batera, berriz ere nabarmentzekoak dira ohiko bizilekua galdu ondoren egoitza-larrialdiko egoeran dauden pertsonak dituzten zailtasunak. 2023an, Arartekoak aukera izan zuen udalek etxebizitza esleitzeko proposamen bat aurkeztuko aparteko prozedura aztertzeko (gizarte-zerbitzuek bizikidetzaren unitatearen egoera bereziki kaltebera dela balioesten badute), bai eta berme nahikorik ez izatea ere, [Arartekoaren 2023ko abuztuaren 16ko Ebazpenean](#). Ebazpen hori adingabeak eta mendetasun larriko semea dituen bizikidetzaren unitate baten egoerari buruzkoa da. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak gomendio hori onartu ez bazuen ere, aldeko erantzuna eman zion [Arartekoaren 2023ko apirilaren 4ko Ebazpenean](#) azaldutako hiru seme-alaba dituen emakume baten egoerari.

Aurten ere aipatu behar ditugu babes publikoko etxebizitzaren edo kidekoen errentarietako zuzkidura-bizitokietan bizi

direnek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea ez asetzeari buruzko kexak, higiezinak ez duelako behar adinako lekurik edo logela-kopururik, bizilagunen nortasuna behar bezala gara dadin (*gainokupazioa*). 2023an, Arartekoak berriz aztertu zuen gai hori [Arartekoaren 2023ko urriaren 10eko Ebazpenean](#) (3 seme-alaba dituen familia), [Arartekoaren 2023ko urriaren 16ko Ebazpenean](#) (bi seme-alaba dituen familia; horietako bat desgaitasuna du) eta [Arartekoaren 2023ko urriaren 31ko Ebazpenean](#) (3 seme-alaba dituen guraso bakarreko familia).

Azkenik, administrazioaren funtzionamenduari eta *prozedura administratiboarekin* lotutako kexa-multzoaren berri eman behar da. Gazteei etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko dirulaguntzen, hots, Gaztelagun dirulaguntzen jakinarazpenekin, izapidetze elektronikorekin edo, batez ere, atzerapenekin lotutako gaiak ([Arartekoaren 2023ko abuztuaren 8ko Ebazpena](#) eta [Arartekoaren 2023ko abenduaren 28ko Ebazpena](#)).

Hain zuzen ere, *Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin* (EGK) izandako bileran aztertu ziren gazteek etxebizitza bat eskuratzeko zituzten zailtasunak eta, bereziki, zenbait gaztek (edo ezaugarri antzekoak dituzten gazte-taldeek) etxebizitza bat eskuratzeko orduan zituzten oztopo gehigarriak (izan etxebizitza publikoak zein merkatu pribatukoak). Kontseilua ordura arte ikusitakoa partekatzeko, Arartekoa arlo edo arazo horren aurrean zer egiten ari zen jakiteko eta balizko aliantzak baloratzeko bertaratu zen.

2.2. Hezkuntzarako eskubidea

28. artikulua

1. *Estatu kideek haurrak hezkuntzarako duen eskubidea onartzen dute (...).*

29. artikulua

1. *Estatu kideak haurraren hezkuntza honetarako bideratu behar delakoan daude:*
 - a) *Haurraren nortasuna, gaitasunak eta ahalmen fisiko eta mentala ahal den guztia garatzeko;*
 - b) *Giza eskubideei eta oinarritzko askatasunei eta Nazio Batuetako Agirian azaltzen diren printzipioei buruzko errespetua irakasteko haurrari;*
 - c) *Bere gurasoenganako, kultura-nortasunaren ganako, hizkuntza eta baloreenganako, bizi den estatuko baloreenganako, jatorrizkoa duen estatuko baloreenganako eta bere zibilizazioa ez diren zibilizazioenganako errespetua irakasteko haurrari;*
 - d) *Haurra, gizarte aske batean, elkar ulertzeko izpirituarekin, bakearekin, tolerantziarekin,*

sexuen berdintasunarekin, eta herri, talde etniko, nazional, erlijioso eta indigena-jatorria duten guztiekin adiskidetasunez eta zentzuz bizitzen prestatzeko;

- e) *Haurrari ingurugiro naturalarekiko errespetua irakasteko.*

2.2.1. Testuinguru arauemailea eta soziala

2023ko arau-testuinguruari dagokionez, mugarririk garrantzitsuena izan zen Eusko Legebiltzarrak 2023ko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko [abenduaren 21eko 17/2023 Legea](#) onartzea. Dakigun moduan, legearen onespeneak ez zuen izan [Euskal Hezkuntza Eraldatzeko Oinarrien Akordioak](#) bere garaian izan zuen babes hura, gehienek babesa jaso baitzuen hark. Edonola ere, Arartekoak sinetsi egin nahi du lege horren onspena etorkizuneko garapenen aurrekaria izango dela eta berriro ere ahalik eta akordio gehien lortzeko abiapuntua izango dela.

Lege hori izapidetzen ari zela, Eusko Legebiltzarraren Hezkuntza Batzordearen aurrean [agertzer](#)a deitu zuten Arartekoa. 2023ko maiatzaren 31n azaldu zen han, eta una baliatu zuen legebiltzarkideei adierazteko proiektuaren zer edukik eragin dituen kexa gehien herritarren artean.


2022ko txostenean adierazi genuen bezala, hezkuntza-eragileek alegazio ugari aurkeztu zituzten hezkuntzari buruzko lege-aurreproiektuari dagokionez, eta horrek lege-proiektua onartzea atzeratu egin zuen (2023ko apirilaren 25a). Ondorioz, Eusko Legebiltzarrari igorri behar izan zitzaion. Horren ondorioz, legea onartu gabe egon arren, Euskal Hezkuntza Eraldatzeko Oinarrien Akordioan **ekitateari eta segregazioaren kontrako borrokari** buruzko atalean sartu ziren neurriak lehen aldiz praktikan jarri ziren; are, arauzko hainbat xedapenetan jasota geratu ziren. Hala nola, hauetan: (1) [132/2022 Dekretua, azaroaren 2koa, urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretua](#) aldatzen duena. 1/2018 Dekretuaren bidez, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen da; (2) [30/2023 Dekretua, otsailaren 28koa](#), zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen Dekretua; (3) [Agindua, 2022ko abenduaren 27koa](#), Hezkuntzako sailburuarena, ikasleak eskolatzeko-prozesu arruntetik kanpo eskolatzeko oinarri arautzaileak ezartzen dituena.

Uste izatekoa denez, eta hurrengo atalean azalduko dugunari aurrea hartuz, neurri horien ezarpenak (bereziki, tokiak gordetzeko neurriarenak) ez dio iskin egin polemikari, eta horren erakusgarri ona da 2023-2024ko ikasturterako ikasleak onartzeko ohiko prozesuaren harira eta prozesu horren ondoren epez kanpo eskolatutako ikasleen harira jarri diren kexa ugariak.

Lege hori onesteaz gainera, 2023an berriak egon dira EAEko beste arau batzuen arloan ere; hala nola, eskola-garraioaren antolamendu berriari buruzkoan ([urriaren 31ko 164/2023](#)

Dekretua) eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-zentro publikoetako zuzendaritza-funtzioari buruzkoan (**otsailaren 28ko 29/2023 Dekretua**), bai eta askotariko hezkuntza-etapetako curriculumaren argitalpenean ere (2022ko txostenean, argitalpena atzeratu zela nabarmendu genuen).

Estatu-mailan, aipatzekoa da Lanbide Heziketako Sistemari begira araudiak onartu direla (**apirilaren 11ko 278/2023 Errege Dekretua** eta **uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretua**).



2.2.2. Kexatzeko arrazoiak

Dokumentu honen 2.1 atalean argi geratu denez, euskal hezkuntza-sistemarekin lotutako kexek nabarmen egin zuten gora 2023an. Hala, aurreko ekitaldian jarritako bikoitza izan ziren (463, 2022an, 220). Ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duen azaroaren 2ko 132/2022 Dekretuan jasotako berariazko hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleak eskolatzeko plazak erreserbatzeak, ikasle kalteberak hobeto banatzeko, kexa ugari eragin zituen. Kexen gorakada handi horren arrazoiak modu ordenatuagoan azaltzeko, epigrafe espezifikoetan banatu ditugu.

a. Ikasleen onarpena

Aurreko puntuan aurreratu bezala, 2023an jarri ziren praktikan, lehen aldiz, ikasleen artean **ekitate** bultzatzeko eta **segregazioaren** aurka borrokatzeko asmoz onetsitako neurriak. Horren ondorioz, espero izatekoa zenez, asko areagotu ziren 2023-2024ko ikasturterako ikasleak onartzeko ohiko prozesuari buruzko kexak. Baina ez hori bakarrik: hezkuntza-administrazioak gainezka egin zuen, modu esponenzialean egin zutelako gora lehenetsi gabeko zentroak esleitu zizkieten administrazio-erabakiekin ados ez zeuden familiek jarritako gora jotzeko errekurtsioek.

Horri buruz, adieraz dezakegu hezkuntza-administrazioak ez zuela bete-betean aurreikusi errekurtsio horiek guztiak izapidetzeak zer inplikazio ekarri zituen ikasleak epe barruan eskolatzeko orduan. Hain zuzen ere, administrazio publikoek errekurtsio mota horiek berariaz ebazteko duten hiru hilabeteko epea izugarri gaitzuta idatzi ziren

errekurtsio horien ebazpenak (maiatzean jarri zituzten, eta, adibidez, azaroan ebazti, ikasturtea oso hasita zegoela). Igarotako denbora horiek, zalantzarik gabe, ez zuten balio izan familia kexagileek ikasturtearen hasiera zela-eta zituzten ziurgabetasunak argitzeko, zeinek uste baitzuten zentzuzko epean jasoko zituztela beren nahiei buruzko irizpen administrazioak.

Errekurtsioak jarri eta ebaztearen eta jardura akademikoa hastearren arteko lotura ez zaio oharkabean pasa hezkuntza-administrazioari, eta horren adierazgarria da egutegiari eta prozeduraren jarraibideei buruz urtero idazten diren arauetan aurreikuspen bat sartu izana, zeinaren arabera Hezkuntzako ordezkariak, gora jotzeko errekurtsioak ebazteko agintari eskudunak diren heinean, ikasleak egoki eskolatzeko bermatzeko epean eman behar baitituzte ebazpenak. Beraz, ez dirudi neurritz gainezka denik baieztatzea aurrez aurre dugun egoerak hobetzeko tartea duela eta, halaber, erabaki egokiak hartzea bideratuko duen hausnarketa bat egin beharko litzatekeela, interesdunen nahi legitimoei ondo erantzunez kudeatu ahal izan daitezen etorkizuneko prozedurak.

Ikasleak onartzeko ohiko epetik kanpo eskolatzeari buruzko kexek ere gora egin zuten. Horri buruz, adierazi beharra dugu Arartekoaren jarduketari esker hezkuntza-administrazioak eskolatzeko proposamen batzuk birpentsatu zituela, aurretik ez baitzen kontuan hartu zer hizkuntza-eredu eskatu zuten familiek. Halaber, hezkuntza-administrazioak ikasleentzako *mesederako* ziren ikastetxe-aldaketa batzuk baimentzea lortu genuen, baita anai-arrebak berriz elkartzea ere.

Edonola ere, ohartarazi egin behar dugu kexa horiek jaso izanaren ondorioz Arartekoak pedagogia moduko bat egin behar izan zuela neurririk garrantzitsuenetako baten irismenari eta ondorioei dagokienez; hain zuzen ere, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dauzkaten ikasleei **zaugarritasun-indizeen** arabera **tokiak gordetze** ari gara. Hala ere, garrantzitsua da esatea Arartekoari ez zitzaizela iruditu kexetan erreserba-neurria bera zalantzan jarri zenik. Egiatzki, familiak ez ziren konforme agertu erreserba-neurriak ondorio kaltegarriak izan zituelako haien zentzuan, aurretik egindako hautuak kontuan hartu ez zirelako. Are gehiago, erakunde honentzat oso esanguratsua den kasu batean, Ordiziakoan, Arartekora hainbat aldiz jo zuten interesdunek argi utzi zuten neurria ez zela eraginkorra izan haien ustez, ikasleak modu orekatuagoan banatzea baldin bazen benetako helburua. Jakina denez, lehenengo aldi honetan, % 10etik beherako urkila batean mugitu zen zentro bakoitzaren zaugarritasun-indizea zentro bakoitzari dagokion eremuko indizearekin parekatzeko saiakera, eta, azken batean, indize horrek zehazten du tokien erreserbaren irismena.

Neurri berri horien harira, berriro ere aipatu behar ditugu erakunde honek 2022ko txostenean jada aipatu zituen gogoetak, *plangintza*-estrategia egoki bat behar zela esaten baitzuten, itunpeko sarean gehiegizko eskaintza sor ez zedin.

Hain zuzen ere, Arartekoak 2023an egin zituen jarduketetako batek azken horrekin zeukan zerikusia. Hala, programatutako eskaintza aztertu zuen Arartekoak, EUSTATen jaiotzei buruzko

datuen arabera benetako eskolatze-premien % 65 baino gehiago irakaskuntza itunduak eskaintzen zuen udalerrietan.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako informazioa aintzat hartuta egindako azterlanean ondorioztatu genuenez, salatu zen gaineskaintza, egiazki, familien eskariaren isla baino ez zen. Hori dela eta, erakunde honek honako hau ekarri nahi izan zuen gogora berriro: nahiz eta ikastetxea aske hautatzeko eskubidea dagoen, hezkuntza-administrazioak ez du ezinbestez ase behar familiek hautatutakoa. Ikastetxea aske hautatzeko eskubidea hezkuntza-plangintzaren edo -programazioaren printzipio konfiguratuak bat da, baina, aldi berean, plangintzak aintzat izan behar ditu beste helburu batzuk; hala nola, ikastetxeen gizarte-konposizioan oreka handiagoa sustatzekoa. Aurrekoaren harira, neurri lagungarria da ikasleak modu inklusibo eta orekatuan eskolatzea. Horregatik azpimarratu nahi dugu Hezkuntza Sailak neurtu egin behar duela familien nahiak izan beharreko oihartzuna, nahi horrek, bere kabuz, desorekak sor ditzakeelako ikasleen eskolatzean eta desoreka horrek arriskuan jar dezakeelako ikastetxeen eraketan oreka eta eskola-sisteman kohesio handiagoa sustatzeko helburua.

Ikasleen onarpenari buruzko atal honekin amaitzeko, txosten orokorraren II.2.3 kapituluaren zabalago garatutako kasua aipatu behar da. Bertan, ikastetxea onartzeko eta esleitzeko prozesuan “kontziliazio” irizpidea interpretatzeko argudioak ematen dira.

b. Eskola-garraioa

Atal honi hasiera emateko, nahitaez aipatu behar dugu garraio-zerbitzua ematen duten enpresa batzuekin izandako desadostasunak direla-eta eskola-garraioko zerbitzuaren inguruan sortu den gatazka. Enpresa horiek, gatazkaren unerik gorienean, ez zioten jaramonik egin Hezkuntzako sailburuak zerbitzuak jarraitzea ziurtatzeko emandako aginduari (2023ko irailaren 1eko Agindua, irailaren 5eko EHAA, 169. zk.), eta, beraz, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko arduradunek egoeraren berri eman zieten Lehiaren Euskal Agintaritzari eta Fiskaltzari.

Zorionez, desadostasunak bideratu zituzten, eman gabe geratutako ibilbideen beste lizitazio-prozesu bat egin eta zuzenketa-neurri posibleak txertatzeko konpromisoarekin. Bestalde, garraiorako eskubidea izan arren zerbitzurik jaso ez zuten ikasleentzako banakako esleipenak iragarri zituen Sailak, ohiz kanpo (2023ko irailaren 20ko Agindua).

Hori esanda, Arartekoaren jarduna xehetasun handiagoz jaso zen eskola-garraioari buruzko kexa batean. Kexa hori interesgarria da, nerabe askorengan egun eta etorkizunean izango duen eraginagatik.

Landa-ingurune batean bizi den familia batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Batxilergoa ikasten ari diren eta hezkuntza-ibilbideetan eskaintzen diren zentroetara joan-etorri luzeak egin behar izaten dituzten ikasle batzuen egoeraren berri emateko, ez daukatelako zentro horietara joateko garraio- edo laguntza-zerbitzu publikorik. Kexan, nabari zen hezkuntza-

administrazioak bazuela egoeraren berri, ikastetxera garraio pribatuan eta, beraz, diru dezente ordainduta joan behar izaten duten familia kaltetuek laguntzaren bat edo dirulaguntzaren bat eskatu izan diotelako aurretik.

Jarduketarekin hasitakoan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko arduradunek onartu egin zuten bazutela arazoaren berri. Halaber, arauak aldatzeko konpromisoa hartu zuten, eskola-garraioari buruzko araudiaren eremuan sar daitezten Batxilergoko ikasleak ere.

Iragarritako konpromisoa, azkenik, urriaren 31ko 164/2023 Dekretua onartzearekin batera gauzatu zen (dekretu hori Hezkuntzaren arloari buruzko atal honen arau-testuinguruari buruzko azpiatalean aipatu da). Dekretuaren azalpen-zatian, Hezkuntzari buruzko [maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa](#) aipatzen da, 82. artikuluan xedatzen baitu administrazioek bidea jarri behar dutela landa-eremuetan bizi diren ikasleak hezkuntza-sisteman gera daitezen, oinarritzko irakaskuntzatik harago, eta landa-eremuetako ikasleak derrigorrezkoak ez diren ikasketetan gehiago eskolatu daitezen sustatu behar dutela. Hala, dekretu horrek lehen aldiz hedatu du erregulazioa Batxilergoa eta erdi-mailako prestakuntza-zikloak ikasten ari diren ikasleengana, garraio publikoaren eskaintza urria izateagatik etxetik eskolarako joan-etorriak bereziki zailak dituzten eremuetan bizi diren kasuetarako. Kasu horietan, beraz, baldin eta antolatutako zerbitzuetan toki hutsak badaude, eskola-garraioa behin-behinean erabiltzea baimendu ahalko da; bestela, garraio-gastuak ordainduko dira, xede horretarako ezarritako beste betekizun batzuk betez gero.

c. Eskola-jantokia

Eskola-jantokiko zerbitzuari dagokionez, enpresa esleipendun batzuek zerbitzu kaskarra emateagatik hezkuntza-zentro jakin batzuetako jantokietan urteko azken hilabeteetan sortu ziren gertakariak ere nabarmendu behar ditugu.

Errealitate horren aurrean, Arartekoa jarraipena egiten ari zaie Hezkuntza Saila abiatzen ari den egitasmoari, kontratazio publikoari buruzko gaur egungo erregulazioak eskaintzen dituen aukerak kontuan hartuta. Txosten hau amaitzean eskuragarri izan dugun informazioaren arabera, Sailak bi espediente zehatzaile izapidetu ditu jada, eta ez du baztertzeko indarreko kontraturen bat deuseztatzea.

Nolanahi ere, garrantzitsua da adieraztea gertakariak berriro piztu zutela eskola-jantokiaren beste eredu posible batzuei buruzko eztabaida (adibidez, EHIGE – Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioak sustatzen duena, proiektu jakin batzuetan edo esperientzia pilotu batzuetan oinarrituta), nahiz eta Sailak aurrekontu-ahalegin handiagoa egingo zuela hitzeman zuen, zerbitzua hobetze aldera.

d. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

Atal honetan bereziki aipatzekoa da semea *curriculum anitzasuneko ikasgela* batean eskolatu nahi zuen ama batek eskatuta izapidetutako kexa: irakasle-taldeak, zentroko

orientazio-zerbitzuak eta berritzeguneko hezkuntza-premien aholkulariak uste zuten hobe zela ikasleak bere hezkuntza-ibilbidearekin jarraitzea eta oinarrizko lanbide-prestakuntzako ziklo bat egitea. Arartekoak proposamen hori babestu zuen, inolako dudarik gabe.

Gainerakoan, hamar kexa baino gehiago jaso ziren. Kexa horietan, *beharrezko baliabideak* (giza baliabideak zein baliabide materialak) ez emateari edo berandu emateari buruzko gaiak planteatu ziren. Urtean amaitu ziren guztiak izapidetzean ebatzi ziren, edo hezkuntza-administrazioaren jarduna ez zen okertzat jo.

e. Eskola-bizikidetzak

Eusko Legebiltzarraren Hezkuntza Batzordean egindako agerraldian bezalaxe, erakunde honek ezin du galdu txosten honek ematen duen aukera adierazteko kezkatuta dagoela eskolako bizikidetzari buruzko kexak errepikatzen direlako. Horrenbestez, Arartekoak azpimarratu egin nahi du indarkeria-egoerei erantzun azkar, hurbil eta eraginkorra emango dien prebentzio-ikuspegia taxutu behar dela.

Hain zuzen ere, ikastetxeak indarkeriarik gabeko gune seguru gisa taxutzearekin duen loturagatik, atal honetan Terrorismoaren Biktimen Kolektiboak (COVITE) eskatuta izapidetutako kexa da aipatzekoa: bigarren hezkuntzako institutu batean egindako jarduera baten ingurukoa zen, eta, horri esker, zentroko arduradunen nahiz Hezkuntza Ikuskaritzaren erantzun irmo eta egokia egiaztatu ahal izan zuen Arartekoak.

f. Ikasleen erlijio-askatasuna

Gai horri dagokionez, nahitaez aipatu behar dugu Hezkuntza Sailari 2023an egindako gomendioa. Bertan, Sailari gomendatu genion *erlijio islamikoaren* irakaskuntzarekin lotutako neurriak hartzeko, bere garaian “Islamaren adiskideak” elkarteak eta beste pertsona partikular batzuek jarritako kexen ondorioz (ikus 2022ko txostena), laikotasuna defendatzen duten hezkuntza-proiektuak dituzten zenbait ikastetxeren praktikak oztopatzaileztat jotzen zituztelako. [2023ko abuztuaren 10eko Ebazpenaz](#) ari gara, zeina administrazio publikoetan lan egiten duten langileei buruzko atalean ere aipatzen baita (txosten orokorra, II.9 kapitulua).

g. Beste gai batzuk

Ohikoa denez, *kuotak eskatzen* jarraitzen duten *zentro itundu* batzuen jokoaren inguruko jarduketak hasi genituen 2023an ere. Egia da jarduketa puntualak direla, baina gehiegi luzatzen dira denboran, nahiz eta Hezkuntza Sailak hainbat aldiz esan jokamolde horiek amaiarazteko konpromisoa duela.

Azkenik, *administrazio ona izateko eskubideak* dakartzan eskakizunei dagokienez antzemandako gabeziak aipatu behar dira. Txosten honen beste atal batzuetan zehazkiago azaldu ditugu, eta, bereziki, txosten orokorraren II.13 kapituluan, administrazio elektronikoari, datuen babesari, gardentasunari eta gobernu onari buruzkoan.

2.3. Abandou, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea

19. artikulua

1. *Haurra gurasoen, legezko ordezkarien edo bestelako norbaiten zaintzapean dagoen bitartean, estatu kideek beharrezkoak diren legezko, administrazio, gizarteko eta hezkuntzako neurri guztiak hartuko dituzte haurrak honakoak jasan ez ditzan: edozein motatako kalte edo gehiegikeria fisiko nahiz mentalak, arduragabekeria edo tratu zabarra, tratu txarrak edo esplotazioa, sexu-abusuak barne.*

20. artikulua

1. *Aldi baterako edo betirako beren familia-ingurutik at dauden haurrek, edo beren interesen arabera familiatik kanpo egon behar dutela argi badago, haur horiek Estatuaren babes eta laguntza jasoko dute.*

2.3.1. Testuinguru arauemailea eta soziala

Txosten honen I. kapituluan adierazi dugun bezala, urteko azken hilabeteetan Legebiltzarrean haur eta nerabeen lege-proiektua onartzeko izapidea hasi zen. Prozesu horretan parte hartzera gonbidatu zuten Arartekoa, eta 2024ko lehen hilabeteetan amaitzea espero da. Lege-proiektuak berriazko titulu zehatz batean garatzen du haurrak eta nerabeak babesteko gizarte-zerbitzuen sistema.

Proposamenak Adingabearen Babes Juridikoari buruzko [urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak](#) 2015ean 8/2015 Lege Organikoa eta 26/2015 Legea (haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa) onartzearekin batera izan zituen aldaketa garrantzitsu gehienak jasotzen ditu, baita [ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren](#) aginduak ere. Era berean, Euskadin babesik gabe dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuek ia 20 urtez egin duten lanetik eratorritako ikaskuntzak biltzen ditu, urte horietan zehar asko hobetu baita haurrentzako arreta.

Bestalde, aipatzekoa da urriaren amaieran Espainiako herriaren defendatzaileak “[Eliza katolikoaren baitako sexu-abusuei eta botere publikoen zereginari buruzko txostena: Beharrezko erantzuna](#)” aurkeztu eta eman ziola Gorte Nagusietako presidenteari, Diputatuen Kongresuak, legez besteko proposamen bat onartu ondoren, 2022ko martxoaren 10ean emandako agindua betez. Urtearen amaieran, Espainiako apezpiku-konferentziak “[Espainiako Eliza Katolikoaren baitako sexu-abusuei buruzko auditoretza-txostena](#)” aurkeztu zuen. Bi dokumentuak ikusmin handiz espero ziren, eta gertatutakoa ikusarazi eta aitortzeko egin duten ekarpenagatik eskertu behar ditugu. Adituek eta erakunde espezializatuek behin eta berriz adierazi dute haurren eta nerabeen aurkako sexu-abusuen nagusitasunari eta intzidentziari buruzko azterlanak beharrezkoak direla, eta, beraz, horrelako ekimenak behar-beharrezkoak dira abusuak maiztasun berarekin edo handiagoarekin gertatzen diren beste eremu batzuetan.

2.3.2. Babesgabetasun-egoeran dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuei buruz herritarrak egin dituzten kontsulta eta kexekin pozik ez egotearen arrazoiak

Ohikoa denez, Arartekoak 2023an arlo horri buruz jasotako ia kexa guztiak gizarte-zerbitzuek artatutako haurren eta nerabeen gurasoek jarri zituzten. Salbuespena seniderik ez duten sei nerabe atzerritarrek aurkeztutako kexak izango lirateke, foru-mailako gizarte-zerbitzuek hartutakoak eta atal espezifiko batean jaso direnak (2.3.4). Kexa eta kontsulta gehienak foru-aldundietako gizarte-zerbitzuei zuzendu zitzaizkien.

Planteatutako gaiak ere aurreko urteetan aipatutako antzekoak izan ziren. Udaletako edo foru-aldundietako gizarte-zerbitzuek *seme-alaben babesgabetasuna baloratzeko espediente* bat irekitzeak familiengan sortzen dituen zalantzak eta ziurgabetasuna dira, oraindik ere, Arartekoari kontsulta egiteko arrazoi nagusietako bat. Arartekora jo zuten familia askok hori egin zuten espediente bat ireki zela edo beraien kasuak udal gizarte-zerbitzuetatik foru-zerbitzuetara bideratu zirela jakin zutenean, eta familia banatuko luketen babes-neurriak ezartzeko aukeraren aurrean. Arartekoak, horrelako kontsultetan, familiei babesgabetasuna baloratzeko prozesuaren ezaugarri nagusiei buruzko informazioa ematen die, eta eskatzen die balorazioa egiten duten profesionalekin lan egiteko, elkarrekin seme-alabentzako beharrezko laguntzak eta ahalik eta ongizate-egoera onena lortzeko.

Kexen eta kontsulten beste multzo batek gai orokorrekin du zerikusia, hala nola Foru Aldundietako haurrentzako zerbitzuek aurkeztutako eskaera batzuei (bisita- edo aldaketa-eskaerak, balorazio-txostenen edo kasu-planen eskaerak, eta abar) *erantzun ez izana*; aztertutako kasuetan, administrazioak ez zuten irregulartasunik izan.

Beste herritar batzuek Arartekora jo zuten gizarte-zerbitzuen *esku-hartzea atzeratu egin zelako* babesgabetasun-balorazioa abiatzean edo familia-nukleorako nahiz familiako kideren batentzat aurreikusitako programaren edo laguntzaren bat aktibatzean. Aztertutako kasuetan, eragindako administrazioek ez zuten irregulartasunik izan.

2023an berriz ere familien hainbat kexa eta kontsulta jaso genituen, *desadostasuna adierazteko beren seme-alaben babesgabetasuna aitortzearekin*, guraso-ahala etetearekin eta foru-erakundeak tutoretza onartzearekin. Familia horietako batzuek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuten, babes-neurria galarazteko edo iragarritako neurrien legezotasunari buruzko informazioa jasotzeko, egindako babesgabetasunaren larritasuna baloratzeko txostena zalantzan jarriz. Txosten tekniko horiek ez dira Arartekoaren eskumeneko jakintza-diziplinakoak, eta beraz herritarrei horixe jakinarazten zaie. Beste kasu batzuetan, kexagileek neurriaren kontra egiteko lege-egoitzara jo edo horren asmoa azaldu zuten, eta beraz, Arartekoak araudi erregulatuaren arabera jardutea saihesten zen.

Horregatik guztiagatik, kasu horietan guztietan, erakunde honen esku-hartzea familiak haurrentzako zerbitzuei ahal beste laguntzera bideratu zen, neurria modu egokian garatzeko; informazioa eskatzera, ados ez zeudela adieraztera eta hobetzeko proposamenak egitera; eta, hala bazegokion, hartutako ebazpenaren edo ebazpenen aurka egitera epaitegietan. Horrek epaitegietako talde psikosozialetako profesionalak beste balorazio bat egitea ahalbidetuko luke.

Beste kexa batzuk dagoeneko abian jarritako *babes-neurrien garapenarekin ados ez egotearen* ondorio izan ziren. Ados ez egiteko arrazoi ohikoenetako bat tutoretzapeko haur eta nerabeek jatorrizko familia bisitatzeari buruzkoa izan zen, bisita kopurua murriztu zelako, profesionalak bisita horiek gainbegiratu zituztelako edo jatorrizko familia bisitatzeko aldi baterako eten zelako. Aztertutako kasuetan egiaztatu zen komunikazio-araubidea haurren egoera eta beharretara moldatu eta egokitu zela. Bestalde, komunikazio-araubidearen aldaketa horiek maiz berrikusten dira, adingabeen ongizateari behar bezala erantzuteko. Hortaz, Arartekoak ondorioztatu zuen gizarte-zerbitzuen jarduna zuzenbidearen arabera izan zela.

Nerabe bat *egoitza-harreran* duen familia batek Arartekora jo zuten alabak behin eta berriz egoitza ihes egiten zuelako eta hezkuntza-taldeek zailtasunak zituztelako behar bezalako babesa bermatzeko eta egoitza joatea eragozteko. Zoritxarrez, batzuetan, zuzeneko arretako profesionalak beren esku dagoen guztia egin arren, ezin da neska-mutilek baimenik gabe alde egitea saihestu. Jarrera hori batez ere ondoez emozionalaren adierazgarri da. Nolanahi ere, aztertutako kasuan ez zen irregulartasunik ikusi gizarte-zerbitzuen jardunean.

Era berean, *egoitza-harreran dauden haur eta nerabeei buruz hitz egitean*, aipatu behar da ofiziozko jarduketa bat hasi zela Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapeko adin txikiko haur bat amak eta egungo bikotekideak bahitu zutela jakin zenean. Arartekoak baloratu zuen foru-zerbitzuek arduraz eta egokitasunez jokatu zutela gertatutakoaren aurrean.

Familia-harrerarekin lotuta, kexa bat jaso zen larrialdiko *familia-harrera* bat bertan behera uzteagatik; izan ere, familiak uste zuen foru-aldundiak arinegi amaitu zuela harrera eta arinegi itzuli nahi zuela haurra jatorrizko familiarekin. Hala ere, Arartekoak ez zuten esku hartu behar izan, familiak jakinarazi baitzuen azkenean haurra behar bezala integratu zela jatorrizko familian.

Halaber, Integraziorako eta kulturen arteko Bizikidetzarako Biltzen Euskal Zerbitzuak Marokoko kontsulatuarekin izandako topaketaren berri eman behar da, kafalaren figuran sakontzeko eta hura hobeto ezagutzeko. Eskubide islamikoan, guraso biologikoak ez diren beste pertsona batek haur bat legez hartzeko erakundeak hartzen duen izena da kafala.

2023an, ez genuen jaso *adoptatutako haur eta nerabeei* buruzko, adoptatu osteko jarraipenei buruzko edo adopzioarako egokitasun-balorazioei buruzko kexarik.

Azkenik, eta beste urte batez, adierazi behar dugu babeserako gizarte-zerbitzuen arloan jasotako kontsulta eta kexa batzuetan ikusi dugula zaila izan daitekeela *gurasoen arteko adostasunik gabeko banantzea* kudeatzea. Tarteka, gurasoetako batek Arartekora jotzen du adierazteko gizarte-zerbitzuak, foru-aldundikoak edo udalekoak ez direla esku hartzen ari beren seme-alaben kaltea saihesteko, edo haiek eskuragarri dituzten tresnak (familiako esku hartzeen programak, laguntza terapeutikoa eta abar) ez direla nahikoa gurasoek duten gatazkatik babesteko. Kasu gehienetan, desadostasunaren funtsezko gaia judizializatuta dago eta etengabeko demandak seme-alaben bizitza garatzen den eremu guztiez jabetzen dira. Gizarte-zerbitzuen esku-hartzeari ere eragiten diote, esku hartu bai, baina haurrak ezin dituzte gatazkatik erabat babestu.

2.3.3. Babesgabetasun-arriskuko egoeretan dauden adingabeak artatzea

Defentsa-erakundeen Koordinaziorako Jardunaldien XXXVI. edizioa (ikus txosten honetako IV. kapitulua) adingabeak (haurrak eta nerabeak) egon daitezkeen babesgabetasun-arriskuko egoerei buruzkoa izan zen. Arartekoak jardunaldietan parte hartu zuen eta, horri esker, sakonago ezagutu ahal izan zuen babesgabetasun arineko eta ertaineko arrisku-egoerak artatzean araudiaren arabera eskumena duten udal-zerbitzuek errealtate horri emandako arreta. 40 udal eta mankomunitate ingururi egindako kontsultaren bidez (Euskadiko biztanleriaren % 86,5 dira), Arartekoak oso interesgarria den eta bilduta aurkitzea zaila den informazioa eskuratu zuen. Prozesuak, gainera, udaletako zenbait gizarte-zerbitzuekin elkartzeko eta elkarrizketak izateko aukera eman zigun, eta zerbitzuen funtzionamendua, zailtasun eta arazo ohikoenak eta jardunbide arrakastatsuak zein erreferentziak zehatz-mehatz ezagutzen lagundu ziguten.

Lortutako informazioaren zati handi bat aipatutako jardunaldietako eztabaidetan erabili genuen **txostenean** jasota dago. Nolanahi ere, atal honetan interesgarriak izan daitezkeen datuak aipatuko ditugu.

Lehenik eta behin, egoera horren irismena ezagutzea zaila dela aipatu behar dugu, hau da, **Euskadin babesgabetasun-arriskuan dauden haur eta nerabeen kopurua** ezagutzea. Datu hori jasotzen duen estatistika publikorik ez egoteaz gain, horri datuen erregistroaren kalitate baxua (udalerrri batzuetan datuak hartzeko sistema eskasa, datu desberdinak eta, beraz, bateragarriak eta konparagarriak izan ez daitezkeenak, etab.) eta praktiken heterogeneotasuna (prozedura orokorki definituta dago) gehitu behar zaizkio.

Nolanahi ere, babesgabetasun-arriskuko egoeran dauden haur eta nerabeei buruz bilatutako datura gehien hurbiltzen den kopurua, Balora tresnarekin balorazio zorrotz bat egindakoan hala aitortuta egotea eskatzen ez badugu, esku-hartze

sozioedukatio eta psikosozialeko programetan inplikaturako adingabeen kopurua da. Udalei eta mankomunitateei egindako kontsultatik nolabaiteko ziurtasunez atera daitezkeen datu bakarra hori da; izan ere, erakunde guztiek eman zuten, eta horren edukia bat dator Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuaren prestazio eta zerbitzuen zorroaren 1.3 fitxan deskribatutakoarekin. Iturri horien arabera, 2022an, 12.913 adingabek parte hartu zuten udal-eremuan garatutako esku-hartze sozioedukatio eta psikosozialeko programetan, hau da, 18 urtetik beherakoen % 3,29k.

Babesgabetasun-arriskuko egoeretan dauden haur eta nerabeei arreta emateko gizarte-zerbitzuen sistemaren **arazo eta disfuntzio nagusiei** dagokienez, honako hauek aipa daitezke:

- Udaleko gizarte-zerbitzuen aitortzarik eza hazkuntzarako babes gisa, eta administrazioaren esku-hartzearen legitimizaziorik eza.
- Baliabide eta espezializazio urritasuna, udalerrri txikiaren kasuan areagotua.
- Zalantzak, esku-hartzearen eraginkortasunari dagokionez.
- Hutsuneak etengabeko arretan, kasua udaleko gizarte-zerbitzuetatik aldundiko zerbitzuetara pasatzen denean edo alderantziz.
- Esku-hartzea zatikatzea (konpartimentu estankook), bereziki genero-indarkeriako, bazterkeriako, desgaitasuneko... egoerak daudenean.
- 14 urtetik beherako haur arau-hausleen kasuan, informazio-falta gurasoei eta denbora tarte luzeegia delitua egiten denetik gizarte-zerbitzuei jakinarazi arte.
- Zailtasun larriak sistema planifikatzeko, ebaluatzeko eta, beraz, hobetzeko.



Nolanahi ere, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen esku-hartzean, beharbada “praktika onenen” kategoriara iristen ez diren **esperientzia onak** ere badaude, baina lan-erreferente onak dira, oro har esku-hartze sozioedukatio eta psikosozial indibidualean (udalerrri guztiek garatua) egiten den horren osagarri.

- Haurtzaroari buruzko tokiko mahaiak: lan-espazio egonkor eta diziplina artekoak, lurralde jakin batean (auzoa, barrutia edo udalerrria, osorik hartuta).

- Diziplina anitzeko balorazioa.
- Taldeko esku-hartzeetarako programak, prebentzioa eta detekzio goiztiarra lortzeko asmo argia dutenak. Oso desberdinak dira helburu zehatzetan eta, beraz, hartzaile eta osaerari erreparatuta.
- Eguneko zentroak: etxe baten ezaugarrien antzekoak dituzten espazio fisikoak, jarduerak egiteko (banaka, familian edo taldean), familian antzeman diren zailtasun edo hutsuneak estaltze aldera, honako arlo hauetan, besteak beste: elikadura, higieena, hezkuntza-babesa, aisia, denbora libre...
• Ebidentzietan oinarritutako programak.

Kontsultatutako gizarte-zerbitzu batzuek egindako ekimen horiez gain (horietako bat edo batzuk), Arartekoak Gasteizko Udaleko [Hautzaro eta Senitarte Zerbitzuaren](#) lana ere nabarmendu zuen, lan egiten duen ikuspegiagatik eta prebentzio-programen eta esku-hartze goiztiarreko programen sorta zabala izateagatik.

Atal honekin amaitzeko, aipatzekoa da martxoan hainbat komunikabidetan agertu ziren albisteen ondorioz ofizioz irekitako jarduketa. Albiste horien arabera, Urbinako inguruan hainbat pertsona infraetxe- eta gainokupazio-egoeran bizi dira, eta horien artean, adingabeak ere aipatu ziren. Nahiz eta komunikabideek jakinarazi zuten auzokoek jarritako salaketaren ondoren zegoen erakundeek berehala esku hartu zutela, Arartekoak hartutako neurrien inguruan galdetu zuen, bai han ostatu hartutako pertsonen egoera argitzeko, bai pertsona horiek eta, bereziki, tartean sartutako haurrak eta nerabeak babesteko. Jarraipena urtea amaitu arte egiten da.

2.3.4. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta berezia

II. kapitulu honen 2.1. atalean adierazi dugunez, normalean oso gutxi dira adingabeek zuzenean jarritako *kexak*. 2023an sei izan ziren. Kexa horiek guztiek honako hau zuten amankomunean: kexagilea seniderik gabeko adingabe migratzailea zen, eta migratzailearen adingabetasuna, hainbat arrazoiengatik, zalantzan jartzen zen. Hori dela eta, babesik gabe zeuden haurrentzako gizarte-zerbitzuetako arreta ukatzen zitzairen.

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak lagunduta eta bideratuta (erakunde hau hainbat aldiz bildu zen plataformak horrekin), sei gazteek harrera eteteko ebazpenen aurka errekurtsoa jarri zuten bide judizialean. Horren ondorioz, Arartekoak ezin izan zuen esku hartu; izan ere, Arartekoak ezin ditu banan-banan aztertu epai irmoa eman zaien edo ebazpen judizialaren zain dauden kexak (Ararteko erakundeak sortu eta arautzeko [otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikulua](#)). Bi kasutan, ordea, esku-hartzeari eutsi zitzaion, harrera eteteaz bestelako bi alderdiri dagokienez. Lehenengoak erroldatze ezarekin zuen zerikusia. Azkenean ebatzi egin zen, epaitegiak agindutako kautelazko neurrien ondorioz adingabea egoitza-harrerako sareko baliabide batean berriz sartu ondoren. Bigarren alderdiari dagokionez —Bilboko Udaltzaingoa adingabearen pasaportearekin

gelditu izanaren zailtasun erantsia zegoen—, Arartekoaren esku-hartzea eten egin behar izan zen, kexagileak ez zuelako eman ikerketarako behar zen dokumentua. Hala ere, jakin genuen pasaporte Bilboko epaitegietara bidali zela, eta, beraz, eskaera betetzat jo genuen.

Arartekoaren beraren ekimenez egindako jarduketa bat ere aipatu behar dugu. Arartekoak une horretan gizarte-bazterketa larrian zegoen baina babesgabetasun-egoeran zeuden haurrentzako zentronen batean artatu zutela uste genuen gazte atzerritar baten egoeraren berri izan zuen. *Desgaitasun intelektual* baten zantzuak zituen, une hartan behintzat bere burua behar bezala zaintzea ahalbidetzen ez ziona. Gaztea, familiak eskatuta, bere jatorrizko herrialdera itzuli zenean esku-hartzea eten egin bazen ere, horri esker aukera izan genuen xehetasun handiagoz ezagutzeko foru-zerbitzuaren jokabidea nolakoa den desgaitasun bat detektatzen den kasuetan (edo tutoretzan zehar batean agertzen denean), bai eta adinez nagusia denerako prestatzeko jarduketak ere, bere bizitza autonomorako izan ditzakeen zailtasun erantsiak hautemanda. Egia esan, kasuari heltzeko, kasua ebaluatzeko eta esku hartzeko modua egoitza-harrerako sareko edozein adingaberekin egiten den berbera da. Adinez nagusiak diren pertsonak desgaitasuna duten pertsonentzako zentro batean sartzeko (betiere aukera hori onartzen badute), ordea, egoitza-baimena behar da, eta, beraz, hala gertatu den kasu bakanetan, haurrentzako zentroetan geratu behar izan dira eskatutako dokumentazioa lortu arte.

2023an, *seniderik ez duten Bizkaiko adingabe migratzaileei lehen harrera egiteko programan emandako arretaren jarraipena* egiten jarraitu zuen Arartekoak. Aurreko urteko txostenean azaldu genuen 2022. urte osoan zehar “Vivero” egoitza-baliabidean (Galdakao) eskaini zela programa, Zornotzako zentroa obretan zegoelako. Arartekoak arretaz jarraitu zituen Vivero zentroan ikusitako baldintzak eta zailtasunak, baina 2023ko otsailerako Zornotzako zentrori itzultzea eta bestea ixtea aurreikusita zegoenez, oinarritzko gaiei eta alderdi orokorrei buruzko iritzia ematea erabaki zuen; hots, lehen harrerako programa garatzea azkenean erabakitzen zen lekuan aplika zitezkeen gai eta alderdiei buruzko iritzia ematea. Horren harira eman zen [Arartekoaren 2023ko martxoaren 23ko Ebazpena](#). Ebazpen horretan, Bizkaiko Foru Aldundiari erakunde honen aurreko urteetako iritzia gogorarazi zitzaizkion, eta, aldi berean, harrera-baldintza duinak bermatzea gomendatu zitzaion, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen egoitza-harrerarako baliabideen araudi erregulatzaileren arabera (plaza nahikoak, baldintza material eta funtzionalak, diligenza jarduketetan), bai eta baliabide-sare bat eratzea ere, hartutako nerabeen askotariko premiei erantzun emateko. Gomendioari emandako erantzunean, Foru Aldundiak kolektibo horrentzat sarean zeuden plaza guztien berri eman zuen (284+36), baita programa espezializatuen berri ere, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrei ere arreta emateko (ez eskusiboki). Horrela, Arartekoaren gomendioa betetzeko beharrezko baldintzak zeudela aditzera eman zuen.

Goian aipatutako jarraipenaren esparruan, Zornotzako azpiegitura berriro ireki zutenean (gaur egun “*Elgezabal*”

zentroa izena du), ekipoa eta hezkuntza-proiektua aldatu zituzten, eta, beraz, erakunde honetako langileak zentroa ikustera eta talde kudeatzaile berriarekin hitz egitera joan ziren. *Bisita* egin zen egunean, uztaila erdialdean, zentroak 34 plaza zituen gaituta, eta 38 pertsona zeuden bertan. Horietako zazpi arazoak eragin zituzten sareko beste zentro batzuetatik zetozen. Okupazio horrek, murriztu beharrean, gora egiten jarraitu zuen hilabeteak igaro ahala (urrian okupazioak plazen kopurua bikoiztu zuen); hortaz, ezinezkoa izan zen lehen harrerako arreta zentroaren proiektu berriak diseinatutako baldintzetan ematea.

Bestalde, beste zentro batzuetan behar bezala aurrera egiten ez zuten adingabeak 0. fasera “itzultzeak” (beraz, Elgezabal zentroan berriz sartzeak) zentrotako bizikidetzaz arazoak eta heldueraren lehen faseetan egin beharreko hezkuntza-lana egiteko zailtasunak areagotzen ari zirela zirudien. Egoera horixe azaldu zuen foru-zerbitzuak, bere erantzunean, urrian zentrotako nerabe-talde batek beste bati osasun-arreta eskatu zion erasoaren berri jaso genuenean eta horri buruzko informazioa eskatu genionean. Erasoa jasan zuen mutila behar bezala berreskuratu zela jakinarazteaz gain, sailak jakinarazi zuen zaila zela berriz etortzeko mutil horietako batzuekin lan egitea (haiekin dinamika desberdina zuten zentroan), eta hezkuntza-taldea nekatuta zegoela aipatu.

Oraindik ere errealitate hori mantentzen dela kontuan hartuta (hots, gainokupazioa nahiz indarkeriazko jokabideak dituzten mutilek eragindako bizikidetzaz arazoak mantentzen direla kontuan hartuta), Arartekoak ondorioztatu du orain arte hartutako neurriak —gorago aipatutako gomendioari emandako erantzunean jakinarazi ziren horiek— ez direla nahikoak izan, eta, beraz, gomendioan emandako argudioak eta gomendioak berriro azpimarratu nahi ditugu.

Gazte horiek *emantzipazio*-etapan dituzten zailtasunak dagokienez, Bulego honen 2022ko txostenean jaso genuen Eusko Jaurlaritzak [Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030eko Euskal Estrategia](#) onetsi zuela. Estrategia horren esparruan, familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaile horien gizarteratzea bultzatzeko berariazko jarduketak jaso ziren. Estrategia hori Arartekoak [“Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin”](#) azterlanean eskatzen zuen gazte-politiken esparruko erantzun integrala da. Ildo horretan, Arartekoak uste du 2023an aurrerapen argiak egin zirela, hasteko Euskarri Estrategian eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sustatutako gazteei laguntzeko Trapezistak programa sendotzean. Era berean, foru-aldundiek emantzipatzeko eta gizarte-inklusiorako programetan plaza gehiago jarri zituzten, eta gazte batzuek DSBE prestazioa jaso ahal izan zuten, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren [abenduaren 22ko 14/2022 Legean](#) babes handiagoa eman baitzitzaizen adingabeak babesteko eta arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon zirenei edo bizitza independenterako prestakuntza-programetan parte hartu zutenei. Era berean, lege horrek etxebizitza berean bizi diren bi bizikidetzak-unitatek baino gehiagok DSBE prestazioa jasotzeko aukera ezarri zuen, eta horrek emantzipatzeko aukerak erraztu dizkie etxebizitza bat partekatzen duten gazteei.

Hala eta guztiz ere, zailtasun handiko egoeren berri izaten jarraitu genuen, bai zuzenean gazte batzuek jarritako kexen bidez, bai Harresiak Apurtuz, Ongi Etorri Errefuxiatuak eta SOS Arrazakeria elkarten edo Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren bitartez. Horiek guztiek kezka agertu zuten etxebizitza eskuratzeko diskriminazioagatik, udal-errolan izena emateko zailtasunengatik edo Trapezistak programaren mugengatik (adina eta plazak).

Hain zuzen ere, Arartekoak *Montaña zentroa* bisitatu zuen, Trapezistak programaren baliabideetako bat. Bisitarako, eta baliabide horien baldintza material eta funtzionalak arautzeko araudirik ez dagoenez, Arartekoko langileek etxegabetasun-egoeran dauden pertsonen aldi baterako arreta emateko estandarrei buruz eta oinarritzko giza eskubideei buruz ikertu zuten. Halaber, Trapezistak programaren helburu eta baldintzak sakon aztertu zituzten, programa horren baitan kokatzen baita ostatu hori (0 fasean bada ere). Azkenik, lehen aipatutako azterlanean jasotako gomendioak hartu ziren oinarritzat.

Bisitaturako zentroaren baldintzen balorazioa positiboa izan zen, uste baita erantzun duina ematen ari zaiola familiaren laguntzarik eta ostatu seguru eta egokirik ez duten gazte migratzaileen egoerari, prestakuntza-prozesuekin eta gizarteratzeko ibilbidearekin jarraitu ahal izateko. Hala ere, kezka sortu zigun ibilbidean ezarritako hurrengo baliabideetara bideratzeko arintasunik ezak; izan ere, horren ondorioz, hiru hilabeteetako egonaldiak luzatzen ziren. Arazo jakin batzuk onargarritzat edo garrantzi txikiagotzat har daitezke denbora-tarte labur baterako badira, gaueko orduetegiaren soilik ostatu ematea bezalaxe, baina behin-behinekoa behin betiko bihurtzen bada, arazo horiek garrantzi handiagoa hartzen dute. Txandakatze egokiak baliabidean bizi diren pertsonen prestakuntza-ibilbidean eta gizarteratze-ibilbidean aurrera egin dezatela ahalbidetuko luke, bai eta prozesuan itxaron-zerrendan dauden eta oinarritzko premiei erantzun ahal izateko ostatu ez duten beste pertsona batzuk baliabidean sar daitezela ere.

Atal honekin amaitzeko, jakinarazi nahi dugu Haur eta Nerabeentzako Bulegoak familia-erreferenterik ez duten gazte eta nerabe atzerriarren eskubideak defendatu eta sustatzearekin lotutako *beste ekimen batzuetan* ere parte hartu zuela, orain arte bezala. Adibidez, Harresiak Apurtuz-ek antolatutako [“Gazte migratzaileak. Logika asistentzialistatik dimentsio afektibora: apustu kolektibo eta feminista atzerazekin bat”](#) jardunaldian emandako hitzaldia, edo Ikuspegik antolatutako Euskadiko immigrazioari eta integrazioari buruzko XIII. Jardunaldietan parte hartzea, oraingoan honako honi buruzkoak: [“Gazte migratzaileak: parte-hartzea, bizikidetzak eta emantzipazioa”](#).

2.3.5. Sexu-abusua

Espainiako herriaren defendatzailearen eta Espainiako apezpiku-konferentziaren txostenek (dokumentu honen 2.3.1. atalean aipatutakoak) komunikabideetan izan zuten oihartzun handia Arartekoan ere nabaritu zen, iraganeko sexu-abusuaren biktima izan zirenen *kontsultak* eta

kontaktuak *ugaritu* egin baitziren. Erakunde honek kasu horietan esku hartzeko dituen mugak direla eta, kasu guztiak entzun eta bideratu ziren, Estatuko herriaren defendatzailean eta, hala zegokionean, Bilboko Gotzaindegiko Adingabeak Babesteko eta Abusuak Prebenitzeko Batzordean irekitako kanaletara.

2023an amaitu zen, halaber, Arartekoak duela bi urte hasitako *esku-hartzea*, Ertzaintzaren komisaria batean *sexu-eraso baten biktima izan zen hamabost urteko nerabe bati emandako tratuari* buruzkoa. Ertzaintzak, kexagilearen arabera, neskaren kontakizunaren egiazkotasuna zalantzan jarri zuen, eta ez zuten salaketa jartzea erraztu. [2023ko otsailaren 23ko Ebazpenean](#), Arartekoak honako hauek gogorarazi zituen, besteak beste: ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoko Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko manuak eta Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideei buruzko [maiatzaren 18ko 2/2021 Gomendio Orokorra](#). Bertan gomendatu zuenez, ertzain-etxe eskudunaren edo tokiko udaltzainen egoitzen jarduna zen, kasu bakoitzean, salaketa jaso, ikerketa hasi eta polizia-diligentziak irekitzea, eta, horrek, besteak beste, barne hartzen zuela berehala jakinaraztea guardiako epaitegiari (edo Fiskaltzari, erasotzaileak adingabeak izanez gero) eta zigor-ikerketan, atzerapen justifikatu gabe hasi behar dena, une oro saihesti behar dela adingabea berbiktimizatzea, eta galdeketak zentratu behar direla polizia-ikerketaren alderdian (autorea identifikatu edo aurkitzeko balio duten datuak, esaterako), eta ez delitu-gertaerak kontatzean.

2023an, maiatzaren 18ko 2/2021 Gomendio Orokorrean jasotako proposamenak betetzeko jarduketan hedapenaren jarraipena egiten segitu genuen (eskumen-esparru partikularrean jarduteko jarraibideak zabaltea eta aplikatzea, profesionalen prestakuntza eta espezializazioa, hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa), baita, oro har, kasu horien tratamendua hobetzeko egindako aurrerapenen jarraipena ere. Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren 2022ko txostenean, nahiko xehe jaso zen ukitutako administrazioek emandako informazioa. Informazio hori osatzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak emandako informazioa emango dugu. Sala horrek, gomendio horren hartzaile ez bazen ere (eta izan ezin bazen ere), Justizia Administrazioa osatzen duten erakundeetako bat den aldetik, gomendio horretan jasotako jardunbideak bere prozedura-praktikan txertatzeko aukera zuen.

Gobernu Salaren osoko bilkurak, 2021eko maiatzean, jarraibide horiek jardunbide prozesal egoki gisa ezarri zituen, eta epaile eta magistratuen artean banatu zituen. Urte horretan bertan, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak ume eta nerabeenganako sexu-abusuen arloko erakundearteko eta sailarteko lantalde teknikoan parte hartzeko egindako gonbitari erantzunez, Euskadin Barnahus ereduaren proiektu pilotu gisa ezartzeko, bi magistratu izendatzea proposatu zen (“instrukzio” eta “adingabe” ikuspegi osagarriekin). Gaur egun ere parte hartzen jarraitzen dute. 2022an, aurrez osatutako froga egiteko jardunbide egokien gida onartu zen. Urte berean aldatetaren bat egin zitzaion, eta organo interesdun guztiei zabaldu zitzaion.

Aurrez osatutako frogaren benetako aplikazioari dagokionez, organo judizialak ziurtatu du haurrak 14 urte baino gutxiago dituenean, deklarazioa aurrez osatutako frogaren arabera egiten dela, alderdiak eta epailea bertan direla eta talde psikosozial judizialeko psikologo batek egindakoa, eta bistan aurrez osatutako froga erreproduzitzen dela. Hala, egungo [Prozedura Kriminalaren Legearen](#) arabera jarduten da (ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak aldatu zuen), eta adin horretatik beherako haurrei ez zaie auzitara deitzen. Egia da, salbuespenez, auzitegiako presidenteak agertzea eska diezaiokela froga behar bezala egin ez bada edo alderdietako batek eskatzen badu, betiere ebazpen arrazoitua eman ondoren. Benetan, ordea, oso gutxitan jarduten da horrela.

Jarraibideetan xedatutako prozeduraren beste elementu batzuei dagokionez, organo judizialak honako hau jakinarazi du: Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin harremanetan jartzen da biktimari laguntza eta aholkularitza emateko; prozesuan ahalik eta gutxien deklaratzeko ahalegina egiten da, auzitegiako medikuak edo Balorazio Integraleko Unitateak egin beharreko edozein azterketa egintza bakar batean egiten saiatuz; biktimari deklaratu ondoren alde egiten uzten zaio eta biktimarioa izan daitekeen pertsona sartzen den bestelako leku batetik sartzen; epaiaren berri ere ematen zaio, baita kondena ezartzearen kasuan betearazpen-fasean eragiten dioten erabakien berri ere, auzian akusazio partikular gisa agertzen ez bada ere.

Kasu horietan, funtsezko beste bi gai ezarri beharko liriteke: prozesu horiek lehentasunez izapidetzea eta Justizia Administrazioako abokatuek pieza banandu gisa sartzea biktimen datuak, datu pertsonalak babesteko.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salak jakinarazi du 2023ko helburuen artean, Barnahus programa Araban ezartzearekin batera, honako hauek daudela: aurrez osatutako froga egiteko talde judizialak eta peritu-irizpenak eta -txostenak egitea indartzea, eta epaile eta magistratuen prestakuntza espezifikoa. Urtea berriki itxi denez, Arartekoak ez daki zer arrakasta izan duten helburu horiek.

Sexu-abusuaren biktima izan diren haur eta nerabeen arretan egindako aurrerapenen jarraipenaren esparruan, Arartekoa Barnahus proiektu pilotua abian jartzeko zain dago. Eusko Jaurjaritzaren ustez, zerbitzu integral horri esker erantzun egokia emango zaio 2/2021 Gomendio Orokorrean jasotako erakundearen proposamenari. Hala, urteko hainbat unetan, aurrerapauso horien berri emateko foroetara joan ginen, hala nola Cadena SER irratiak antolatutakora: “Espacios para la reflexión: detección y atención integral a menores víctimas de abuso sexual”.

Haur eta nerabeen aurkako sexu-abusuari buruzko atal honi amaiera emateko, [Justice Initiative](#)-k Arartekoari egindako gonbidapena aipatu nahi dugu: *Exhibition Shame, European stories* erakusketaren inaugurazioan parte hartzea. Erakusketa horretan, haur eta nerabeen aurkako tratu txarren eta abusuen biktima eta biziraule europarren aurpegiaren argazkiak erakutsi ziren. Bertan, Arartekoak berretsi egin zuen indarkeria hori prebenitzeko, konpontzeko eta biktima guztiekin justizia egiteko konpromisoa.

2.3.6. Genero-indarkeria jasan dezaketen haurrak eta nerabeak

Atal honetan, Goizargi Elkartearekin (indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen elkarte) izandako bilera aipatu behar da. Emakumeen berdintasun-arloek eta Arartekoaren Haurrentzako Bulegoak elkarte horren eskeak jaso zituzten, genero-indarkeriak emakumeengan eta haien seme-alabengan dituen ondorioekin lotutako hainbat gairi buruzkoak. Honako gai hauek jorratu ziren, besteak beste: genero-indarkeriako testuinguruetan babesgabetasun-arriskuari buruzko balorazio teknikoak eta foru-aldundietako haurrentzako babes-arloen genero-ikuspegia; indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako administrazio-akreditazioen inpaktu eskasa; indarkeria psikologikoa egiaztatze prozesu judizialean dauden arazoak; edo testuinguru horietan familia-elkarguneek duten zeregina. Arartekoak konpromisoa hartu zuen kezka eta eskaera horiek *EAE n emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioaren* esparruan egiten diren hausnarketetara helarazteko, bertan aktiboki parte hartzen baitu. Era berean, konpromisoa hartu zuen berdintasun-arloak eta Haur eta Nerabeentzako Bulegoak aurretiko balorazio bat egiteko, etorkizunean elkarteak Arartekoari helarazi nahi dizkion kexak hobeto bideratzeko.

Aurreko urteetako txostenetan, Haur eta Nerabeentzako Bulego honek adierazi du kezka berezia duela indarkeria matxistaren ondorioz umezurtz geratzen diren haurren egoera dela-eta, eta administrazio publikoko hainbat arlotan egindako jardueren berri eman du unean-unean. Testuinguru horretan, Arartekoak ondo baloratu zuen Euskadin indarkeria matxistaren ondorioz umezurtz geratu direnentzako prestazio ekonomiko bat iragarri izana; are, abuztuan aurkeztutako dekretu-proiektuak hura hedatu, eta aurreko urteetako kasuak ere babestuko zituela ezarri zuen. Hala ere, urtea amaitu da eta dekretua oraindik ez da onartu; beraz, erakunde honek adi jarraituko du, dirulaguntza hori azkenean nola geratzen den ikusteko.

2.4. Familia babeslea izateko eskubidea

18. artikulua

1. *Bi gurasoek dituzte betebeharrak haurra hazi eta hezteko garaian, eta estatu kideek indar guztiak jarriko dituzte printzipio horren onespina bermatzeko. Gurasoei edo, hala dagokionean, legezko ordezkari dagokie haurra hazi eta garatzearen erantzukizuna. Euren ardura garrantzitsuena haurraren interes gorenaren izango da.*
2. *Hitzarmen honetan jasotako eskubideak bermatu eta sustatzeko, estatu kideek laguntza egokia emango diete gurasoei eta legezko ordezkari, haurra hazteko betebeharrean behar bezala joka dezaten; halaber, haurrak zaintzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuen sorrera bultzatuko dute.*

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezzen sustatzen du, askotariko familia-ereduak kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatetsiak ditu familia-ereduak, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, erabateko berdintasunez eskuratu ditzaten beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak.

2.4.1. Testuinguru arauemailea eta soziala

Europar Batasunaren testuinguruan, 2023ko abenduaren 14an, Europako Parlamentuak *filiazioari eta gurasotasunari buruzko erabakiak elkarri aitortzeko edo estatuen artean onartzeko* eta Europako filiazio-ziurtagiri bat sortzeko *erregelamendu-proposamena onartu* zuen. Orain Kontseiluak azken onespina eman beharko dio testuari.

Estatu-mailan, Espainiako Gobernuak 2023ko apirilean onartutako Familien Legearen proiektuak ez zuen argia ikusi, hauteskunde orokorren deialdia aurreratu zelako. Azkenik, Espainiako gobernuak lege-proiektuaren zati bat onetsi zuen, legegintzako errege-dekretuaren bidea erabiliz, premiaz bete behar baitzuen gurasoen eta zaintzaileen familiako eta laneko bizitzak bateragarri egiteari buruzko [2019/1158 \(EB\) Zuzentaraua](#) Espainiako legedira ekartzeko Batasuneko agindua (2022ko abuztuaren 1ean amaitu zen zuzentarau horren edukia Espainiako legedira ekartzeko epea). Hala, ekainaren 30ean indarrean jarri zen [5/2023 Errege Lege Dekretua](#), ekainaren 28koa, Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko neurri jakin batzuk hartu eta luzatzeko, La Palma irla berreraikitzen eta beste egoera zurgarri batzuk arintzen laguntzeko, sozietate merkantiletan egiturazko aldaketak egiteari eta gurasoen eta zaintzaileen familiako eta laneko bizitzak bateragarri egiteari buruzko zuzentarauak (Europar Batasuna) ekartzeko eta Europar Batasuneko zuzenbidea betearazi eta betetzeko.

Arauek EBren zuzentarau horren transposizioa egiten du, eta Langileen Estatutua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuen Legea eta Gizarte-arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legea aldatzen ditu. Berritasunen artean, honako hauek nabarmentzen dira: ezkontideei bakarrik aplikatzen zitzaiena izateko bikoteei hedatu zaie; ordaindutako baimen batzuk zabaldu dira, baita seme-alabak edo desgaitasuna duten pertsonak zaintze aldera lanaldia egokitze eskubidea ere, eta gurasoentzako baimen bat sortu da, ez-ordaindua, 8 astekoa gehienez ere, asteak jarraituak nahiz etenak izan, semea, alaba edo urtebetez baino gehiagor harreran hartutako adingabe bat zaintzeko, adingabeak 8 urte bete arte.

Abenduaren amaieran, [abenduaren 19ko 7/2023 Errege Lege Dekretua](#) onartu zen; horren bidez, besteak beste, arestian aipatutako 2019/1158 Zuzentarauaren transposizioa osatu zen edoskitze-baimenarekin lotutako zenbait alderditan. Xedapen hori, ordea, indargabetuta geratu zen 2024ko urtarrilaren lehenengo egunetan, Diputatuen Kongresuak ez baitzuen baliozkotu.

Autonomia-erkidagoan, [otsailaren 21eko 27/2023 Dekretua](#) onetsi dela aipatu behar dugu, seme-alabaren

bat duten familientzako laguntzena: ardurapean seme-alabak izateagatik prestazio ekonomikoen aurretiko arau erregulatzaila balio gabetu du, eta, berritasun gisara, 200 euroko laguntza zuzena sortu du ardurapeko seme edo alaba bakoitzarentzat, hilerokoa, adingabeak hiru urte bete arte. [Erronka Demografikorako 2030eko Euskal Estrategian](#) kokatzen da jarduketari hori, helburu estrategikoen artean baitauka ([dokumentu operatiboa](#)) familia-proiektuak eraikitze eta jaiotza-tasa igotzeko laguntzak diseinatzea, gure ingurunean emaitza onenak dauzkaten herrialdeen pareko mailalara iritsi gaitzen eta, horrela, joera alda dadin; hots, gainbehera demografikoko agertokitik susperraldi demografikora igaro gaitzen.

Arauk lehenengo 1.000 egunetako prestazioaren zenbatekoa areagotu du (adituek ezinbestekotzat jo dute neurri hori, haurren garapenari begira), eta, gainera, 100 euroko beste laguntza bat sortu du, hilerokoa, seme-alabek 7 urte bete artekoa, bigarren seme-alabatik aurrera. Halaber, prozedura soildu da, hileko ordainketa-sistema ezarri baita, errenta-maila aintzat hartzen ez duena eta eskaera bakarra eginarazten duena, aurreko sistemaren ordeztu (lehen, urtean behin egiten zen ordainketa, familiaren diru-sarrerara fiskalak aintzat hartzen zituen formula konplexu baten arabera).

2.4.2. Kexetan pozik ez egoteko azaldu diren arrazoak

Familiei laguntzeko neurri ugari daude, askotarikoak, eta politika publikoen hainbat eremutatik antolatzen dira. Datozen orrialdeetan, Arartekoak eskumen autonomikoko prestazio ekonomikoen inguruan duen jardueraren berri emango dugu, 2023ko ekitaldian erakundera jo duten familia-konfigurazio batzuen arazoekin osatuta. Gainera, “familientzako laguntzak” izendapenean argi eta garbi sar daitezkeen neurri, programa eta zerbitzuei buruzko kexen esku-hartzeak sartu ditugu. Txosten orokorrean, Familiena ez den beste eremu batzuetan aipatzen dira. Seme-alabak dauzkaten familiengan pentsatzen badugu, horren erakusgarri argia dira, besteak beste, hezkuntzari buruzko kapituluaren haur-eskolen inguruan jasotako kontuak, administrazio langileei buruzko kapituluaren azalduetako baimenak eta kontziliazio-neurriak baliatzearen ingurukoak edo, are, familia-elkarguneak. Nolanahi ere, inori ez zaio oharkabea igarotzen beste politika publiko sektorial batzuek (hala nola, gizarte-zerbitzuei, etxebizitzari, diru-sarreraren bermeari edo hezkuntzari buruzkoek) inpaktu handia dutela familien ongizatean.

a. Familiei laguntzeko prestazio ekonomikoekin lotutako arazoak

2023an, aurreko urteetan bezalaxe, Eusko Jaurlaritzak ardurapean seme-alabak dauzkaten familiei laguntzeko dituen prestazio ekonomikoen inguruko kexak jaso ditugu. Kexetan, batez ere, pandemiaren osteko egoeratik arrastatu diren zailtasunak ikusi ditugu, izapide telematikoen ingurukoak, bai herritarrengan, zailtasunak izaten baitituzte dokumentazioa aurkeztu eta jakinarazpenak deskargatzeko, bai administrazioan, elkarrengarritasun-faltagatik eta betekizunak nahiz epeak betetzeko informazio egokia ez emateagatik.

Kexa batzuek, bestalde, hizpide izan dute gora jotzeko errekurtsoak ebazteko orduan izandako atzerapena, 2022ko txostenean ere aipatu bezala. Beste batzuetan, errekurtsoari emandako erantzunaren edukiak berak piztu du desadostasuna. Kasu guztietan, 2021ean izapidetutako laguntza-espeditenteak izan dira: espeditente gehienetan, eskaerei uko egin zitzaizela balioetsi zuen administrazioak, eskatutako dokumentazioa —izapide telematikoa— epean ez aurkezteagatik edo eskaera egiteko unean eroldaren betekizuna ez betetzeagatik (pandemian, izapide hori asko zaildu zen). Hala, argi ikusi dugu izapide telematikoa herritarrei arazoak sorrarazten jarraitzen duela eta elkarrengarritasuna, kasu batzuetan, erronka nabaria dela oraindik ere Euskadiko administrazioarako, ez baitu erabateko elkarrengarritasunean aritzea lortu; bada, horrek zama handia ekartzen die administrazioari.

Seme-alabak dauzkaten familientzako laguntzak, dekretu berriaren babespean izapidetu direnak eta, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak emandako informazioaren arabera, kopuru handietara iritsi direnak, ez dira kexen xede izan.

b. Familia-kontziliaziorako neurriekin lotutako arazoak

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak *familia-kontziliaziorako ematen dituen dirulaguntzekin* lotutako kexetan, batez ere, aurreko puntuan aipatutako arazoa egon da muinean; hots, administrazioak elkarrengarean aritzeko dituen mugak (txosten orokorraren II.13 kapituluaren zabal hitz egin dugu gai horri buruz). Adibide argia dugu Kotizazio-datuei buruzko txostena; bertan, aita edo ama izateagatik baliatutako atsedenei buruzko informazioa jasotzen da, kontziliaziorako laguntzak emateko erabakigarria.

Bestalde, kexa batzuen jatorrian akats aritmetiko bat egon da; halere, espeditenteak berrikusi dizkiete, eta laguntzak esleitu.

Kontziliaziorako laguntza ekonomikoei buruzko kexez gainera, aurreko edizioetan bezalaxe, herritarrak ez ziren konforme egon *gurasoentzako baimen* batzuekin (*jaiotza eta edoskitzea*). Hazkuntzan laguntzeko neurri horien arauak autonomia-eskumenetik harago doanez, euskal administrazio publikoen zerbitzura daudenen kasuak bakarrik izapidetu genituen.

Jasotako bi kexa amatasun- edo aitatasun-egoeran zeuden pertsonen aldi baterako premiak betetzeko deitu izanari buruzkoak izan ziren. Lehenengoa, txosten orokorraren II.9.2.2 atalean xehetasunez azaldu genuena eta [2023ko otsailaren 21eko Ebazpenaren](#) xede izan zena, amatasun-baimena zuen pertsona bati lanaldi heren osagarri bat ez metatzeari buruzkoa zen. Bigarrenean, Hezkuntza Sailak kaltetutako pertsonaren uzia onartu zuen azkenean, zeinari hasiera batean ez baitzion kontratua hobetzen utzi, aitatasun-baimena zuelako.

Berriz ere erregistratu ziren unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako hautaketa-prozesuetan adingabeak zaintzeagatiko aldi baterako eteteak zerbitzu gisa zenbatzen ez zaizkien pertsonen kexak; horrek, aurreko txostenetan adierazten zenez, figura bera zalantzan jartzen du, behin-behinekotasunean oinarritutako tratamendu bereizia delako, eta, gainera, kontra egin liezaioke [Berdintasun Legeari](#), zeinak aurreikusten baitu amatasuna eta aitatasuna babesten dituzten edo kontziliazioa errazten duten baimenek hartzen duten denbora lanbide-esperientzia gisa baloratzea.

[2023ko apirilaren 17ko Ebazpenean](#), Arartekoak Hezkuntza Sailari gomendatu zion, halaber, hautaketa-prozesuetako probak egiten diren bitartean edoskitzeko erabilitako denbora berreskuratzeko aukera izan dadila, egoera horretan dagoen pertsona bakoitzarentzat hasieran aurreikusitako amaiera-ordua luzatuz.

Azkenik, *familia eta lana uztartzeari* dagokionez, Eusko Jaurlaritzako langile baten kexa bat aztertu zen; langile hori ez zegoen ados administrazio horrek 17:30ean ezarria zuelako laneko irteeraren muga, eta horrek ordutegiaren malgutasunerako eta, beraz, familia eta lana uztartzeko aukerak murrizten zituen. Era berean, unibertsitatez kanpoko irakasleen esparruan familia eta lana uztartu ahal izateko lanaldia malgutzeko edo ordutegia egokitzeko eskatu zuten pertsonen kexak eta kontsultak ere aztertu ziren.

Erakunde honentzat, eskaera horien ebazpenak ezin du alde batera utzi araudiak eta auzitegiek figura horiei esleitzen dieten posizio garrantzitsua, eta horrek esan nahi du azterketa sakon, objektibo eta behar bezain arrazoitua egin beharko dela, eskatzailearen berezko inguruabarrak eta administrazioaren antolaketa-premiak aztertzeke. Ildo horretan, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du dauden antolaketa-aukerak agortzea, aurreikus daitezkeen egoerak aldeztetik planifikatuz eta aldaketa egokiak eginez gainerako taldeen edo zerbitzuen ordutegietan, eskubidea baliatzea baimentzeaz harago zerbitzu publikoa ere bermatzeko. Ikuspegi horretatik, ezespren-erantzun bat onartzeko ezinbestekoa izango da modu justifikatuan eta objektiboan egiaztatzea eskaera onartzea eragozten duten antolamendu-zailtasunak, eta, betiere, berariaz jasotzea zein diren eskaera onartzea eragozten duten elementuak.

c. Hazkuntzari laguntzeko zerbitzuak. Haur-eskolak, 0-3 urte

2023an, era berean, *Haurreskolak Partzuergoaren* mendeko haur-eskolen inguruko jarduketa nabarmendu behar du. Izan ere, aurreko urteekin alderatuta, kexen kopuruak gora egin du, eskaria handitu delako eta gero eta familia gehiagok jaso nahi dituztelako zerbitzuok, doakotasuna ziurtatzeko konpromisoa dela-eta.

Interesa handitu izanaren ondorioz, udalekin lan egiteko konpromisoa hartu zuen Partzuergoak; izan ere, ikasturte honetan eskaintako toki-kopurua ez zen nahikoa izan (batez ere, Bilbon eta Donostian), eta, beraz, kopuru hori handitu behar da. Familia interesdunek, halaber, zalantzan jarri

zizuten programazioa eta ordutegiaren zurruntasuna, horrek familia eta lana bateragarri egitea zailtzen zuela argudiatuz. Partzuergoa zabalik agertu zen familien eskaerak aintzat hartzeko, eta ez zuen baztertu hasiera batean finkatutako ordutegiak egokitzeko aukera.

Partzuergoaren jarrera hori beste kexa batzuetan ere islatu zen, haur-eskoletan haurrak onartzeko irizpideen artean guraso bakarreko familien kondizioa espezifikoki kontuan hartzeari buruzkoak.

Kexa horiek izapidetzean, Arartekoak aintzat hartu zuen Haurreskolak Partzuergoak prestasun berezia erakutsi zuela guraso bakarreko familietako haurrei sarbidea errazteko. Horren erakusgarri da familia horiek gurasoen eta/edo tutoreen lan-egoeraren inguruko edo familia-unitatearen urteko errentaren inguruko irizpideak aplikatzean jasotzen duten tratua. Halaber, azpimarratu beharra du guraso bakarreko familietako haurrak haur-eskoletara joan daitezkeela gurasoek gurasotasun-baimena izan bitartean edo eszedentzia-egoeran egon bitartean, baita horregatik laguntza ekonomikoa jasotzen badute ere. Hala ere, Arartekoak pentsatu zuen bestelako ikuspegia erabili behar zela kexa horiek ondo joratzeko.

Denok dakigu Partzuergoaren mendeko haur-eskoletan haurrak onartzeko prozesua ez dela Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesu bera. Hala eta guztiz ere, Zuzendaritza Batzordeak azken urteotan ezarritako irizpideak ahalik eta gehien hurbildu dira bi urtetik gorako ikasleak oro har onartzeko xedatu direnetara.

EAEn, aipatutako azken irizpideak (Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan bi urtetik gorako ikasleak onartzeko aplikatzen direnak) ikasleak onartzeari eta eskolatzeari buruzko [urtarilaren 9ko 1/2018 Dekretuaren](#) bidez ezarri ziren, zeina [azaroaren 2ko 132/2022 Dekretuaren](#) bidez aldatu baitzen. Adierazitako azken dekretuan berariaz adierazi zen guraso bakarreko familiako kide izatea aintzat hartuko zela plaza nahikorik ez egotekotan, bat etorri Hezkuntzari buruzko [maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren](#) 84.2 artikuluan ezarritako oinarriko arauekin.

Esku-hartzea zehazteko orduan, Arartekoak bazekien, familia kexagileei emandako erantzun batzuegatik, Partzuergoko gerentzia prest zegoela hurrengo ikasturteetara begira haur-eskoletan haurrak onartzeko irizpideak eta araudia aldatzeko. Hori dela eta, erakunde honek azpimarratu egin zuen bi urtetik gorako ikasleak onartzeko ezarritako dauden lehentasuneko irizpide berberak aplikatu nahi izatekotan Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak aintzat hartu beharko zuela guraso bakarreko familia izateko kondizioa haur-eskoletan ikasleak onartzeko irizpideen artean. Esku-hartze horren ondorioz, Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak 2023ko ekainaren 29ko bileran erabaki zuen 2024-2025eko ikasturterako onarpen-araudian sartzea guraso bakarreko familiei esleituko zaien puntuazio-baremoa.

Haurreskolak Partzuergoak jarrera ona erakutsi zuen familiek jarritako keketan ikusitako gabeziak konpontzeko; hori agerian geratu zen kasu batean jada administrazioaren esku zegoen dokumentazioa aurkeztu zenean. Arartekoak esku hartu ondoren, Partzuergoak alta eskatu zuen Estatuko Administrazio Orokorrekin datu elektronikoa kontsultatu eta trukatzeko zerbitzuan, Eusko Jaurlaritzak sortutako elkarreragingarritasun-nodo baten bidez (NISAE) funtzionatzen duena.

d. Familia ugariak

2023an, zenbait herritarrek adierazi zuten ez zeudela pozik familientzako laguntzen araudia gaur egungo gizarte-testuingurura egokitzeko atzerapenak zeudelako, esate baterako, bikotea izateko bikote gisa erregistratuta ez badago edo ezkondua ez badago aitorten hori jasotzeko ezintasunari dagokionez. Gainera, berrosatutako familia ugarien kasuan, Euskadin indarrean diren irizpideei buruzko kexak jaso ditugu, bai titulua urtero txandakatzeari dagokionez, bai familia ugariaren titulua izapidetzeko (titulua lortzeko edo berritzeko) zailtasunari dagokionez.

Arartekoak [gomendio](#) bat eman zuen berrosatutako familia batek jarritako kexaren inguruan. Jatorrizko familian seme bakarra zegoen, baina, berrosatutako familian, hiru (aurreko bikotekidearekin izandakoa gehi familia-eraketa berriko biak), eta Arartekoak Arabako Foru Aldundiari eskatu zion kasu horiei tituluaren urteko txandaketaren irizpidea ez aplikatzeko; izan ere, berrosatutako familiak bakarrik dauka aitortuta familia ugariaren kondizioa, eta, beraz, titulua urtero txandakatzeko ez dauka zentzurik.

Tituluen izapideari buruzko problematika hori eta beste batzuk aztertzeko, urtearen amaieran lantalde bat osatu zen Hirukide-Euskadiko Familia Ugarien Elkarleen Federazioaren eta Arartekoaren artean, 2024an garatuko den plan batekin eta gaur egungo familien premiei egokiago erantzungo dieten irizpideak proposatzeko helburuz.

Aipatzekoa da, halaber, Familien Legearen proiektuaren egoerari buruzko kontsultak jaso ditugula; izan ere, proiektua onetsi gabe desegin ziren Gorteak, eta ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretua argitaratu da, lege-proiektuaren edukiaren zati batekin.

e. Gurasoak bananduta dauzkaten familiak

Guraso bananduek edo dibortziatuek zailtasunak izaten dituzte seme-alaben egunerokotasuneko alderdi ugari kudeatzeko, baina, gizartean familia-mota desberdinak gero eta normalizatuago daudenez eta administrazioak familien egoera berritik (non bi gurasoek seme-alaben guraso-ahala duten, baina zaintzak eta komunikazio-araubideak hainbat forma hartzen dituzten) eratorritako arazoak konpontzeko arauak, instrukzioak eta jarduteko jarraibideak atondu dituenaz, zailtasunak konpontzen joan dira urteekin. Arartekoak ikusi du arazo horietako batzuk oraindik ere badaudela, eta, batzuetan, esku-hartzean zehar konpontzen direla. Ez zen hori gertatu [Arartekoaren 2023ko abenduaren](#)

[11ko Ebazpenean](#) aztertu genuen kasuan, zaintza partekatua duten bikote bananduek edo dibortziatuek errentamendu-araubideko *etxebizitza babestua eskuratzeari* buruzkoa.

Azaldutako kasuan, kexagilea babes publikoko etxebizitza bat esleitzeko prozeduratik kanpo geratu zen, egiaztatu baitzen ondasun higiezin baten titularkidea zela, nahiz eta higiezin hori soilik txandaka baliatu ahal izan, bi ezkontideek hitzarmen arautzailean hala adostu baitzuten, eta epaileak berretsi habia-etxea deritzon sistema hori. Hau da, senar-emazte ohiek adostu zuten alabak familia-etxebizitzan bizi behar zirela modu iraunkorrean, eta, beraz, gurasoak ditugu astero-astero etxebizitzaren erabileran txandakatzen direnak.

Azaldutako egitea ikusita, Arartekoak azpimarratu zuen, bikoteak edo ezkontzak hausten diren prozeduretan, familia-etxebizitza esleitzen ez zaion ezkontide jabekideak egiaztatuta daukala etxebizitza-premia, eta horrek, zentzu hertsian, aukera eman beharko liokeela Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan sartzeko eta, hala badagokio, babes publikoko etxebizitza baten onuradun izateko.

Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako informazioaren arabera, aukera hori ez da aplikagarria bikoteak zaintza eta jagoletza partekatuko araubidea hitzartu duen kasuetan, izatez, etxebizitza erkidea edo familia-etxebizitza txandaka erabiltzen baitute.

Testuinguru horretan, Arartekoaren iritziz, etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistroan sartzeko araudia egungo egoera horietara ere egokitu behar da. Horrenbestez, beharrezko neurriak hartzeko gomendioa egin zuen, zaintza partekatua duten eta familia-etxebizitza txandaka erabiltzen duten bikoteetako kideek ere babes publikoko etxebizitza errentamendu-araubidean eskuratu ahal izan dezaten, berariazko etxebizitza-premia dutela egiaztaturik baitago. Tamalez, Sailak ez zituen onartu igorritako gogoetak, eta berretsi egin zuen gizatalde horrek parte hartzeko eskaerak baztertzeko erabakia.

Era berean, beren bikotekide ohiekin harreman zailak edo gatazkatsuak dituzten guraso banandu edo dibortziatuen kexak eta kontsultak iristen dira, eta, horietan, mantenu-pentsioekin, seme-alabei arreta ematen dieten zerbitzuek eman beharreko informazioarekin, seme-alabekin komunikatzeko araubidea oztopatzearekin eta abarrekin lotutako arazoak planteatzen dira. Kexagileak Arartekoak erantzun diezaiokeen orientabide bat eskatzen duenean, hura ebazten da. Hala ere, ohikoagoa da kexak dagoeneko judizializatuta dauden gaiei buruzkoak izatea, eta horrek Arartekoak esku hartzea eragozten du.

Multzo honetan, kexarik ohikoenak *epaileak agindutako familia-elkarguneei* buruzkoak dira, gune horien helburua baita seme-alabek bi gurasoekin harremana edukitzeko duten eskubidea betetzen laguntzea, adostasunik gabeko banantzeen testuinguruetan.

Aurten ere, ia kexa guztiak lotuta zeuden zerbitzu publiko horiek epaileek baloratzeko ematen dituzten txostenen edukiarekin. Autu horretan, Arartekoak aholku eman behar izan zien kexagileei ildo honetan: txosten horien administrazio-organo batek ematen baditu ere, txosten horien baliozkotasunari eta koherentziari buruzko erabakia hartzea txosten horiek eskatu dituen agintaritzaren judizialari dagokio, eta, beraz, epaitegiak ebazten du bisitak Familia Elkargunean egin behar direla. Horren ondorioz, organo horri helarazten zaizkio txostenak, agintaritzaren judizialak balora ditzan, alderdiek prozedura judizialean frogak aurkezteko duten sistemak ez bezala. Beraz, ez Arartekoak, ez beste ezein erakundeek ez dute balorazio horretan esku hartzeko ahalmenik, legeak botere judizialari era eskusiboan esleitzen dizkion eginkizunen artean baitago.

Zerbitzu horien egoerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzarekin izandako bileran, Arartekoak Irungo Familia Elkargunearen (antena) inaugurazioaren berri izan zuen. Horrek Donostiakoa arintzen lagundu beharko luke. Bestalde, Barakaldoko eta Portugaleteko Familia Elkarguneetan bisitak hasteko atzerapena (itxaron-zerrenda) egon dela jakin zuen. Halaber, jakinarazi ziguten dekretu berriaren proiektuan lanean ari direla zerbitzua eguneratzeko, erabiltzen ez diren prestazioak ezabatuz eta egungo errealitateari eta premietara hobeto egokituko den zerbitzu bat ezartzeko. Ildo horretan, eta esku-hartzeari dagokionez, bisitei hezkuntza-osagai handiagoa eman nahi zaie.

2.5. Osasunerako eskubidea

2.4. artikulua

1. *Haurraren eskubidea da osasun-mailarik altuena izatea eta gaixotasunak zaintzeko eta osasuna errehabilitatzeko zerbitzuak erabiltzea. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute eta haur guztiak eskubide hori izateko eta zerbitzu horiek gozatzeko aukera izan dezaten lan egingo dute.*

2.5.1. Testuinguru arauemailea eta soziala

Estatu-mailan, nabarmendu behar da [1/2023 Lege Organikoa](#) onartu dela, *sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko 2/2010 Lege Organikoa* aldatzen duena. Lege horrek berrezarri egiten du 16 eta 18 urte bitarteko emakumeek beren gurasoen eta tutoreen baimenik gabe haurdunaldia etetea duten eskubidea (irailaren 21eko 11/2015 Lege Organikoa aldatu zuen, haurdunaldia borondatez etetea dela-eta emakume adingabeen eta gaitasuna judizialki aldatu duten emakumeen babesa indartzeari buruzkoak), eta, gainera, sexu- eta hileko-osasunaren zaintzan, prebentzioan eta tratamenduan arreta jartzen du.

Aipatu beharrekoa da, halaber, [SND/726/2023 Agindua](#), [uztailaren 4koa](#), Ministro Kontseiluaren 2023ko uztailearen 4ko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez,

COVID-19ak eragindako osasun-krisiko egoera amaitu zela adierazi zen.

Autonomia-erkidegoan, 2023ko berri nagusia [Euskadiko Osasun Publikoari buruzko azaroaren 30eko 13/2023 Legea](#) onetsi izana izan zen. Lege horrek osasun publikoaren kontzeptua bera eguneratzen du, eta, besteak beste, “osasuna politika guztietan” estrategia eta osasun-determinatzaileen (pertsonak jaiotzen, lan egiten, bizi eta zahartzen diren baldintzak, eguneroko bizitzako baldintzetan eragiten duten indar eta sistemen multzo zabala barne hartuta) ikuspegia hartu nahi ditu.

Garrantzitsua izan zen, halaber, [2023ko abenduaren 19ko Erabakia](#), Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, zeinaren bidez nazionalitate-betekizunetik salbuesten baitira fakultatibo medikoen eta erizainen kategoriak / lanpostu funtzionalak, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak deitzen dituen aldi baterako hautaketako prozesuetan, premiaz betetzeko behar objektiboa dela-eta.

2.5.2. Euskal osasun-sistemaren inguruko kexak

2023an, haur eta nerabeentzako osasun-arretarekin lotutako gaiei buruzko kexa eta kontsultetan gehien aipatu den gaia *euskal osasun-sistemaren tentsio-egoerarekin* lotuta egon zen, batez ere lehen mailako arretari eta arreta espezializatuari dagokienez. Osasun-zentro batzuetan osasun-langile nahikorik ez egoteari buruzko kexez ari gara; zehazki, familia-mediku eta pediatra nahikorik ez daudela diotenak. Mediku falta horren ondorioz, aurrez aurreko eta telefono bidezko hitzorduak esleitzeko epeak luzatu egiten dira, eta erabiltzaileek Etengabeko Arreta Guneetara (EAG) joan behar izaten dute urteko garai jakin batzuetan.

laz adierazi genuen bezala, egoera horrek faktore anitz dauka atzean, baina tartean diren agente guztiek bat egiten dute baieztatzean COVID-19aren pandemiak aurretiko egoera larriagotu zuela; bada, aurretiko egoera hori kaskarra zen jada, familia-medikuntzako eta pediatriako espezialitateen etorkizuneko premiak ez zirelako nahikoa planifikatu, laguntza-maila horri aitorzarik egiten ez zaiolako, osasun-langileak hornitu eta atxikitze zailtasunak daudelako eta biztanleak gutxika zahartzen ari direlako eta, ondorioz, gaixotasun kronikoak gora egiten ari direlako.

Bigarren mailako arretari edo arreta espezializatuari dagokionez, kexek adierazten zuten lehen kontsultak eta jarraipen-kontsultak esleitzeko igarotako denbora gehiegizkoa zela, eta horren atzean hainbat espezialitate medikotan (baita “pediatrikoetan” ere) profesional nahikorik ez egotea zegoela. Aurreko atalean aipatutako abenduaren 19ko Erabakiak eta mediku espezialisten eta erkidegoz kanpoko erizaintzako langileen plazak betetzeko urtarriko lehen egunetako deialdiak hutsune horri erantzuten diote.

2023an, atzerritarrek *osasun-arreta jasotzeko* dituzten zailtasunekin lotutako kexa batzuk jasotzen jarraitu zen; kasu batzuetan, emakume haurdunei eta adingabeei buruzkoak izan ziren. Kexa horiek batez ere azpimarratzen zutenez, osasun-zentroetako harrera-zerbitzuek eragozpen administratiboak jartzen dituzte, edo uko egiten diote osasun-laguntzaren eskaerak edota Osasuna Babesteko Programan onartzeko eskaerak izapidetzeari, eta ez da osasun-zentroetako larrialdietan emandako arreta osatzen. Nolanahi ere, atzerriko jatorria daukaten eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen integrazio soziosanitarioan lanean ari diren elkarteek zein Arartekoak berak egindako kudeaketek konpondu egin zituzten sortutako arazoak, nahiz eta aztertutako prozeduretan hobetzeko tartea antzeman den.

Era berean, 2023an *osasun mentalekin* lotutako arazoak errepikatu ziren. Horien artean, berriz ere nabarmentzekoak dira elikadura-portaeraren nahasmenduak dauzkatenen laguntza-premien inguruan, haurren eta gazteen nahasmendu larrietan espezializatutako egonaldi ertain eta luzeko zentroetara deribatzeke eskaeren inguruan eta patologia dualaren joraketaren inguruan izapidetu ditugun kexak.



Hain zuzen ere, azaroaren 21ean, [Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia \(2023-2028\)](#) aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzaren Osasuneko sailburuak. Nahasmendu mentalen arreta eta prebentzioa hobetzea du helburu estrategiak, baita osasun mentala sustatzea ere, eta lehenasunezkoztat jotzen ditu elikadura-portaeraren nahasmenduak, haur eta gazteen osasun mentala eta patologia duala. Elikadura-portaeraren nahasmenduen eremuan azpimarratu dute arreta goiztiar trinkoa dela pronostikoa hobetzeko gakoa. Eremuan aurrera egiteko xedez, elikadura-portaeraren nahasmenduetarako unitate espezifikoak jartzea aurreikusi da Arabako eta Barrualde-Galdakaoko ESletako psikiatria-zerbitzuetan, eta psikiatren, psikologo klinikoan eta erizainen plantilla handitu dute, unitateok martxan jartzeko. Haur eta gazteen osasun mentalari dagokionez, 2024an Gipuzkoan haur eta gazteentzako eguneko ospitalean 16 plaza berri sortzea aurreikusi da.

Hala ere, aurreikuspen horiek gauzatzen diren bitartean, oraindik ere familiak dira osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen laguntza eta zaintza gehien ematen dietenak, bereziki haur eta nerabeei. Hala dago jasota [“Buru-osasuneko arazoak dituzten pertsonen familiak EAEn”](#) txostenean. Txosten hori “Buru Osasuna Euskadi”-k (FEDEAFES) egin zuen. Erakunde honetako langileak txosten horren aurkezpena joan ziren.

Espediente banatan, Giza Papilomaren Birusaren aurkako txertoen finantzaketa mutilei zabaltzeko eskatu zen. Horri buruz, adierazi beharra dugu mutikoei txertoa jartzeari buruzko kexa jaso genuen unean kasu hori ez zegoela sartuta [irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren](#) 4.3 artikuluan jasotzen diren kasuen artean (1030/2006 Errege Dekretua, irailaren 15ekoa, Osasun Sistema Nazionalaren Zerbitzu Erkideen Zorroa eta hura gaurkotzeko prozedura ezartzen dituen) eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak arrazoi horrengatik ez zuela gastu hori finantzatzen. Gaixotasun horrek gizonengan eta emakumeengan duen prebalentzia bazter utzirik, kasu batean edo bestean kutsatzearen ondorioak oso desberdinak dira, eta, hain zuzen ere, horrexek eragiten du emakumeen txertaketa modu objektiboan lehenestea.

Eremu soziosanitarioan, oraindik izapidetze-fasean dagoen kexa bat jaso zen, arreta goiztiarreko ordu aitortuen murrizketari buruzkoa. Kexan azaltzen zen mendekotasun-maila arinetik ertainera handitu zela, eta ordu horiek murriztu zituen foru-aginduak ez zuela inolako arrazoirik edo azalpenik jasotzen.

2.6. Haurren eta nerabeen eskubideak justiziarikiko harremanetan

40. artikulua

1. *Lege penalak haustea leporatzen zaion haurrari edo hauste horren errudun izatea salatzen edo deklaratzeko zaionari bere duintasun eta adorea zentzua suspertu behar zaizkio, giza eskubideak eta besteen oinarriko askatasunak errespeta ditzan, eta haurraren adina eta birgizarteratzearen garrantzia gogoan izanik, haurrak gizartearen funtzio konstruktiboa har dezan.*

Adingabeak delitu baten biktimak, lekukoak, susmagarriak izan daitezke, edo delitua egin izana lepora dakieke, edo alderdietako bat izan daitezke prozesu judizial batean, prozesu zibil, penal edo administratiboetan. Kasu horietan guztietan, haurrek eroso eta seguru sentitu behar dute, eraginkortasunez parte hartzeko eta entzunak izateko. (Haurren eskubideei buruzko EBren estrategia).

2.6.1. Testuinguru arauemailea eta soziala

2023an, [apirilaren 27ko 4/2023 Lege Organikoa](#) onartu zen, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa (sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokienez), Prozedura Kriminalaren Legea eta Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa aldatzeko. Lege horrek zuzendu egin zuen, txosten honen interesekoa den aldetik, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko [irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren](#) azken xedapenetako zazpigarrenak sortutako disfuntzioa, hau da, adingabeei, kasu batzuetan, adin nagusikoei baino zigor astunagoak ezartzea.

2.6.2. Haurrak eta nerabeak justizia-administrazioarekin dituzten harremanetan

Nahiz eta judizializatuta dauden gaietan Arartekoak eskumenik ez duen, *Ararteko erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen* 13. artikulua aplikatuz (artikulu horrek eragotzi egiten du jarritako kexa askotan esku hartzea), Arartekoak, beste urte batez, eragile juridikoekin lankidetzan jarraitu zuen 2023an, herritarrei kalterik edo kalte handiagorik ez eragiteko, bere eskumen formaletik kanpoko egiteko on eta kudeaketa informalean bidez.

Urteko lehen seihilekoan, Justizia Administrazioako abokatuen grebek, eta ondoren, maiatzean, justizia-administrazioako funtzionarioen grebek eragin zuzena izan zuten Euskadiko justizia-administrazioaren funtzionamenduan. Milaka epaiketa eten egin ziren, eta jurisdikzio-funtzioaren egikaritzea eta babes judizialerako eskubidea larriki kaltetu ziren. Epaitegietan izandako atzerapenei eta kausa eta espediente judizialak metatzeari lotuta, hainbat kontsulta

eta kexa jaso dira Arartekoan. Horietako batzuetan haurrak zeuden tartean. Eskumenik ez izan arren, eta goian azaldukoaren ildotik, Arartekoak aholkularitza eman zien kexagileei, eta zegokion barruti judizialeko dekanotzan kexa jartzeari eta Estatuko herriaren defendatzaileara helarazteko aukerari buruz informazioa eskaini zien.

Aurten ere, beste kexa batzuek zerikusia izan zuten *erregistro zibiletan izapideak* egitearekin, nahitaezko aurretiazko hitzorduaren sistemaren bidez. Sistema pandemian ezarri zen, baina erregistro zibilak digitalizatzeko eta Estatu osorako erregistro zibil digital bakarra sortzeko DICIREG plataforma digital aitzindaria ezartzeak eragiten dio. Arazo horiekiko kezka handia dago, herritarrei hainbat prozesu garrantzitsutan eragiten baitiete, hala nola Espainiako nazionalitatea lortzean, jaiotza-ziurtagiriak lortzean edo guraso-ahalaren eteteak ohartaraztean. Hori dela eta, Arartekoa sistema horiek Eusko Jaurlaritzan ezartzeko ardura duten pertsonekin bildu zen, eta hautemandako arazoa azaldu zien.

Arazo horien adibidetzat haur errumaniar baten kasua aipa daiteke. Errumaniako kontsulak Arartekora jo zuen Bilboko Erregistro Zibilarekin bitartekaritza-lanak egin zituzala eskatzeko, amaren akatsez amaren ezkongabe-abizenarekin inskribatutako Errumaniako mutiko baten jaiotzako ziurtagiria zuzentzeko; izan ere, ama ezkondata zegoen jadanik, eta, Errumaniako legeen arabera, ezkontzean aitaren abizena hartzen du. Mutikoaren bigarren abizen gisa amaren ezkongabe-abizena agertzen zen, eta ez egungoa; hortaz, kontsulak Errumaniako legeen menpe ezin zuen haurraren Errumaniako pasaporteaz izapidetu, eta horrek babesgabetasuna sortzen zion adingabeari, dokumentaziorik ez zuelako eta herrialdeetik atera eta bidaiatzeko aukerarik ez zuelako. Arartekoaren kudeaketak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak bideratu zituen, eta, arlo horretako lankidetzat instituzionalari esker, jaiotza-ziurtagiri berri bat egin zen, haurraren abizenak zuzenduta. Beraz kontsulak, legezko eskumenak baliatuz, adingabe horri Errumaniako pasaporteaz egiteko prozedura hasi ahal izan zuen.

Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiarekin *bilera* egin genuen, bai azalduko kezka-iturri nagusiak jorrazteko, bai haur eta nerabeen sexu-abusuen kasuetan prozedura judizialean egindako aurrerapausoez hitz egiteko (txosten honen 2.3.6 atalean zehatzago azaldu dira). Hori izan zen, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiarekin izandako bilera jorraztutako gaietako bat, interes komunekeo bestelako gai batzuekin batera, hala nola jokabide-arazoak dituzten eta babesgabe dauden nerabeentzako baliabideak edo guraso-ahalaren etetea Erregistro Zibilean jasotzeko aukera.

2.6.3. Nerabe arau-hausleak eta gazteen justizia-zerbitzuak

2023an ere ez da kexarik jaso legearekin gatazkan dauden nerabeentzako gizarte- eta hezkuntza-baliabideen funtzionamenduari buruz, eta ez da Arartekoari kezkarik sortu dion informaziorik jaso. Nolanahi ere, gazte arau-

hausleei emandako arretaren jarraipen malgua egiten dugu. Horren harira, Eusko Jaurlaritzako Justiziako zuzendariarekin eta Gazteen Justizia Zerbitzuko arduradunarekin bildu ginen, eta Arratia gizarte- eta hezkuntza-baliabidea bisitatu genuen.

Bilera horretan, betearazten ari ziren neurri judizialei buruzko parametro nagusien berri eman zioten Arartekoari. Iruzkun orokorrei begira, besteak beste, argitu nahi dugu Eusko Jaurlaritza ere atxilotzeko aginduaren zain dauden gazteez arduratzen dela errekurtso bat esleitu aurretik. Sistemaren baliabide guztien okupazio-mailari dagokionez, egokitzat jotzen dugu egungo % 75a, hainbat programa egiteko aukera ematen baitu, nahiz eta noizbehinka gainokupazioa egon daitekeen.

Arratia gizarte- eta hezkuntza-baliabidea baliabide espezializatua da, eta seme-alabek gurasoen aurka egindako indarkeriagatik hezkuntza-neurria ezarrita duten neska-mutilentzat (mistoa) da. Bertako arduradunen eta gazteen eskutik, Arartekoko langileek instalazioak ikusi zituzten eta jakin zuten zergatik dagoen delitu-tipologia jakin baterako baliabide bat, a priori Gazteen Justizia Zerbitzuaren esku-hartze filosofiaren aurkako jarduna baita.

2.6.4. Gurasoak espetxean dituzten haurrak eta nerabeak

Bi urte igaro dira Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak espetxe-eskumena bere gain hartu zuenetik, eta Euskadin preso daudenen kexek eta kontsultek nabarmen egin dute gora Arartekoan, baita Euskadin jaio edo errotu arren Estatuko espetxeetan daudenen kexek eta kontsultek ere. Gainera, kexagileen profila aldatu egin da, eta aurrekoei senideak, hurbilekoak eta gizarte-erakundeak gehitu zaizkie.

Gurasoak espetxeratuta dituzten adingabeei buruzko Europako Kontseiluaren CM/REC (2018) 5 Gomendioaren argitan, Arartekoak lanean jarraitzen du, besteak beste, euskal espetxe-sistema berriak bere baitan har dezan haur eta nerabeen eskubideen zeharkako ikuspegia. 2022an eman zen *bizikidetzakomunikazioetara joan daitezkeen seme-alaben inguruko interpretazioari buruzko informazio-zirkularrari* ekimen interesgarriak gehitu zitzaizkion 2023an, hala nola Kuttunak programa sortzea (haurren eta espetxean dauden gurasoen arteko harreman normalizatu errazteko) edo Martuteneko espetxean amen modulua irekitzea. Hala ere, hobetzeko tartea dago, jarraian aipatuko ditugun kexetan ikus daitezkeen bezala.

laz gertatu zen bezala, haur eta nerabeak tartean dauden kexak eta kontsultak bi gairi buruzkoak dira funtsean: alde batetik, familiarekin komunikatzearekin eta bizikidetzarekin lotutakoak, eta, bestetik, espetxe-zigorra euskal espetxeetan betetzeari buruzkoak.

Lehenengo gaiari dagokionez, 2023an Arartekoak ofiziozko jarduketa bat hasi zuen (besteak beste, Euskadiko hiru espetxeak bisitatzeko ekarri zuen), *seme-alaba adingabeak*

tartean direnean espetxean dauden pertsonen eta haien senide eta hurbilekoen arteko *komunikazioei* buruzkoa, eta [Arartekoaren 2023ko urriaren 17ko Ebazpenarekin](#) amaitu zen. Zentro bakoitzeko jardunbideak egiaztatuta, EAEko espetxe-administrazioari honako gomendio hauek egin genizkion: bizikidetzarako komunikazioak emateko irizpideak malgutzea eta homogeneousatzea, horien maiztasuna eta iraupena ahalik eta handiena izan dadin. Hala ere, horrek ez du esan nahi posible denik preso batzuei beste batzuei baino mesede handiagoa egitea; modu arrunt eta orokor gisa jasotzea bizikidetzarako guneko ahozko komunikazioaren modalitatea zein aukera hori 18 urtetik beherako pertsonetara hedatzea, familia-nukleoan 13 urtetik beherako beste pertsona bat egon ala ez gorabehera (muga hori arestian aipatutako zirkularrean jasotzen da); eta komunikazio horiek errazteko zenbait hobekuntza egitea EAEko hiru espetxeetan.

Bigarren multzoko kexei dagokionez, planteatutako gaiak zerikusia zuen seme-alabekin harremana izateko zailtasunarekin (kasu batzuetan, ezintasunarekin), Euskaditik kanpoko espetxeetatik edo espetxeetara lekualdatzeagatik. Ikusiko dugun bezala, espetxe-zigorra euskal espetxeetan betetzeko zailtasunek, horrek familia-harremanak mantentzeko eta guraso-erantzukizunak gauzatzeko dakarren ondorioekin, azpiegitura urrien arazoan dute oinarria.

Alde batetik, EAEko ezin espetxetan erregimen itxiko sailik ez dagoenez, erregimen horren eraginpeko pertsonak lurraldetik kanpoko espetxeetara eraman behar dira, eta horrek zuzeneko eragina du berreziketa- eta birgizarteratze-prozesu indibidualetan eta birsozializatzeko eta familia- eta gizarte-loturak mantentzeko aukeretan. Horregatik, Arartekoak erregimen itxiko sailak sortzeko gomendatu zion Eusko Jaurlaritzari ([Arartekoaren 2023ko otsailaren 27ko Ebazpena](#)), EAEko espetxe-administrazio integral baten helburuan aurrera egiteko. EAEko espetxe-administrazioak gomendioa onartu zuen, eta konpromiso hori espetxe-azpiegituren aurreikuspenean sartu zuen, 2024an Arabako espetxean erregimen itxiko modulu bat irekitzeko.

Bestalde, EAEko espetxeen gainokupazioaren ondorioz (aurreko txostenean ere adierazi zen), EAEko espetxe-administrazioak zenbait neurri hartu zituen, hala nola Estatuko beste espetxe batzuetan dauden presoak bere eskumeneko zentroetara lekualdatzea ukatzea edo EAEn errotuta ez dauden pertsonak Espetxeetako Idazkaritza Nagusiaren beste zentro batzuetara lekualdatzea. Espetxe-administrazioen arteko lekualdaketa ukatzeko, eskumenen eskualdaketa arautzen duten arauetan jasotako legezko irizpideei jarraitzen zaie; horien arabera, helmugako administrazioak aurka egin dezake lekualdaketa horiek bidegabekotzat jotzen baditu edo plazarik ez badago. Jarduketa hori, a priori, zuzenbidearen arabera da. Hala ere, Arartekoak azpimarratu nahi du irizpide zehaztuen arabera objektibatu behar direla kontzeptu juridiko zehaztugabeak, hala nola errotzea, lekualdatzeei dagokionez.

2.7. Jolasteko, atsedean hartzeko eta jarduera artistikoak eta kirol-jarduerak egiteko eskubidea

31. artikulua

1. *Estatu kideek onartzen dute neska-mutil guztiek atsedena hartzeko eta aisialdirako, jolasteko eta beren adinari dagozkion jolas-jardueretan parte hartzeko eskubidea dutela, baita kultura- eta arte-jardueretan parte hartzeko eskubidea ere.*
2. *Estatu kideek errespetatu eta bultzatu egingo dute haurrak bizitza kulturean eta artistikoan parte hartzeko duen eskubidea, eta kultura-, arte-, jolas- eta aisialdi-bizitzan parte hartzeko aukera egokiak eskainiko dizkiote berdintasunaren baldintzapean.*

2.7.1. Eskola-kirola eta aisia hezitzailea

Aurten ere, eskola-kirolaren arloan aurkeztutako kexen ia erdiak zerikusia izan zuen eskola-kirola adin jakin batzuetan multikirolarekin lotzeko betebeharrarekin, Gipuzkoako Aldundiak eskatzen duenaren arabera. Gauza jakina denez, Arartekoak badaki zein garrantzitsua den haurrentzako kirol-teknifikazioaren eskaintza eskola-kirolarekin koordinatuta egotea, eta halaxe jakinarazi die kexagileei. Bada, adin txikietan kirol-modalitateen eta -ibilbideen artean



nolabaiteko oreka lortu nahi da, eta adingabeek bizkorregi kirol bakar bat aukeratu dezaten saihestu nahi da; izan ere, horrek beste kirol batzuk ezagutzeko aukera galarazten du, eta, beraz, ez dute kirola jolas gisa eta balioak ikasteko aukera gisa ulertuko.

Gainerako kexak hainbat gairi buruzkoak dira: eskola-kirolaren sistemaren antolamenduarekiko desadostasunak (zonakatzea, kategoria desberdinetan parte hartzea, etab.), jarduera egiten den kiroldegietako arazoak edo entrenatzaileekin ados ez egotea. Kexa horietako bakar batek ere ez du Arartekoaren ebazpenik ekarri.

Azkenik, elementu komun bat zuten hiru kexa aipatu nahi ditugu. Hiru kexak *udalekuei* buruzkoak ziren, baina kexa bakoitzaren muina desberdina zen, hala nola telematikoki inskribatzeko arazoak, eskaerak kudeatzean haur desgaituei tratu desberdina ematea edo kudeaketan zailtasunak izatea. Kexa horiei dagokienez ere ez zen inolako gomendiorik egin.

2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

2. artikulua

1. *Estatu alderdiek konbentzio honetan adierazitako eskubideak errespetatuko dituzte, eta ziurtatuko dute konbentzio hau aplikatzen zaiela euren jurisdikzioaren mende dauden haurrei, inolako bereizketarik gabe, haurren, gurasoen nahiz euren lege-ordezkarien arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, ezintasun fisikoak, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela.*

2.8.1. Testuinguru arauemailea eta soziala

Europa-mailan, Europako Parlamentuari eta Batzordeari egindako komunikazioa aipatu behar dugu: [Ez dago gorrotoa sortzeko lekurik: Europa gorrotoaren aurka](#). Komunikazio horretan, segurtasun- eta kontrol-neurriekin batera, beste batzuk indartzen dira hezkuntzaren, kulturaren eta kirolaren eremuetan, komunitate eta tradizio desberdinak ulertzeak areagotu egiten baitu aniztasuna eta desberdintasuna bizikidetzarako arrisku gisa aitortu nahi dutenen aurkako erresistentzia.

Estatu-mailan, 2023ko hasieran, transen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko [otsailaren 28ko 4/2023 Legea](#) onartu zen. Lege horren zioen azalpenaren arabera, helburua da “lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen (aurrerantzean, LGTBI) eskubideak garatzea eta bermatzea, diskriminazio-egoerak desagerrarazteko eta Espainian sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero-adierazpena, sexu-ezaugarriak eta familia-aniztasuna askatasun osoz bizi ahal izateko”.

Legeak adingabeak ere kontuan hartzen ditu, eta artikulua espezifikoak dituzte LGTBI pertsonen berdintasun eraginkorra sustatzeko neurriei dagokienez (familiaren,

haurren eta gazteen eremuko neurriak) eta transexualen berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko neurriak dagokienez; horien artean, nabarmentzekoa da pertsonen sexuari buruzko aipamena erregistroan zuzentzeko eta dokumentuak egokitzeko eskatzeko adin-nagusitasunaren baldintza kentzea. Osasunaren eta hezkuntzaren arloko neurriak ere eragiten diete. Azkenik, LGTBI haurrak eta nerabeak babesteko neurri espezifikoak arautzen dira egoera berezietan (hala nola legezko adingabetasuna) daudenentzako neurri buruzko kapituluan. (Ikus legearen azterketa xeheagoa txosten orokorrean, III.7 kapituluan)

Desgaitasuna duten pertsonen arloan, dokumentu honetan aipatzen den ekitaldia amaitu ondoren baina 2024ko urtarrileko lehen egunetan, txostena idazten ari ginenean, Diputatuen Kongresuaren osoko bilkurak Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua erreforatu adostua onetsi zuen. Konstituzio-testuak “*desgaitasuna duten pertsonak*” aipatuko ditu, terminoak nazioartean daukan adostasunari jarraituz, eta “*urritu*” hitza ezabatuko du. Konstituzioaren erreforatu horrek hizkuntzaren garrantzia aitortuko du eta aurrerapausoa izango da giza eskubideen ikuspegitik, bai eta hizkuntza barneratzaile edo inklusiboaren erabileraren ikuspegitik ere.

Gainera, adierazi behar da erreforatu terminologiaz haratago doala, babes-esparru berria eskaintzen duelako eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak indartzeko dituelako, desgaitasuna duten emakumeentzako eta haurrentzako neurri espezifikoak aintzat hartuta. Irisgarritasun unibertsalaren printzipioa ere berriaz jasoko du erreforatuak, eta politiken eta legeriaren garapenean eragiten duten aldaketa garrantzitsuak txertatuko ditu; horretarako, erakundeak eta desgaitasuna duten pertsonak ere kontuan hartu beharko dira.

Autonomia-erkidegoari dagokionez, Tratu-berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako Euskal Legea idazteko alde zuzeneko edo prestaketako lanak aipatu behar dira. Horietako batzuetan, Arartekoko eta Haur eta Nerabeentzako Bulegoko langileek parte hartu zuten.

2.8.2. Arartekoak diskriminazioari buruz egindako azterlana

Joan den urtearen erdialdean, Arartekoaren ondoko azterlana argitaratu zen: [Diskriminazioa eta diskriminazioaren aurkako politika publikoak EAEn](#). Azterlan horren helburu nagusia da esparru kontzeptual eta juridikoa ezartzea arlo horretan, bai eta euskal administrazio publikoari jardueraren proposamen batzuk egitea ere (ikus txosten orokorrean IV. kapitulua).

Arartekoak uste du, pertsona guztien berdintasuna eta duintasuna juridikoki aitortuta egon arren, oraindik ere euskal gizartearen diskriminazio egoerak badirela, eta horrek zenbait pertsonari edo pertsona-talderi eragotzi egiten diela beren gaitasunekin bat datorren bizi-proiektua garatzea. Baieztapen hori egia da haur eta nerabeen kasuan; izan ere, zenbait kasutan, diskriminazio anizkoitza

edo metatua jasaten dute, beren adingabetasunari etniarekin, jatorriarekin, sexu-joerarekin eta abarrekin lotutako ezaugarriak gehitzen baitzaizkio, eta horientzat ere diskriminazioa jasan dezakete.

Azterlanaren amaierako gomendioek hainbat eremu hartzen dituzte, hala nola bizitza sozialaren alderdi askotan hautemandako arazo konplexu bati tratamendu globala ematearen garrantzia. Alde horretatik, argi dago araugintza- eta antolaketa-neurriak —eta pedagogiari, kontziliazioari eta berrezartzeari buruzkoak— hartu behar direla, eta azterlanak, prestakuntza, prebentzioa eta sentsibilizazioa egin behar direla.

2.8.3. Atzerritarren seme-alabak

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak zuzenean kudeatzen ditu Euskadin ahaiderik ez duten atzerriko gazteei eragiten dieten arazoekin eta beharrek lotuta dauden eta ohiko moduan babesik ez duten umeei zuzendutako foru gizarte-zerbitzuek kudeatzen dituzten kexak. Urtean zehar alor horretan gertatutakoak txosten honetako 2.3 atalean azaldu dira. Hala ere, atzerritarren seme-alabak beste eremu batzuei loturiko kexetan azalduko egoera batzuen protagonista izan dira edo horien eragina jasan dute. Horien berri hemen emango dugu modu laburrean.

Egiaz, esan genezake atzerritar askoren seme-alabek atzerritarren legeriak beraiekin gurasoen gizarteratze-prozesuetarako ezartzen dituen oztopoen eta traben ondorioak sufritzen dituztela, eta, zeharkako moduan, seme-alaben askotariko eskubideen garapenean ere eragina dutela. Zailtasun horiek guztiak xehetasun gehiagorik azaldu dira txosten orokorrean immigrantei buruzko III.6 kapituluan.

Oinarrizko beharrak betetzeko inpaktu handia dutelako bereziki garrantzitsuak dira diru-sarrerak bermatzeko eta etxebizitzarako prestazioak jasotzeko zailtasunak. 2023an jasotako kexen artean, nabarmentzekoa da aljeriarrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) prestazioa lortzeko eta mantentzeko izandako zailtasunak, Aljeriako enbaxadako pasaportea (dokumentu hori ezinbestekoa da identifikatzeko) berritzeko eragozpenengatik. Etxebizitzari dagokionez, Arartekoak helbide egoki bat edo errodan epe jarraituan izena eman izana egiaztatu ezin zuten pertsonen kexak jaso zituen, prestazioak arautzen dituen araudiak, hala nola BGDS edo DSBE, baldintzen artean errolda, benetako bizilekua eta helbide bat egiaztatzea ezartzen baitu. Etorkinen kolektiboak etxebizitza eskuratzeko zailtasunak ditu, alokairuen merkatu pribatuan, zeinak bertoko biztanleak nahiz etorkinak elikatzen baititu, mesfidantza eta diskriminazioa dagoelako, eta etxebizitza-parkearen egoeratik, dagokion atalean adierazi dugun bezala.

Eskola-segregazioak oraindik ere kezkatzen gaitu; izan ere, azken txostenek, Euskadi jatorriagatik bigarren hezkuntzako eskola-segregazioaren buruan kokatzen dute, Estatuko gainerako lurraldeekin alderatuta. Txosten honetako hezkuntzari buruzko atalean (2.2.2) jasota

dago Hezkuntza Sailari 2023an egindako gomendia. Bertan, Sailari gomendatu genion *erlijio islamikoaren* irakaskuntzarekin lotutako neurriak hartzeko, bere garaian “Islamaren adiskideak” elkarteak eta beste pertsona partikular batzuek jarritako kexen ondorioz (ikus 2022ko txostena), laikotasuna defendatzen duten hezkuntza-proiektuak dituzten zenbait ikastetxeren praktikak oztopatzailetzat jotzen zituztelako.

Osasunerako eskubideari dagokionez, jada aipatu ditugu ume batzuek osasun-arreta jasotzeko izaten dituzten arazo puntual baina errepikakorrek, zeinak osasun-administrazioak azkar zuzendu baitzituen.

Beste urte batzuetan bezala, Arartekoak Herriaren Defendatzailearen Bulegoari bidali zizkion nazionalitate espainiarraren eskaerak ebazteko atzerapenari edo kontsulatueta hitzorduak lortzeko zailtasunei buruzko kexak, baita oinarriko ordainketa-kontu bat irekitzea ukatzeari buruzkoak ere. Horiei dagokienez, administrazio eskudunarekin hainbat esku-hartze egiten ari da, eta arazo horri buruzko ezohiko txosten bat idazten.

2.8.4. Desgaitasunen bat daukaten haurrak eta nerabeak

2023an, desgaitasunen bat daukaten haurrek eta nerabeek zailtasunak izan zituzten egoeraren batean; egoera horiek txosten honen aurreko kapitulueta dagoeneko aipatu ditugu. Hala, hezkuntzarako eskubideari buruzko atalean (II.2.2), beharrezko baliabideak (giza baliabideak zein baliabide materialak) ez emateari edo berandu emateari buruzko gaiak jaso dira.

Desgaitasuna duten pertsonak garraiatzeari dagokionez, adingabeei soilik eragiten ez badie ere, hiriarteko autobusetan sartzeko arazoak errepikatu ziren (plataformarik gabeko autobusak, txartela erosteko unean hala eskatu arren; erreserbatutako plaza nahikorik ez egotea, plataformek behar bezala ez funtzionatzea). Halaber, Bilboko metroko hainbat geltokitan irisgarritasun-arazoak egon ziren, baita Euskal Trenbide Sarearen mendeko geralekuetan eta geltokietan ere (ikus txosten orokorreko III.03 kapitulua).

Garraioarekin lotuta dago, halaber, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularrek zamaletarako erreserbatutako guneetan gelditu edo aparkatzeko duten eskubideari buruz aurkeztutako kexa. Jarduketa horri amaiera emateko Arartekoaren ebazpena 2024ko lehen egunetan argitaratuko dela aurreikusten da.

Txosten orokorraren Hirigintza atalean (II.15 kapitulua) jasota dagoenez, oraindik ere kexak aurkeztu ziren lehendik dauden eraikinetan igogailua instalatzeak dakartzan hirigintza-arazoengandik inguruan, igogailua jartzeko xedez proiektuak lurzati edo partzela publiko bat okupatzeko baimena behar duenean.

Jasotako kexekin amaitzeko, Arartekoan jarritako kexa baten ondorioz HABEk dislexia duten pertsonen dagokienez EGA azterketan egindako egokitzapenak aipatu behar dira.

Atal hau ixteko, komunikabideetan agertu zen kasu bati dagokionez egindako kudeaketen berri eman nahi dugu; hain zuzen ere, nerabe-talde batek desgaitasuna duen gazte bat jazartzearen ondorioz Zornotzako Udalarekin egindako kudeaketen berri. Arartekoak udal-istantziak gaztearen familiari emandako laguntzei buruz galdetu zuen, bai eta hartutako hezkuntza- eta komunitate-neurriei buruz ere.

2.8.5. LGTBI haurrak eta nerabeak

Hasteko, adierazi behar dugu 2023an ere ez dela LGTBI haur eta nerabeekin lotutako kexa partikularrik jaso. LGTBI pertsonen arloak eta Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak **AMANDA elkarrearekin** (genero-disforia azeleratua duten nerabeen eta neskatuen amen elkartea) egindako bilera da aipatzekoa.

Elkarre horrek planteatutako eskaerak eta arazoak, oro har, nerabezaroan bat-bateko genero-disforia duten nesken amek jasaten dituzten zailtasun eta arazoei buruzkoak izan ziren. Bileran horri buruzko hainbat auzi mahaigaineratu ziren. Hona laburpena:

- Konponbide mediko eta kirurgiko itzulezinen zuzentzerik eza, hasiera azkarreko genero-disforiari (DGIR) erantzuteko, azken hamarkadako lege-garapenen babesean. Elkarteak Arartekoari helarazi zion genero-unitateetako trantsizio-eskaeren hazkunde esponentziala, Euskadiko Gurutzetako Ospitalekoa barne. Elkarteak azpimarratu zuenez, gaur egungo joeraren arabera, 14 eta 17 urte bitarteko neskek DGIR kasuen % 80 dira. Adierazi zutenenez, egungo ereduarekin, nerabearen eskaerarekiko berehalako trantsizio soziala errazten da, eta horrek, erakundearen iritziz, ebakuntza hormonal eta kirurgikoa bizkortzen ditu. Hala ere, zuzentzerik gabe jarduten da, ebakuntza horien eraginak (osasunean ondorio izugarriak eragiten dira, besteak beste antzutasuna) kontuan hartu gabe. Gurutzetako Ospitaleko genero-unitateak emandako arretaren datuak nabarmendu ziren 2011tik 2021era; aldi horretan, grafikoki, eten bat ikusten da 2016/2017 urteetan, Osakidetzaaren datuen arabera. Hala, 2011n, genero-unitate horrek artatutako guztizko biztanleriari dagokionez, % 10 pediatriako biztanleria zen, eta 2021ean adingabeak unitate horretan artatutako guztizko pertsonen % 44 ziren; hazkunde esponentziala da, zeina aipatutako 2016/2017ko tartean ikaragarri igo zen, transexualentzako osasungida aplikatzen hastearekin bat etorriz. Gida hori *Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 14/2012 Legea* garatzen du. Aldi horretan, endokrinologiako kontsultek nabarmen egin zuten gora, psikologiako edo psikiatriako kontsulten kaltetan. Izan ere, Genero Identitateko Unitateak (GIU) osasun mentaleko sare orokorretik kanpo eratu ziren.
- Sare sozialen eginkizun anplifikatzailea: Bestalde, sare sozialak (zehazki, Tik Tok edo Instagram) informazio faltua azkar zabaltzen duten tresnak direla adierazi zuten, eta trantsizioarekin aurrera

jarraitzea erabakitzen duten haurrak edo nerabeak gizartean onartzeko eta goratzeko plataforma gisa funtzionatzen dute.

- Hurbiltasun-eredua versus genero-unitateak, kasu horietan eskumena duen osasun-instantzia gisa: Elkarateak Arartekoari esan zion EAEko 9/2019 Legearekin lotutako zuzenketak aurkeztu zituztela, eta Euskadin Katalunian eta Nafarroan onartu duten hurbiltasun-eredua (vs. genero-unitatea) ezartzeak sortzen dien beldurra azpimarratu zuen. Hurbiltasun-eredu horrek, elkaratearen aburuz, praktikan erakutsi du baieztatu behar diren mekanikoki aplikatzen direla eta, bere estez, ez du aukerarik ematen gaiari modu zabalagoan eta diziplina anitzagoan heltzeko (diziplina mediko gehiagoren inplikazioarekin, besteak beste, psikiatrikoa); aitzitik, elkaratearen iritziz, genero-unitateen eredu batetik abiatuta ikuspegi hori bultzatu beharko litzateke. Elkarateak adierazi zuen nahiago zuela aurretiko osasun-premiei edo ondorezi heltzea, nortasuna eta gorputza adiskidetzeko aukerarik dagoen aztertzeko. Gainera, Arartekoari jakinarazi zioten trantsizioa egin duten nerabeen osasunari buruzko datuek ez dutela hobekuntzarik erakusten, baina ezta okerragotzerik ere. Azkenik, joera-aldaketa baten berri eman zuten: bere garaian trantsizioa tratamenduak arintzen aitzindariak izan ziren herrialdeetan bereziki, une honetan atzera egiten ari dira. Horri buruzko adibide zehatzak eman zituzten, baita hainbat datu eta txosten ere.
- Familiak beldur dira defentsa-erakundeetan kexak aurkezteko. Elkarateak, Estatu osoan ezarrita dagoenak, adierazi zuen familiak beldur direla administrazio publikoen jardueretik desadostasun-kasu zehatzak herriaren defendatzaileetan aurkezteko. Gaur egun, bi kasu daude judizializatuta, eta bat bera ere ez defentsa-erakundeetan. Oro har, adierazi zuten beldur hori dagoela, halaber, administrazio publikoek proposatutakoaren aurka egiteko orduan; izan ere, administrazioek proposatutako abordatzearekin (oro har, baieztakoa) bat ez datozen gurasoak beldur dira horrek ekar ditzakeen ondorioekin (gizarte-zerbitzuetara bideratzea, babesgabetasun-arriskua).
- *Detrantsizio* delakoetarako protokolorik eza: Gainera, adierazi zuten osasun-zerbitzu publikoek ez dutela *detrantsizioa* egiteko protokolorik.
- Prestakuntza espezializatuaren beharra. Azkenik, elkarateak azpimarratu zuen beharrezkoa dela gai horiei buruz ematen den prestakuntza —bai hezkuntzako eta osasuneko profesionalei, bai ikasgeletan— profesional espezializatuak ematea, eta ez trantsizioa egin duten seme-alabak dituzten gurasoek, edo beren esperientzia kontatzen duten pertsonak.

Arartekoak mahaigaineratutako gaiak kontuan hartu zituen, batez ere *detrantsizio* delakoetarako protokolorik eza, gabezia nabarmena dela uste baitu, batez ere trantsizio-prozesurako dauden protokoloen kopuru handia kontuan hartuta. Era berean, konpromisoa hartu zuen deskribatutako

egoera aztertzeko eta elkarateak adierazitako arazoak aintzat hartzeko. Elkarateari Arartekoak arlo horretan esku hartzeko dituen aukerak argitu zitzaizkion, eta azaldu zitzaion aukera horiek banakako kexetan eta kexa zehatzetan oinarrituta hobe antolatzen direla, ereduaren kritika orokor bati erantzuteko baino, haiek proposatu zuten bezala. Hala eta guztiz ere, Europako eta nazioarteko instantzietara bideratu genuen, hala nola Espainian ezarri den eredu juridikoarekiko, hezkuntza-ereduarekiko eta osasun-ereduarekiko kritika orokorragoa egitea ahalbidetzen duten plataformetara, banakako praktikan edo kasuistikan eredu horrekin sor litekeen haurren eta nerabeen eskubideen balizko urraketa kontuan hartuta. Azkenik, Arartekoak konpromisoa hartu zuen bileraren funtsezko edukia Eusko Legebiltzarrarentzako 2023rako urteko txostenean sartzeko.

2.8.6. Ijito herriko haur eta nerabeak

Ijito-herriak diskriminazio sistematikoa jasan izan du luzaroan, denboran iraunkor, eta horrek itzala egin die, belaunaldiz belaunaldi heredatzen den gizarte-bazterketa eta desberdinkeria gisa; hortaz, ez da harrizkoa ijito-familiek Arartekoari helarazten dizkioten kexetan (non, ez dezagun ahaztu, haur ugari egoten baitira) ageri diren premiek aurten ere zerikusia izatea ongizate materialerako eta oinarritzko premien estaldurarako elementu giltzarriekin. Hala, Arartekoak izapidetu dituen kexen edukiak gizarte-inklusioren eta etxebizitzaren arloei eragiten die batez ere (horren guztiaren deskribapen zehatzagoa dago txosten orokorraren III.5 kapituluan).

Txosten orokorraren II.16 kapituluan xehetasunez aztertzen diren lege- eta zuzkidura-aurreikuspenak gorabehera, alokairuko sustapen publikoko etxebizitza bat eskuratzea oraindik ere oso zaila da; 2023an, udal gizarte-zerbitzuek eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak eskaera ugari jaso zituzten horren inguruan. Merkatu pribatuan etxebizitza eskuratzeko diskriminazioari honako arazo hauek gehitu behar zaizkio: birkokatze atzerapenak bizikidetzan kide gehiago egoteagatik edo lehen esleipenerako aukerak mugatzea. Gizarte-zerbitzuek ezohiko prozedurara jotzeko txostenak prestatzeari uko egitearekin lotutako kexa batzuetan ere esku hartu genuen.

Oinarritzko premiak estaltzeko diru-sarrerak bermatzeko sistemari dagokionez, ijito-familien ezaugarri espezifikoak batzuetan ez datoz bat bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari (BGDS), diru-sarrerak bermatzeko errentari (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarriari (EPO) dagozkien prestazio ekonomikoak arautzen dituzten xedapenekin. Arartekoak urteko txostenetan behin eta berriz nabarmendu du prestazio ekonomikoaren araudi erregulatuak eta alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzaren alokairu-kontratuen hizpaketak ez datozela bat ijito-familien kultura-nortasunaren ezaugarri den ikuspegi solidario eta komunitarioarekin. Horren ondorioz, prestazioak eteteko eta azkentzeko joera handiagoa dute, DSBEaren baldintzak edo zenbatekoa betetzeari dagokionez garrantzitsuak diren gertakariak jakinarazteko betebeharra ez betetzeagatik, hala nola familia zabaleko kideen arteko bizikidetzak. Era

berean, beste bizikidetzaren unitate batzuei baino neurri handiagoan eragin die adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzaren unitateetarako ezarritako salbuespenezko bizikidetzaren unitatearen iraupenaren mugapenak; hasieran iraupenari dagokionez eta, ondoren, salbuespenezko bizikidetzaren unitate hori zenbatzen hasteko egunari dagokionez.

Ijitoei bereziki eragiten dien kexatzeko beste arrazoi bat da ezin direla errolda sozialean edo fikziozko erroldan babestu BGDSaren eta DSBEaren onuradun izateko baldintzak egiaztatzean. Arartekoan kexa jarri zuten hainbat ijito-familiek ez zeukaten baliozko helbiderik (etxebizitzaren alokairua berritu ez zitelako edo etxegabetze eta kaleratze judizialaren ondorioz, besteak beste), eta errolda soziala eskatu zuten. Errolda hori, ordea, ukatu egin zitzaion, salbuespenez eta aldi baterako hartu zituen senide baten etxebizitzan benetan bizitzeagatik. Indarrean dagoen araudiaren arabera etxebizitza horretan erroldatzea posible izan arren, ez zuten etxebizitzaren jabearen baimenik, horrek kalte egingo liekeelako kalteberatasun- eta gizarte-bazterketako egoeran zeuden bere senideei. Kexa horien edukiak agerian uzten du ekitate ezeko egoera bat dagoela; izan ere, infraetxe batean edo kalean bizi diren pertsonen errolda soziala eta prestazio ekonomikoak eskura ditzakete, betiere gainerako baldintzak betetzen badituzte. Etxebizitzarik ez duten eta seme-alabak beren kargura dituzten ijito-familiek senideen babesa eskatzen dute, eta senide horiek babesa eskaintzera behartuta sentituko dira, nahiz eta horrek beren egoitza- eta prestazio-egoera arriskuan jarri.

Arau-testuinguruari dagokionez eta Europa-mailan, [Europako Parlamentuaren 2023ko urriaren 4ko Ebazpena](#) da aipatzekoa, haur erromaniak hezkuntzan bereizteari

eta diskriminatzeari buruzkoa. Ebazpenean, Europako Parlamentuak esku-hartze handiagoa eskatu zien Estatuei ikasle ijitoen gizarte-inklusioa, parte-hartzea eta hezkuntzaren hobekuntza eragozten dituzten zenbait oztopo gainditzeko, eta neska ijitoentzako neurri espezifikoak eskatu zituen.

Aurreko paragrafoetan etxebizitzari eta prestazio ekonomikoari buruz aipatutako gai batzuk Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluko kide diren *ijito-elkarteekin* izandako *bileran* ere aipatu ziren. Hezkuntza-arloa ere aipatu zen, eta kezka berezia agertu zuten haur ijitoen emaitza akademikoei buruz, baita eskola-porrotaren arazoari buruz ere. Bilerako parte-hartzaileen iritziz, igoera sozialerako funtsezkoa da ikasle ijito gehiagok goi-mailako hezkuntza-zikloak egitea, eta, beraz, zalantzan jarri zituzten curriculum-egokitzapenak edo lanbide-hastapeneko ikastetxeetara bideratzea. Era berean, salatu zuten ez zitzaizela baliabiderik eman intereseko proiektuak proposatu zituzten ikastetxeei, eta hezkuntza-bokazioa duten eta ijitoekiko aurreiritzirik ez duten irakasleen hutsunea sentitzen zutela.

Gizarte-zerbitzuei dagokienez, egindako txostenen edukia aipatu zuten, ijito-familiei buruzko aurreiritziak eta ezjakintasuna zituztela uste baitzuten; izan ere, ijito-familiek elementu bereizleak dituzte, hala nola familia-testuingurua eta bizikidetzaren unitateen beste eredu batzuk. Era berean, ijito-familiek gizarte-zerbitzuekin eta bulego publikoekin duten mesfidantza aipatu zuten, horrek konfiantzazko harremanak ezartzea zailtzen baitu. Atzerapauso gisa planteatu zuten iraganean egon arren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuan sartu ez ziren kulturarteko bitartekaritzako eta familian esku hartzeko zenbait programa desagertzea.



ENTZUNA IZATEKO ETA BERE IRITZIA KONTUAN HARTUA IZATEKO ESKUBIDEA:

Arartekoko Haur
eta Nerabeen Kontseilua



kapitulua

III. KAPITULUA

ENTZUNA IZATEKO ETA BERE IRITZIAKONTUAN HARTUA IZATEKO ESKUBIDEA: ARARTEKOKO HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA

12. artikulua

1. *Kide diren Estatuak umeari epai propio bat osatzeko moduan egotea bermatuko diote, bere iritzia modu askean adierazteko haurraren eragina duten gai guztietan, eta aintzat hartuko dira haurraren iritzi guztiak bere adinaren eta heldutasunaren arabera.*

13. artikulua

1. *Haurrak adierazpen-askatasuna izango du, muga politikoak kontuan izan gabe; eskubide horren barruan sartuko dira edozein ideia edo informazio bilatu, jaso eta zabaltzea, bai ahoz, idatziz edo inprimakiz, modu artistikoan edo haurrak aukeratzeko duen edozein modutan.*

Haurren Eskubideen Konbentzioak, 1989. urtean onartutakoa **Nazio Batuen** eskutik, aitortu egiten die 18 urtetik beherako pertsonen informazioa eskuratzeko eta parte hartzeko eskubideak, eragiten dieten gai guztietan entzunak izateko eta beren iritzia aintzat hartuak izateko. *Haurrentzat eta nerabeentzat* lan egitea garrantzitsua bada, hein berean edo are garrantzitsuagoa da *haiekin* lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea eta parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea. Horren haritik, 2010ean Arartekoko Haur eta Nerabeen lehenengo Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari aholku ematea zuela, bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan.

Haur eta Nerabeen Kontseiluak neska-mutilen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta bestelakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Erakundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili izan diren (eta aurrerantzean erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri da; halakoak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak egiteko sortutako eztabaida-taldeak, bai eta bizitegi-baliabideetan harrera egin zaien neska-mutilen egindako elkarrizketak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 24 neska-mutilen osatzen dute. Neska-mutil horiek Arartekoak urtero sustatzen duen hautaketa-prozesuan beren “hautagaitza” aurkezten dute edo parte hartzeko barne-dinamikan esperientzia duten hainbat ikastetxek proposatuta izendatzen dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere, Kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoia izatea. Nor bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentzialtasuna bermatzea dira Kontseiluaren funtzionamenduaren oinarriko arauak.



Kontseiluaren ohiko lan-dinamikan, hiruzpalau bilera egiten dira urtean, eta, bilera horietan, gai zehatz bati buruz sakontzen dute, pixkaka-pixkaka. Hala, urtarrilaren 28an, Kontseiluak **Donostian** ekin zion lanari, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Urteko lehen bilera hartan, haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko erakundeak (horien artean Arartekoa) hobetzeko moduari buruzko lehen hausnarketak hasi ziren. Horixe izan da urteko lanaren ardatza. Lehen bilera hartan, ongietorria eman zitzaion aholkulari berriei, ezagutzeko eta talde-kohesioko dinamikak egin ziren, eta haurren eta nerabeen eskubideak zeintzuk diren eta eskubide horiek gauzatzeko oztopo nagusiak zein diren aztertu zen.

Urteko bigarren bilera **Bilbon** egin zen, martxoaren 25ean. Hausnarketari ekiteko, eskubideen munduko egoerari

buruzko begirada globala landu zuten, eta eskubideen urraketarik handienak gertatzen diren munduko tokiei buruzko mapak aztertu eta egin zituzten. Ondoren, urraketa horiek jasaten dituzten haurren eta nerabeen bizitzetan duten eragina aztertu zuten, beren bizitzetan duen eragina ahaztu gabe, eta, amaitzeko, haurren eskubideak defendatzeaz arduratutako erakundeak nolakoak izan beharko liratekeen hausnartu zuten. Azken horri dagokionez, antolamendu-egitura, baliabideak, beharrezko aliantzak eta haurrekin eta nerabeekin komunikatzeko bideak nolakoak izan beharko liratekeen aztertu zuten.

Urteko hirugarren bilera asteburuan egin zen, ekainaren hasieran, **Zarautzen**. Bilera horretan, neska-mutilek haur eta nerabeen eskubideak defendatzeko erakundeen erronkak eta aukerak identifikatu zituzten. Baliabiderik eza, kontzientzia publikorik eza edo erakundeen arteko koordinaziorik eza aipatu zituzten erronka nagusitzat; aukerei dagokionez, haurren eskubideen garrantziari buruzko kontzientzia gero eta handiagoa eta beste erakunde batzuekin aliantzak egiteko aukerak aipatu zituzten. Lana amaitzeko (ikus [txostena](#)), eskubideen defentsarako erakundeek zuzendutako gomendio batzuk eman zituzten. Gomendio horiek Kontseiluak Haurren Defendatzaileen Europako Sarearen ([ENOC](#)) [ENYA](#) (European Network of Young Advisors) proiektuari egindako ekarpena izan ziren (ikus txostenaren IV.1 atala, aurrerago).

ENYA (European Network of Young Advisors - aholkulari gazteen Europako sare) Haurren Defendatzaileen Europako Sareak (ENOC) sustatutako programa bat da, 13 eta 17 urte arteko nerabeek parte hartzeko duten eskubidea bultzatzen duena. Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluak modu aktiboan hartzen du parte programa horretan eta sare horretan, 2017tik.

2023an, gorago adierazi dugun bezala, haurren eskubideak defendatzeko erakundeak hobetzea eta indartzea izan zen landutako gaia, eta, ENYAren esparruan, haurren eskubideak defendatzeko erakunde ikusgarriagoak, irisgarriagoak, parte-hartzaileagoak eta efizienteagoak lortzeko proposamenak landu ziren.

Arartekoaren Kontseiluko bi ordezkari ENYA forumeran joan ziren. 2023an, foruma Maltan egin zen, uztailaren 4an eta 5ean, eta helburutzat izan zuen haurren eskubideen erakunde independenteak indartzeko gomendioak ematea, egindako lanean eragin eraginkorragoa eta oihartzun handiagoa izateko. Andaluziako, Armeniako, Flandriako, Kataluniako, Kroaziako, Zipreko, Estoniako, Euskadiko, Greziako, Islandiako, Italiako, Jerseyko, Luxenburgoko, Maltako, Ipar Irlandako, Poloniako, Eslovakiako eta Eskoziako nerabeek hartu zuten parte. Euskadiko ordezkariak Arartekoaren Kontseiluak 2023ko urtarriletik ekainera bitartean adostutako proposamenak aurkeztu zituzten Maltako bileran.

Ondoren, delegazio bakoitzeko ordezkari bat ENOCen Urteko Biltzerrera joan zen. Bruselan egin zen, irailaren 19an eta 20an. Bertan, Forumean neska-mutilek adostutako gomendioak aurkeztu ziren, sareko 33 kideek azkenean



adostutako adierazpen instituzionalean sartzeko. Horrela, ENYAren partaidetza-lana organikoki txertatu zen ENOC sarearen hausnarketa-prozesu orokorrean.

ENYA proiektuari buruzko informazio guztia [hemen](#) irakur daiteke.

Azaroaren 4an, Haur eta Nerabeen Kontseiluaren urteko azken bilera egin zen **Gasteizen**. Bertan, ENYA forumean eta parte hartutako beste foro batzuetan gertatutakoaren berri eman zen. Horrez gain, eskubideen defentsarako erakundeetarako emandako gomendio orokorrak osatu ziren, eta Arartekoaren Kontseiluari berari hobekuntza-proposamenak egin zitzaizkion.

Urteko lan osoa Arartekoari eta ondokoari aurkeztu zitzaizen, Haurren Nazioarteko egunean (ikus txosten honetako IV.5 atala).

Jardun egonkor horretaz gain, Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseiluak *beste erakunde batzuen ekimenetan* kide guztiekin edo batzuekin parte hartzeko gonbitak jasotzen ditu. 2023an, Kontseilu osoak lagundu zuen Haur Bermearen Euskal Estrategia (2023-2030) egiteko prozesuan (ikus 2.1.1), bai eta herritarrei egindako kontsultetan ere, Arartekoa euskal gazteen jarrera matxistei eta LGTBI pertsonetikiko diskriminazioari buruz egiten ari zen azterlanei dagokionez.

Kontseiluko bi kidek, gainera, Teens Athens Democracy Forum (Teens ADF) proiektu pilotuan parte hartu zuten, Greziako Herriaren Defendatzaileak gonbidatuta. [Athens Democracy Forum \(ADF\)](#) urtero egiten da. Dagoeneko hamaika edizio izan ditu, eta mundu osoko pertsonak biltzen ditu: akademikoak, politikariak, pentsalariak eta ekintzaileak, *demokrazia aurkarietako erresistenteagoa izateko modua* eztabaidatzeko. Foroa Democracy & Culture Foundation-ek (DCF) antolatzen du, The New York Times-ekin batera. Teens Athens Democracy foroa (Teens ADF), bestaldea, nerabeak eta helduak berdintasunean bilduko zituen ekimen berri gisa planteatu zen 2023an, belaunaldien arteko arrakala gainditzen laguntzeko. Greziako Herriaren

Defendatzailearen Haurren Eskubideen Bulegoarekin eta Greziako UNICEFen bulegoarekin lankidetzan antolatu zen, eta proiektu pilotu gisa jardun zuen, ADFren barruan.



Aipamen berezia merezi du Arartekoak Bilbon antolatutako “Gure Ahotsa” topaketan Kontseiluko hiru ordezkariak parte hartu izanak, Defentsa-erakundearen Koordinazio XXXVI. Jardunaldiak prestatzeko bi tailerretako bat (ikus txosten honen IV.2 atala). Topaketa horretan 14 eta 17 urte bitarteko 17 neska-mutilek hartu zuten parte, Estatuko zazpi autonomia-erkidegotatik etorritakoak. Ondorioak, ekarpenak eta egindako lanaren adibide bat aipatutako kapitulu horretan bertan irakur daitezke. Ondoren, Arartekoaren ordezkarietako batek, beste lurralde batzuetako ordezkariekin batera, parte-hartzaile guztiak ordezkatu zituen Bartzelonan azaroan egindako Koordinazio Jardunaldietan.





HAURREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA:

gizartearekiko harremanak eta
erakundeen arteko lankidetzaz



IV.

kapitulua

IV. KAPITULUA

HAURREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA: GIZARTEAREKIKO HARREMANAK ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

42. artikulua

Estatu kideek hitz ematen dute Hitzarmenaren printzipio eta arauak jakinaraziko dizkietela modu eraginkor eta egokietan bai helduei bai eta haurrei ere.

1. Nazioarteko sareetan eta ekitaldietan parte hartzea

1.1. Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC)

Haurrentzako Defentsa-bulegoen Europako Sarea (ENOC, ingelesezko siglen arabera) 1997an sortu zen eta, gaur egun, Europako 33 herrialdeetako haur eta nerabeen eskubideak defendatzeko 43 erakunde osatzen dute; horien artean, 2017tik, Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa dago. Sarearen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ahalik eta modu osatuenean ezar dadin sustatzea.
- Taldeko ekintzari sostengua ematea, Europako herrialdeetako politika publikoetan haur eta nerabeen eskubideak kontuan har daitezela.
- Informazioa, ikuspuntuak eta estrategiak partekatzea.
- Haur eta nerabeentzat eraginkorrak diren bulego burujabeak gara daitezela bultzatzea.

Haurrek eta nerabeek parte hartzeko organoa ere sortu da, ENOC sareari atxikitakoa: [ENYA](#) —European Network of Young Advisors—, ENOCen jardueran haur eta nerabeen partaidetza bultzatzeko. Horrela, haur eta nerabeei aukera ematen zaie entzunak izateko eta beren iritzia eta proposamenak beren herrialdeetatik haratago ezagutarazteko.

Sarea urtean behin biltzar nagusian biltzen da, kideek proposatutako eta adostutako gaiak eta edukiak lantzeko. Urteko biltzarra aprobetxatuz, herriaren defendatzaileek topaketa luzatu egiten dute, eduki horiei buruzko informazioa partekatzeko, elkarriketan aritzeko, eta esperientziak eta gogoetak trukatzeko.

2023an, haurren eta nerabeen eskubideen erakunde independenteek haur eta nerabeen eskubideen babesean eta sustapenean duten zereginari buruz lan egin zen. Arartekoak

haur eta nerabeen eskubideen erakunde independenteek aurre egin beharreko ikuspegiei, estrategiei eta erronkei buruzko [ikerketaz-azterlanaren](#) garapena diseinatu eta gainbegiratu zuen lantaldean parte hartu zuen. Adituek parte hartu zuten. Azterlan hori oinarria izan zen irailean [ENOC sarearen Biltzar Nagusian](#) honako adierazpen instituzional hau onartzeko: “[Haur eta nerabeen eskubideen aldeko erakunde independenteak indartzea eta haien eginkizun paregabea aitortzea](#)”. Arartekoak ENOCen “helduen” arloan egindako lanaren baliokidea da Haurren eta Nerabeen Kontseiluak ENYA proiektuan izandako parte-hartzea (aurreko kapituluaren eman ditugu horren xehetasun gehiago).



Arartekoak, bestalde, bat egin zuen ENOCek [Pilosko kostaldeko naufragioari buruz egindako adierazpenarekin](#), zeinak Europako agintariei eta estatu kideei gogorarazten baitie, bat etorrita giza eskubideen nazioarteko arauekin, haurrei, bakarrik nahiz lagunduta egon, ez zaiela inoiz ukatu behar herrialde batera sartzea.

Sarearen helburuetan aipatu bezala, han parte hartzeak aukera ematen du informazioa, estrategiak eta metodologiak partekatzeko, eta horixe da, hain zuzen ere, bere helburua. Horri lotuta, ohikoa izaten da askotariko gaiak buruzko informazioa eskatzea. Informazioa eskatzen duen erakundearen helburua da datu gehiago izatea hartu beharreko erabakiak baloratzeko edota eman beharreko irizpenak idazteko. 2023an, honako gai hauei buruzko informazio-eskaerei erantzun zitzaizkien: psikologiak giza eskubideen eta justizia sozialaren esparruan duen zeregina (Kroazia); hezkuntzarako sarbidea ospitaleratze-egoeretan (Gales); substantziekin adierazpenak dituzten nerabeen (nahitaezko) tratamendua (Letonia); sexu bereko bikoteek adoptatzea (Estonia); ikastetxeetan mugikorren erabilera arautzea (Eslovakia).

1.2. Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioa

2023an, Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (FIO) Haur eta Nerabeen Sarearen topaketa guztietan parte hartu zuen, baita XXVIII. Biltzar Nagusian eta FIOren XXVII. Kongresuan ere. Bilera horiek, oraingo honetan, Barranquillan (Kolonbia) egin ziren.

Urtean zehar, eta Mexiko Hiriko Giza Eskubideen Batzordeak gidatutako prozesu batean, hainbat lan egin ziren; besteak beste, Sareko haur eta nerabeen topaketak kontzeptualizatzea eta abian jartzea, Sarearen baitako lurraldeetako haur eta nerabeek etorkizunean parte hartzeko espazio egonkor bat (Aholku Kontseilua) sortzea lortzeko asmoz.

Gainera, haur eta nerabe migratzaileei buruzko adierazpena onartu zen, eta Sareko estatuei eta eskualdeei premia eskatu zitzaizen ikasgeletan indarkeria eta eskola-jazarpena murrizteko prebentzio-neurriak diseinatu eta hartzeko. Azkenik, Sarea indartzeko ekintzak garatu ziren.

2. Espainiako beste defendatzaile batzuekin lan egitea haur eta nerabeen eskubideen arloan

Arartekoak urtero parte hartzen du, autonomia-erkidegoko gainerako defentsa-erakundeekin eta Espainiako Herriaren Defendatzailearekin batera, Koordinazio Jardunaldietan, hau da, gai monografiko bati buruzko diagnostiko-lana eta proposamen partekatutak. Prozesu horren bidez, analisi konparatzailea eta hausnarketa partekatua egin nahi da, eskubideei dagokionez, pertsonen bizitza hobetuko duten gomendioak egiteko.

Defentsa-erakundearen Koordinaziorako XXXVI. Jardunaldiak azaroaren 23an eta 24an egin ziren Bartzelonan, Kataluniako Sindica de Greugesek antolatuta. “Haurrak babestea, beraien eskubideak babestuz: defentsa-erakundearen erronka” izenburupean, jardunaldi horietan aztertu zen inplikaturako sistema publikoak zer erantzun ematen ari zaizkien babesgabetasun-arriskuan dauden haur eta nerabeei. Topaketa horrekin amaitu zen defentsa-erakunde guztiek 2023an egindako azterketa- eta diagnostiko-lana, batez ere bi prestaketa-tailerretan oinarrituta.

Lehen prestaketa-lantegia Sevillan izan zen, irailean, Andaluziako Herriaren Defendatzaileak antolatuta. Hala ere, topaketa horretarako, defentsa-erakunde guztiek aurretiazko informazioa eman zuten haurren eta nerabeen arrisku-egoerei buruz, beren lurraldeetako inguruabarrak kontuan hartuta eta aurrez adostutako gidoi bati jarraituz (ikus txosten honen 2.3.3. atala). Tailer horretako ondorioak hemen jaso ziren: “Arrisku-egoerak haurtzaroan eta nerabezaroan: erakunde bermatzaileen azterketa haurren eskubideen ikuspegitik”.



Bigarren prestaketa-lantegia Arartekoaren ekimenez antolatu zen, eta Bilbon egin zen ekainaren amaieran. Topaketaren helburua Koordinazio Jardunaldien esparruan egindako hausnarketari haur eta nerabeen ahotsa gehitzea zen. Haurren eta nerabeen partaidetza eza etengabe agertu da aurreko edizioetan, baita jorratutako gaia berariaz haurren eskubideekin lotuta zegoenean ere (hezkuntza, haur eta gazteen osasun mentala, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak...). Arartekoaren ustez, testuinguru arauemaile, sozial eta politikoarekin bat, defentsa-bulegoetan administrazio publikoek egindako errekerimendu berberak aplikatuz eta kontuan hartuta 2023ko koordinazio-jardunaldien esparruan lantzeko aukeratu zen gaia “adingabeei” buruzkoa zela, bazirudien garaia zela haur eta nerabeen partaidetza sustatzeko espazio bat bultzatzeko, gaiari buruzko beren ahotsa eta iritziak jasotzeko eta hausnarketa- eta eztabaida-prozesu orokorrean txertatzeko. Hala, defentsa-bulegoen koordinazioaren historia luzean lehen aldiz, zazpi defentsa-bulego partaideetako neska-mutilez osatutako talde batek bere iritzia eta ikuspegia azaldu zituen ikerketaren gaiaren gainean. Taldearen ondorioak eta ekarpenak “Gure ahotsa” dokumentuan jasota daude, eta topaketaren bideoan egindako lana ikus daiteke.

Aurreko bi tailer horien ondorioetan eta Bartzelonako topaketan parte hartu zuten adituen ekarpenetan oinarrituta, bildutako defendatzaileen tituluak “[Prevenir para proteger](#)” adierazpena sinatu eta publiko egin zuten.



3. Gizarte-eragileekiko lankidetzaz

Arartekoak eta, dagozkion kontuetan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak, bere ekintza-ildoan artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari, bai haur eta nerabeen eskubideak dibulgatzeko edo defendatzeko, eta bai, askotan, batez ere egoera ahulean dauden adingabeen sektoreentzat diren baliabide jakin batzuk kudeatzeko.

Lankidetzaz-harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan eta abar.

Hona hemen gurekin harremanetan izan diren antolakundeak:

- [Save the Children](#) Euskadi, familiek etxebizitza ordaintzeko dituzten zailtasunei buruzko azterlanean parte hartu genuen.
- UNICEF, Euskal Autonomia Erkidegoa.
- [Hirukide](#), Euskadiko Familia Ugarien Elkarten Federazioa.
- Agintzari gizarte-ekimeneko kooperatiba, haur eta nerabe babesgabeen eremuan.
- [Harresiak Apurtuz](#), [SOS Arrazakeria Gipuzkoa](#) eta Ongi Etorri Errefuxiatuak, haur, nerabe eta gazte atzeritarrei eragiten dieten kontuetan.
- EUSKRANIA, UcrainaSOS, Ukrainako errefuxiatuei emandako erantzunaren esparruan.

- Goizargi Emakumeak, indarkeria matxistaren biktima diren haur eta nerabeei buruzko kexa eta kontsulten esparruan.
- Buru Osasuna Euskadi ([FEDEFES](#)) eta [AVIFES](#), gaixotasun mentala duten pertsonekin lotutako erakundeak.
- AMANDA. Genero-disforia azeleratua duten nerabeen eta neskatuen amen elkartea eta Harro erakundea, LGBTBI pertsonen esparrukoak.
- Ijito Herriaren gizarte-erakundeak.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.
- [EDE fundazioa](#) eta [SIIS](#) (Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua - Eguia Careaga fundazioa), hainbat administrazio publikoren txostenak, diagnostikoak edo azterlanak egiteko lankidetzaz-testuinguruan.

4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzaz

Modu berean, askotarikoak dira erakunde instituzional eta/edo baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzaz aritzeko espazioak eta uneak. Honako hauek izan dira solaskide nagusiak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia.
- Euskadiko Fiskaltza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.
- Hiru foru-aldundietako Gizarte Ekintza / Gizarte Politika / Gizarte Politiketako sailtako haurren zerbitzuko arduradunak.
- Leioako Udala. Gizarte-zerbitzuak.
- Pasaiaiko Udala. Gizarte-zerbitzuak.
- Gasteizko Udala. Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua.
- Zornotzako Udala. Alkatetzaz eta gizarte-zerbitzuak.
- Euskal Herriko Unibertsitatea: parte hartu dugu “Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza” graduondokoa.
- Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide graduoko praktiketako ikasleak.
- Deustuko Unibertsitatea. Gizarte Hezkuntza – Gizarte Lana gradu bikoitzeko praktiketako ikasleak (Psikologia eta Hezkuntzako Fakultatea).



5. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa onartu izanaren oroipena

Nazio Batuen Batzarrak 1989an onetsi zuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren oroipenaren testuinguruan, Arartekoa, Manuel Lezertua, eta haren ondokoa, Inés Ibáñez de Maeztu, Arartekoko Nerabeen Kontseiluarekin bildu ziren, hausnarketak eta urtean zehar egin zuten lanaren emaitza entzun eta partekatzeko.

Europako beste partaidetza-kontseilu batzuek bezalaxe (ikus III. kapitulua), 2023an Kontseiluak sakon aztertu ditu eskubideak defendatzeko erakundeak eta horiek indartzeko beharra, haurren eta nerabeen eskubideak hobeto defendatzeko. Material eta proposamen horiek zuzenean Arartekoarentzat zirenez gero, erabat interesgarria zen “seriotasuna” nabarmentzea, erakundea eta Nerabeen Kontseilua bera [hobetzeko proposamen](#) horiek erakundeko ordezkari nagusiei formalki eskuratuz. Aldi berean, hizketa-gune hurbila eta aberasgarria eratu zen Kontseiluko

neska-mutilen eta Arartekoaren artean. [Bideo labur honetan](#), Arartekoari gomendio horiek emateko ekitaldiaren irudiak eta lekukotzak jaso dira.

Haurren Nazioarteko Eguna ospatzeko eta aldarrikatzeko izaerarekin bat etorriz, Arartekoko Kontseiluko nerabeek ahotsa goratu zuten beren herritartasun aktiboa erakusteko, zeinak konpromisoa baitu haur eta nerabe guztien ongizatearekin eta eskubide-defentsarekin.



HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOAREN 2023KO JARDUKETEN LABURPENA



kapitulua

V. KAPITULUA

HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOAREN 2023KO JARDUKETEN LABURPENA

Kapitulu honetan Arartekoak 2023an aztertutako arazoan eta egindako ekintzen laburpen bat egin da.

2023an, haurren eta nerabeen presentzia edo tartean egotea argi eta garbi aipatu duten herritarrek jarritako **kexen kopuruari** dagokionez, guztira 802 espediente izan ziren, hau da, Arartekoan aurkeztutako kasu guztien % 20,58. Nabarmenezkoa da kexen kopuruak nabarmen egin duela gora 2022tik (553; % 45 gehiago). Hori zuzenean lotuta dago hezkuntza-arloko kexen igoerarekin. Nolanahi ere, zenbaketa orokorra egiteko, alde batek eskatuta bideratu diren kexei erakundearen ekimenez irekitakoak gehitu behar zaizkio. Edizio honetan 13 izan ziren.

Kexa jarri zuen pertsonari dagokionez, 2023an adingabeek aurkeztutako kexak sei izan ziren. Gainerako kexak helduek jarri zituzten (batzuetan, modu kolektiboan), eta tartean haurrak zeuden egoerei buruzkoak izan ziren.

Kexen gaiak dagokionez, aipatu dugun bezala, hezkuntza-arloko gaiak izan ziren ugariak, espediente guztien erdia baino gehiago (% 55,2). Nesken eta mutilen bizitzaren baldintza materialekin lotutakoak % 23 baino zertxobait gehiago izan ziren; ondoren, familiei laguntzeko politikari eta zerbitzuei buruzkoak (% 9) daude. Babesgabatasun-egoeran dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuei buruzko kexak ez ziren % 5era iritsi, eta osasunaren eta arlo soziosanitarioaren esparrukoak eta eskola-kirolari buruzkoak % 2 baino zertxobait gehiago izan ziren. Gainerako arloek (justizia, espetxeraturako pertsonak, segurtasuna, atzerriartasuna...) oso presentzia txikia izan zuten.

Ofizios irekitako espedientei dagokionez, espediente gehienak (10) babesgabe dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuen arloarekin lotuta daude. Hamaikagarrenak *Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorriari* begira 2022an hasitako jarraipena osatu zuten. Gomendioa *Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusu eta -esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideei* buruzkoa da; kasu honetan, haur eta nerabeen kontrako sexu-abusuari ematen zaion erantzuna hobetzeko sistema judizialak egindako jarduketak jaso dira. Beste espediente bat “Arratia” nerabe arau-hausleentzako gizarte- eta hezkuntza-baliabidera egindako bisitaren inguruko jarduketari buruzkoa da, eta azken espedienteak guraso presoek beren seme-alabekin dituzten harremanen egoera aztertzen du.

Umeen eta nerabeen eskubideen inguruan dauden arazoak eta emandako erantzunak aztertuta, honako gaiak nabarmendu behar dira:

1. Entzuna izateko eskubidea. Informazioa izateko eskubidea

2010. urteaz geroztik, Arartekoak Haur eta Nerabeen Kontseilua du martxan, haurrek eta nerabeek parte hartzeko eta haien ahotsa entzuteko organo gisa. Hogeita hamar nerabe inguruk osatzen dute, eta bertan erakunde lantzen ari den gai edo arazoak eztabaidatzen dira, beren iritzia, ikuspegiak eta proposamenak kontuan hartzeko asmoz.

2023an, haurren eskubideak defendatzeko erakundeak hobetzeko eta indartzeko gaia landu zuen Kontseiluak, eta erakunde ikusgarriagoak, irisgarriagoak, parte-hartzaileagoak eta efizienteagoak lortzeko proposamenak egin zituzten. Lanaren ondorioak formalki eman zizkieten Arartekoari eta ondokoari, Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunaren esparruan.

Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sarearen (ENOC) ENYA proiektuaren parte gisa, Kontseiluaren bi ordezkari Maltan egindako ENYA Forumean parte hartu zuten. Bertan, tokiko organo bakoitzak landutako hausnarketak eta proposamenak helarazi zituen. Era berean, Kontseiluak Sarearen urteko biltzarrean parte hartu zuen. Aurten Bruselan egin zen. Europa-mailan, Greziako Herriaren Defendatzaileak gonbidatuta, Kontseiluko bi kidek Teens Athens Democracy Forum proiektu pilotuan parte hartu zuten.

Aipamen berezia merezi du Arartekoak Bilbon antolatutako “Gure Ahotsa” topaketan Kontseiluko hiru ordezkari parte hartu izanak, Defentsa-erakundearen Koordinaziorako XXXVI. Jardunaldiak prestatzeko bi tailerretako bat. Tailer horretan ateratako ondorioak Bartzelonan egindako Koordinazio Jardunaldietan aurkeztu ziren.

2. Bizi-maila egokia izateko eskubidea

Haurren Pobreziaren aurkako Goi Komisarioaren “Haurren pobreziaren kostua Espainian” azterlanak, 2023ko hasieran argitaratuak, haur-pobreziaren eragin ekonomikoa urtean 63.079 milioi eurokoa dela adierazi zuen, 2019ko BPGaren % 5,1. Datu zehatz hori alde batera utzita, txostenaren

ondoriorik nabarmenena honako hau da: “haurren pobrezia handiari eustea bidegabea izateaz gain, ez da batere eraginkorra”. Izan ere, epe luzera, pobrezia prebenitzeko edo pobrezia aurre egiteko ekintzek izan dezaketena baino kostu sozial eta ekonomiko handiagoa dakar. Hartzen diren neurriak, beraz, itzulkin handiko *inbertsio* bihur daitezke, batez ere lehen haurtzarotik hartzen badira, ongizate indibidualaren maila handiagoak lortuz.

Diru-sarrerak bermatzeko politika publikoak, batez ere haurren ikuspegia barne hartzen badute, desabantailaren zikloa hausten lagunduko duten inbertsio-neurri horietako bat izan daitezke. Euskadin, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzen duten bizikidetzak-unitateei buruz emandako datuen arabera, 2023ko abenduaren 31n, 24.823 haur eta nerabe ziren prestazio horren onuradun, Euskadin errolatutako 19 urtetik beherako ia 400.000³ pertsonen % 6,24. Emandako informazioaren arabera, DSBEa jaso zuten bizikidetzak-unitateen % 26,65ek adingabeak zituzten beren kargura; horrek esan nahi du pobrezia gehiago eragiten diela seme-alabak dituzten familiei.

Zifra horiek, ordea, ez dute estutasun materialeko egoeran dauden haurren eta nerabeen kopuru globala islatzen. Alde batetik, emandako datuetan ez dira kontabilizatu bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen duten eta ardurapeko seme-alaba bakoitzagatik prestazioa jasotzen duten bizikidetzak-unitateak, hain zuzen ere familiako haur kopuruagatik DSBEaren zenbatekoa gainditzen dutenak. Bestalde, azterlanek adierazten dute diru-sarrerak bermatzeko sistemak kanpoan uzten duela benetan pobrezia-egoeran dauden familien zati bat.

2023an kekek jaso zituzten gai berriek zerikusia izan zuten *diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren (BGDS) arteko harremanarekin*, zeinaren kudeaketa Lanbidek hartu baitzuen bere gain 2022an. Orain arte arazoa ekarri duen BGDS prestazioa ebazteko atzerapenaz gain, gai horren inguruan jasotako kekek arazo desberdinak mahairatu zituzten.

Lehenengoak BGDSa baliogabetzeari buruzkoa zen, bai eta kalteberatasun ekonomikoaren baldintza ez betetzeagatik bidegabe kobratutako prestazioen ziozko zorra sortzeaz ere.

2023an amaitu zen 2022ko txostenean aipatu genuen arazoaren gaineko esku-hartzea, Lanbidek Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari espedienterik ez bidaltzeari buruzkoa, Lanbideren SMS bat jaso ondoren, beren datuak G SINri lagatzeko baimena eman zioten DSBEaren onuradunek bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskaera izapidetze aldera. Beste kexa-multzo bat atzera egiteko adierazpenei buruzkoa zen, eskabidea ezesten baitzen dokumentu jakin bat ez aurkezteagatik: BGDSaren eskabidea aurkeztu aurreko urteko erroldatze-agiri kolektibo historikoa. Antzemandako azken arazoak zerikusia dauka etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jasotzeko eskubidea galtzeak sorrarazten dituen ondorioekin, BGDS

aitortzen denean eta DSBEaren onuradun izateari uzten zaionean. Horren ondorioz, hartzaileak EPO prestazioaren zenbatekoa itzuli beharko du, eta horrek egoera okerragoa eragingo dio onuradunari, aurreko bi prestazioen (DSBE eta EPO) zenbatekoak BGDSaren zenbatekoa gainditzen duelako.

Aurreko urteetako txostenetan jada aipatu genituelako *ezagunak diren gaiak* dagokienez, hots, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) ukatu, eten eta azkentzeari buruzko kexei dagokienez, Arartekoak apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio orokorra betetzeko beharra berriz azpimarratu zuen, adingabearen interes gorena politika publikoetan eta, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman, aintzat hartzeari buruzkoa. Era berean, Arartekoak aurreko urteetan aipatu du kezka sortzen diola aurreko eta telefono bidezko arretaren orde bide telematikoa erabiltzen hasi izanak; izan ere, horrek, pertsona batzuen kasuan, administrazio publikoekiko komunikazioa zaildu dezake, baita eragotzi ere.

Nolanahi ere, 2023an kexa-espeditente ugari izapidetze-aldian konpondu ziren. Horien artean, azkentze-ebazpenak atzera botatzea nabarmen da, uste baitzen ez zela betetzen eduki ekonomikoko eskubide bat baliatzeko betebeharra, benetako arrazoiak doako laguntza juridikoa ukatzea izan zen kasuetan, edo ukatzeko ebazpen judiziala irmoa ez zelako, edo adostutako gurasoaren eta seme-alaben arteko neurriak jasotzen zituen epaia aurkeztu ezin izan zelako, prozedura bide judizialean zegoelako, amaitzeko.

Etxebizitza duina eta egokia lortzeari dagokionez, jasotako kexen muina errepikatu zen beste urte batez: 1) etxebizitza duina, egokia eta ekonomikoki eskuragarria lortzeko arazoak etxebizitzak ez gainditzearren familia-unitateko pertsona bakoitzeko 15m²-ko ratioa; 2) seme-alabak dituzten familiek eskatutako babes publikoko araubideko etxebizitzaren premia ziozkoa.

Egia da 2023an 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 10. artikulua indargabetu zela. Artikulu horrek atzerritarrei bizileku-baimena indarrean izatea eskatzen zien “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena eman ahal izateko. Neurri hori ondo baloratu den arren, Arartekoak berriz ere azpimarratu nahi du alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitzaren parkea zabaldu behar dela, bai Etxebizitzaren Legean ezarritako erronkei behar bezala aurre egiteko eta bai, aldi berean, denbora pasa ahala esleitutakoa baino etxebizitza handiago bat (edo konfigurazio desberdina duena) alokairuan hartu behar duten errentari publikoen eskaerei erantzuteko; hau da, “etxebizitza-ibilbideen” erregulazio berri bat egin behar da.

3. Hezkuntzarako eskubidea

Euskal hezkuntza-sistematik lotutako kekek nabarmen egin zuten gora 2023an, eta aurreko ekitaldian aurkeztutako bikoitza izan ziren. Azaroaren 2ko 132/2022 Dekretuan jasotako ekitatea bultzatzeko eta segregazioaren aurka borrokatzeko neurriak lehen aldiz jarri ziren abian (bereziki, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak

³ Euskadin, 0-19 urte arteko biztanleen pisua % 18,16 zen 2023ko urtarillaren 1ean, 399.011 pertsona. EUSTATen jasoa. Biztanleen udal estatistika.

dauzkaten ikasleei zaurgarritasun-indizeen arabera plazak gordetzea). Horrek kexa asko ekarri zituen 2023-2024 ikasturterako *ikasleak onartzeko ohiko prozesuarekin* lotuta.

Hasteko, adierazi behar da kexa horiek jaso izanaren ondorioz Arartekoak pedagogia moduko bat egin behar izan zuela neurri horren irismenari eta ondorioei dagokienez. Hala ere, garrantzitsua da esatea Arartekoari ez zitzaioela iruditu kexetan erreserba-neurria bera zalantzan jarri zenik. Egiak, familiak ez ziren konforme agertu erreserba-neurriak ondorio kaltegarriak izan zituelako haien zentzuetan, aurretik egindako hautuak kontuan hartu ez zirelako. Are gehiago, erakunde honentzat oso esanguratsua den kasu batean, Ordiziakoan, Arartekora hainbat aldiz jo zuten interesdunek argi utzi zuten neurria ez zela eraginkorra izan haien ustez, ikasleak modu orekatuagoan banatzea baldin bazen benetako helburua.

Baina, gainera, hezkuntza-administrazioak gainezka egin zuen, modu esponentzian egin zutelako gora lehenetsi gabeko zentroak esleitu zizkieten administrazio-erabakiekin ados ez zeuden familiek jarritako *gora jotzeko errekurtsioek*. Horri buruz, adieraz dezakegu hezkuntza-administrazioak ez zuela *bete-betean aurreikusitako* errekurtsio horiek guztiak izapidetzeak zer inplikazio ekarri zituen ikasleak epe barruan eskolatzeko orduan. Hain zuzen ere, administrazio publikoek errekurtsio mota horiek berariaz ebazteko duten hiru hilabeteko epea izugarri gaitzuta idatzi ziren errekurtsio horien ebazpenak (maiatzean jarri zituzten, eta, adibidez, azaroan ebazti, ikasturtea oso hasita zegoela). Igarotako denbora horiek, zalantzarik gabe, ez zuten balio izan familia kexagileek ikasturtearen hasiera zela-eta zituzten ziurgabetasunak argitzeko, zeinek uste baitzuten zentzuzko epean jasoko zituztela beren nahiei buruzko irizpen administratiboak. Ez dirudi neurri gainezka denik baieztatzea aurrez aurre dugun egoerak hobetzeko tartea duela eta, halaber, erabaki egokiak hartzea bideratuko duen hausnarketa bat egin beharko litzatekeela, interesdunen nahi legitimoen ondo erantzunez kudeatu ahal izan daitezkeen etorkizuneko prozedurak.

Ikasleak onartzeko ohiko epetik kanpo eskolatzeari buruzko kexek ere gora egin zuten. Arartekoaren jarduketari esker, hezkuntza-administrazioak eskolatzeko proposamen batzuk birpentsatu zituen, aurretik ez baitzen kontuan hartu zer hizkuntza-eredu eskatu zuten familiek. Halaber, hezkuntza-administrazioak ikasleentzako *mesederako* ziren ikastetxe-aldaketa batzuk baimentzea lortu genuen, baita anai-arrebak berriz elkartzeko ere.

Neurri berri horien harira, berriro ere aipatu behar ditugu erakunde honek 2022ko txostenean jada aipatu zituen kritikak, *plangintza-estrategia egoki* bat behar zela esaten baitzuten, itunpeko sarean gehiegizko eskaintza sor ez zedin. Hain zuzen ere, Arartekoak 2023an egin zituen jarduketetako batek azken horrekin zeukan zerikusia. Hala, programatutako eskaintza aztertu zuen Arartekoak, EUSTATEN jaiotzei buruzko datuen arabera benetako eskolatzeko-premien % 65 baino gehiago irakaskuntza itunduak eskaintzen zuten udalerrietan.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako informazioa aintzat hartuta egindako azterlanean

ondorioztatu genuenez, salatu zen gaineskaintza, egiak, familien eskariaren isla baino ez zen. Hori dela eta, erakunde honek berriro ekarri nahi du gogora, nahiz eta ikastetxea aske hautatzeko eskubidea dagoen, hezkuntza-administrazioak ez duela ezinbestez ase behar familiek hautatutakoa. Ikastetxea aske hautatzeko eskubidea hezkuntza-plangintzaren edo -programazioaren printzipio konfiguratzaile bat da, baina, aldi berean, plangintzak aintzat izan behar ditu beste helburu batzuk; hala nola, ikastetxeen gizarte-konposizioan oreka handiagoa sustatzeko. Aurrekoaren harira, neurri lagungarria da ikasleak modu inklusibo eta orekatuan eskolatzeko.

Bestalde, nahitaez aipatu behar dugu Hezkuntza Sailari emandako gomendio bat: *erlijio islamikoaren* irakaskuntzaren inguruan neurriak hartzei buruzkoa da, eta "Islamaren adiskideak" elkarteak eta eragindako pertsona partikular batzuek bere unean jarritako kexak dituzte.

Aurten ere, kuotak eskatzen jarraitzen duten *zentro itundu* batzuen jokoaren inguruko jarduketak hasi genituen 2023an. Era berean, Arartekoak berriro azpimarratu zion Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeari kezkatuta zegoela *eskolako bizikidetzaren* arazoekin lotutako kexak errepikatu zirelako, horiek izapidetzea ez baita beti erraza izaten. *Administrazio ona izateko eskubideak* dakartzen eskakizunei dagokienez, oraindik gabeziak antzeman genituen.

Premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzen eremuan ere ohiko kexak jaso ziren, beharrezko baliabideak (giza baliabideak zein baliabide materialak) ez emateari edo berandu emateari buruzkoak. Horien artean, nabarmentzekoa da semea curriculum aniztasuneko ikasgela batean eskolatu nahi zuen ama batek eskatuta izapidetutako kexa, nahiz eta irakasle-taldeak, zentroko orientazio-zerbitzuak eta berritzeguneko hezkuntza-premien aholkulariak kontrakoa iritzi.

4. Indarkeria eta tratu txar mota guztietatik babestua izateko eskubidea

2023an babesgabetasun-egoeran dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuen jardunari buruz jasotako kexek ez zuten aldaketa nabarmenik izan, ez kopuruari dagokionez, ez gaiari dagokionez, aurreko urteetakoekin alderatuta. Era berean, ez zen gomendiorik edo iradokizunik egin administrazio eskuduntzat eta kexetan aipatutakoentzat, nahiz eta hainbat kudeaketa, kontsulta eta orientazioen muina izan.

Horrela, planteatutako gaiak honako hauekin lotuta egon ziren: babesgabetasuna baloratzeko espediente bat irekitzearen inguruko zalantza; seme-alaben babesgabetasun-aitorpenarekin edo babes-neurriaren garapenarekin ados ez egotea; eskaerei (bisita-eskaerak, txosten-eskaerak eta abar) ez erantzutea; esku-hartzearen

hasiera atzeratzea; ihes errepikatuen aurrean jardutea; edo familia-harrera eteteari buruzko erabakiak. Orientabideak emateari eta kudeaketa batzuk egiteari esker, kexak birbideratu ahal izan ziren, eta kexagileen eta haurrak babesteko zerbitzuen arteko komunikazioa arindu zen.

Babesgabetasun arineko eta ertaineko arrisku-egoeretan dauden adingabeak artatzeak pisu handia izan zuen Arartekoaren 2023ko jardunean. Hori izanik Estatuko herriaren defendatzaile guztiek beren urteroko koordinazio-jardunaldietarako landu beharreko gaia, Arartekoak euskal udal eta mankomunitate askoren esku-hartzeen errealitatea, zailtasunak eta esperientzia onak hurbilagotik ezagutzeko aukera izan zuen. Ezagutza hori are aberasgarriagoa bihurtu zen beste lurralde batzuetako erakunde homologoen esperientziarekin alderatu ahal izan genuelako.

Esku-hartzeei dagokienez hautemandako arazoak eta disfuntzioak honako hauek izan ziren: udaleko gizarte-zerbitzuen aitortzarik eza hazkuntzarako babes gisa; baliabide eta espezializazio urritasuna (udalerritxikiaren kasuan areagotua); zalantzak esku-hartzearen eraginkortasunari dagokionez; esku-hartzea zatikatzea, bereziki beste egoera batzuk tartean daudenean; arreta-jarraipenean gabeziak, eta sistema planifikatzeko, ebaluatze eta, beraz, hobetzeko zailtasunak. Hala ere, esperientzia onak ere badaude, hala nola haurtzaroari buruzko tokiko mahaiak, prebentzio-programak, diziplina anitzeko balorazioak, eguneko zentroak edo ebidentzietan oinarritutako programak.

Seniderik gabeko adingabe migratzaileen arretan, Arartekoak prozesuaren bi muturretan esku hartu zuen berriro: harrera (babes-sisteman sartzea) eta emantzipazioa (sistematik irtetea). Lehenengoaren adierazle nagusia Bizkaiko lehen harrerako programaren egoeraren etengabeko jarraipena da. Zentro hori urte hasieran ireki zuten berriro, proiektu eta hezkuntza-talde berriekin, eta berriz ere gainokupazioa gertatu zen etorritako nerabeen kopuru handiagatik. Emantzipazioaren kasuan, erakundearen arreta Trapezistak programaren funtzionamenduan oinarritu zen, zehatzago, Montaña zentroan.

Haurren eta nerabeen aurkako sexu-abusuko eta -esplotazioko egoerei arreta emateari buruzko kapituluari dagokionez, 2023an amaitu zen Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorrean (gomendio hori aipatutako egoera horietan jarduteko jarraibideei buruzkoa da) jasotako proposamenak betetzeko jarduketaren hedapenaren jarraipena. Halaber, aurreko urtean ukitutako administrazioek emandako informazioa sistema judizialak emandakoarekin osatu zen, eta sistema judizialari ildo horretan aurrera egiteko gomendioa egin genion (eskumen-esparru partikularrean jarraibideak zabaltzea eta aplikatzea, profesionalen prestakuntza eta espezializazioa, hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa). Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak adierazitako jarduketetako bat Barnahus proiektu pilotua Araban abian jartzeko eta diseinatzeako prozesuan parte hartzea zen. Proiektu hori 2023an egingo zela iragarri zuen Eusko Jaurlaritzak. Urtea amaituta, ordea, ez zen proiektua hasi.

Indarkeria matxistaren biktime diren haur eta nerabeei emandako arretari dagokionez, aipagarriena da *EAE n emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioan* (2023ko lehen egunetan sinatu zen eta iaizko txostenean jaso genuen) aipatu egiten direla eta ikusgarritasuna ematen zaiela.

5. Familia izateko eskubidea

2023an, aurreko urteetan bezalaxe, Eusko Jaurlaritzak *ardurapean seme-alabak dauzkaten familiei laguntzeko dituen prestazio ekonomikoen* inguruko kexak jaso ditugu. Kexetan, batez ere, pandemiaren osteko egoeratik arrastatu diren zailtasunak ikusi ditugu, izapide telematikoaren ingurukoak, bai herritarrengan, zailtasunak izaten baitituzte dokumentazioa aurkeztu eta jakinarazpenak deskargatzeko, bai administrazioan, elkarreragingarritasun-faltagatik eta betekizunak nahiz epeak betetzeko informazio egokia ez emateagatik.

Kexa batzuek, bestalde, gora jotzeko errekurtsuak ebazteko orduan izandako atzerapena izan dute hizpide. Beste batzuetan, errekurtsuari emandako erantzunaren edukiak berak piztu du desadostasuna. Kasu guztietan, 2021ean izapidetutako laguntza-espeditenteak izan dira: espeditente gehienetan, eskaerei uko egin zitzaizela balioetsi zuen administrazioak, eskatutako dokumentazioa —izapide telematikoan— epean ez aurkezteagatik edo eskaera egiteko unean eroldaren betekizuna ez betetzeagatik (pandemian, izapide hori asko zaildu zen). Hala, argi ikusi dugu izapide telematikoak herritarrei arazoak sorrarazten jarraitzen duela eta elkarreragingarritasuna, kasu batzuetan, erronka nabaria dela oraindik ere Euskadiko administrazioarako, ez baitu erabateko elkarreragingarritasunean aritzea lortu; bada, horrek zama handia ekartzen die administrazioei.

Kontziliaziorako laguntza ekonomikoekin lotutako kexez gainera, herritarrek guraso-baimenen inguruko desadostasunak azaldu zituzten (jaiotza eta edoskitzea), eta, hazkuntzan laguntzeko neurri horien arauketa autonomia-erkumenetik harago doanez, euskal administrazio publikoen zerbitzura daudenen kasuak bakarrik izapidetu genituen. 2023an, honako hauekin lotutako gaiak aztertu ziren: amatasun- edo aitatasun-egoeran dauden pertsonak aldi baterako premiak betetzeko deitzea; irakaskuntza-eremuko hautaketa-prozesuetan adingabea zaintzeagatik etenaldi iragankorrak lan egindako denboratzat ez kontabilizatzea; hautaketa-prozesuetako probetan edoskitzeko erabilitako denbora berreskuratzea; edo kontziliazio-arrazoiengatik lanaldi-malgutasuna izatea edota ordutegia egokitzea.

Familia ugari batzuek adierazi zuten ez zeudela pozik familientzako laguntzen araudia gaur egungo gizarte-testuingurura egokitzeko atzerapenak zeudelako, esate baterako, bikotea izateko bikote gisa erregistratuta ez badago edo ezkondua ez badago aitorten hori jasotzeko ezintasunari dagokionez. Gainera, berrosatutako familia ugarien kasuan, Euskadin indarrean diren irizpideei buruzko kexak jaso ditugu, bai titulua urtero txandakatzeari dagokionez, bai familia ugariaren titulua izapidetzeko (titulua lortzeko edo berritzeko) zailtasunei dagokienez.

Atal honetan, halaber, Haurreskolak Partzuergoaren mendeko *haur-eskolekin* lotutako jarduketak aipatu behar dira. Zerbitzu hori, argi eta garbi, “familientzako laguntzak” kategorian sar daiteke, eta, 2023an, nabarmen handitu zen; izan ere, gero eta familia gehiagok jaso nahi dituzte zerbitzuok, doakotasuna ziurtatzeko konpromisoa dela-eta. Interesa handitu izanaren ondorioz, udalekin lan egiteko konpromisoa hartu zuen Partzuergoak; izan ere, eskaintako toki-kopurua ez zen nahikoa izan (batez ere, Bilbon eta Donostian), eta, beraz, kopuru hori handitu behar da. Era berean, zabalik agertu zen familien eskaerak kontuan hartzeko, programazioari eta ordutegiaren malgutasunari, guraso bakarreko familiei eta onarpen-prozesuen kudeaketa arintzeko datuen elkarreragingarritasuna presatzeko aukerari dagokienez.

Epaileak agindutako familia-elkarguneei dagokienez, zeinak, gure ustez, familiei laguntzeko eta seme-alabek banantze-testuinguru liskartsuetan bi gurasoekin harremana edukitzeko duten eskubidea betetzen laguntzeko baliabidea baitira, jasotako kexa guztiek, aurten ere, zerikusia izan zuten zerbitzu publiko horiek epailei begira idazten dituzten txostenen edukiarekin.

Guraso bananduek edo dibortziatuek seme-alaben eguneroko bizitzaren hainbat alderdi kudeatzen eta administratzen oraindik ere dituzten zailtasunekin lotuta, 2023an bananduta edo dibortziatuta egonik zaintza partekatua “habia-etxe” modalitatean egiten duten pertsonen egoera aztertu genuen, alokairu-araubideko etxebizitza babestu bat lortzeari dagokionez. Azkenean, administrazioari gomendio bat egin genion.

6. Osasunerako eskubidea

2023an, haur eta nerabeentzako osasun-arretarekin lotutako gaiak buruzko kexa eta kontsultetan gehien aipatu den gaia *euskal osasun-sistemaren tentsio-egoerarekin* lotuta egon zen, batez ere lehen mailako arretari eta arreta espezializatuari dagokienez. Osasun-zentro batzuetan osasun-langile nahikorik ez egoteari buruzko kexez ari gara; zehazki, familia-mediku eta pediatra nahikorik ez daudela diotenak. Medikua falta horren ondorioz, aurrez aurreko eta telefono bidezko hitzorduak esleitzeko epeak luzatu egiten dira, eta erabiltzaileek Etengabeko Arreta Guneetara (EAG) joan behar izaten dute urteko garai jakin batzuetan.

2023an, atzeritarrek *osasun-arreta jasotzeko* dituzten zailtasunekin lotutako kexa batzuk jasotzen jarraitu zen; kasu batzuetan, emakume haurdunei eta adingabeei buruzkoak izan ziren. Kexa horiek batez ere azpimarratzen zuten, osasun-zentroetako harrera-zerbitzuek eragozpen administratiboak jartzen dituzte, edo uko egiten diote osasun-laguntzaren eskaerak edota Osasuna Babesteko Programan onartzeko eskaerak izapidetzeari, eta ez da osasun-zentroetako larrialdietan emandako arreta osatzen.

Era berean, 2023an *osasun mentalarekin* lotutako arazoak errepikatu ziren. Horien artean, berriz ere nabarmentzekoak dira elikadura-portaeraren nahasmenduak dauzkatenen

laguntza-premien inguruan, haurren eta gazteen nahasmendu larrietan espezializatutako egonaldi ertain eta luzeko zentroetara deribatuzeko eskaeren inguruan eta patologia dualaren joraketaren inguruan izapidetu ditugun kexak.

7. Umeen eskubideak justiziaren arloan

Jakina denez, Arartekoa, bere eskumen formalari ihes egiten dioten gai batzuetan, *lankidetzan aritzen da operadore juridikoekin*, herritarrei kalte erantsiak saiheste aldera. Urteko lehen seihilekoan, Justizia Administrazioako abokatuen grebek, eta ondoren, maiatzean, justizia-administrazioako funtzionarioen grebek eragin zuzena izan zuten Euskadiko justizia-administrazioaren funtzionamenduan. Milaka epaiketa eten egin ziren, eta jurisdikzio-funtzioaren egikaritzza eta babes judizialerako eskubidea larriki kaltetu ziren. Epaitegietan izandako atzerapenei eta kausa eta espediente judizialak metatzeari lotuta, hainbat kontsulta eta kexa jaso dira Arartekoan. Horietako batzuetan haurrak zeuden tartean.

Aurten ere, beste kexa batzuek zerikusia izan zuten erregistro zibiletan izapideak egitearekin, nahitaezko aurretiazko hitzorduaren sistemaren bidez. Talde horren baitakoa da Errumaniako kontsulak Arartekoari egindako eskaera, Bilboko Erregistro Zibilarekin bitartekari-lanak egiteko, haur errumaniar baten jaiotza-ziurtagiria zuzentzeko.

Oraindik ere ez da kexarik jaso legearekin gatazkan dauden nerabeentzako gizarte- eta hezkuntza-baliabideen funtzionamenduari buruz; dena den, horrek ez du esan nahi Arartekoak ez duenik egin gazte arau-hausleei emandako arretaren jarraipena 2023an, prestakuntza-jardueren, bileren eta baliabideak bisitatzearen bidez.

Atal honen baitakoa da, halaber, gurasoak espetxean dituzten haur eta nerabeei dagokienez Arartekoak egiten duen jarduna, zeinak, iaz bezala, bi gairi erantzuten baitie funtsez: alde batetik, familiarekin komunikatzearekin eta bizikidetzarekin lotutako gaiak, eta, bestetik, espetxe-zigorra euskal espetxeetan betetzeari buruzko gaiak. Lehenengo gairi dagokionez, 2023an Arartekoak ofiziozko jarduketa bat hasi zuen (besteak beste, Euskadiko hiru espetxeak bisitatzea ekarri zuen), seme-alaba adingabeak tartean direnean espetxean dauden pertsonen eta haien senide eta hurbilekoen arteko komunikazioei buruzkoa, eta administrazio eskudunari gomendio bat egitearekin batera amaitu zen.

Bigarren multzoko kexei dagokienez, planteatutako gaiak zerikusia zuen seme-alabekin harremana izateko zailtasunarekin (kasu batzuetan, ezintasunarekin), Euskaditik kanpoko espetxeetatik edo espetxeetara lekualdatzeagatik. Egia esan, espetxe-zigorra euskal espetxeetan betetzeko zailtasunek azpiegitura urrien arazoan dute oinarria. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko ezein espetxetan erregimen itxiko sailik ez dagoenez, erregimen horren eraginpeko pertsonak lurraldetik kanpoko espetxeetara eramane behar dira. Bestalde, EAEko espetxeen

gainokupazioaren ondorioz (aurreko txostenean ere adierazi zen), EAEko espetxe-administrazioak zenbait neurri hartu zituen, hala nola Estatuko beste espetxe batzuetan dauden presoak bere eskumeneko zentroetara lekualdatzea ukatzea edo EAEn errotuta ez dauden pertsonak Espetxeetako Idazkaritza Nagusiaren beste zentro batzuetara lekualdatzea.

8. Jolasteko, atsedean hartzeko eta jarduera artistikoak eta kirol-jarduerak egiteko eskubideak

Aurten ere, eskola-kirolaren arloan aurkeztutako kexen erdiak zerikusia izan zuen eskola-kirola adin jakin batzuetan multikirolarekin lotzeko betebeharrarekin, Gipuzkoako Aldundiak eskatzen duenaren arabera. Gainerako kexak hainbat gairi buruzkoak dira: eskola-kirolaren sistemaren antolamenduarekiko desadostasunak (zonakatzea, kategoria desberdinetan parte hartzea, etab.), jarduera egiten den kiroldegietako arazoak edo entrenatzaileekin ados ez egotea. Kexa horietako bakar batek ere ez zuen Arartekoaren ebazpenik ekarri.

Beste hiru kexak elementu komun bat zuten: *udalekuei* buruzkoak ziren, baina kexa bakoitzaren muina desberdina zen, hala nola telematikoki inskribatzeko arazoak, eskaerak kudeatzean haur desgaituei tratu desberdina ematea edo kudeaketan zailtasunak izatea. Kexa horiei dagokienez ere ez zen inolako gomendiorik egin.

9. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

Nahiz eta amaierarako utzi, ez dugu ahaztu behar diskriminaziorik ez jasateko eta aukera-berdintasuna izateko printzipioak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa ardazten duela, beste hiru printzipioekin batera. *Tratuberdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integrala* onartu eta urtebetera, Arartekoak *Diskriminazioa eta diskriminazioaren aurkako politika publikoak EAEn* azterlana argitaratu zuen. Azterlan horren helburu nagusia da esparru kontzeptual eta juridikoa ezartzea arlo horretan, bai eta euskal administrazio publikoei jarduera-proposamen batzuk egitea ere. Arartekoak uste du, pertsona guztien berdintasuna eta duintasuna juridikoki aitortuta egon arren, oraindik ere euskal gizartean diskriminazioko egoerak badirela, eta horrek zenbait pertsonari edo pertsona-talderi eragotzi egiten diela beren gaitasunekin bat datorren bizi-proiektua garatzea. Baieztape hori egia da haur eta nerabeen kasuan; izan ere, zenbait kasutan, diskriminazio anizkoitza

edo metatua jasaten dute, beren adingabetasunari etniarekin, jatorriarekin, sexu-joerarekin eta abarrekin lotutako ezaugarriak gehitzen baitzaizkio, eta horientatik ere diskriminazioa jasan dezakete.

Atzerritarren seme-alabei dagokienez, esan genezake atzerritarren legeriak beraien gurasoen gizarteratze-prozesuetarako ezartzen dituen oztopoen eta traben ondorioak sufritzen dituztela, eta, zeharkako moduan, seme-alaben askotariko eskubideen garapenean ere eragina dutela. Oinarrizko beharrak betetzeko inpaktu handia dutelako bereziki garrantzitsuak dira diru-sarrerak bermatzeko eta etxebizitzarako prestazioak jasotzeko zailtasunak. Hezkuntza-arloan, eskola-segregazioak oraindik ere kezkatzen gaitu; izan ere, azken txostenek, Euskadi jatorriagatiko bigarren hezkuntzako eskola-segregazioaren buruan kokatzen dute, Estatuko gainerako lurraldeekin alderatuta.

Desgaitasuna duten haurrak tartean dauden kexa batzuk jada aipatu ditugu, hala nola ikastetxeetan laguntza-baliabiderik ez ematea edo berandu ematea. Garraio publikoaren irisgarritasunarekin edo ibilgailu partikularrak aparkatzeko txartelekina lotutako arazoei buruzko kexak haur eta nerabeei ere eragiten diete, baita lehendik dauden eraikinetan igogailuak instalatzeari buruzkoek ere.

LGtBI haur eta nerabeei dagokienez —ez da horri buruzko kexarik jaso—, 2023an Amanda elkartearekin izandako bilera nabarmendu nahi dugu. Bileran, elkarteak “hasiera azkarreko genero-disforia” delakoarekin kezkatuta zegoela jakinarazi zion.

Ijito-familiek Arartekoari helarazi zizkieten kexetan (non, ez dezagun ahaztu, haur ugari egoten baitira) ageri ziren premiek aurten ere zerikusia izan zuten ongizate materialerako eta oinarrizko premien estaldurarako elementu giltzarriekin. Lege- eta zuzkidura-aurreikuspenak gorabehera, alokairuko sustapen publikoko etxebizitza bat eskuratzea oraindik ere oso zaila da; 2023an, udal gizarte-zerbitzuek eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak eskaera ugari jaso zituzten horren inguruan. Merkatu pribatuan etxebizitza eskuratzeko diskriminazioari honako arazo hauek gehitu behar zaizkio: birkokatze atzerapenak bizikidetzaren unitatean kide gehiago egoteagatik edo lehen esleipenerako aukerak mugatzea.

Bestalde, Arartekoak urteko txostenetan behin eta berriz nabarmendu du prestazio ekonomikoaren araudi erregulatuak eta alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzaren alokairu-kontratuen hizpaketak ez datozela bat ijito-familien kultura-nortasunaren ezaugarri den ikuspegi solidario eta komunitarioarekin. Etxebizitzarik ez duten eta seme-alabak beren kargura dituzten ijito-familiek senideen babesa eskatzen dute, eta senide horiek babesa eskaintzera behartuta sentituko dira, nahiz eta horrek beren egoitza- eta prestazio-egoera arriskuan jarri.

